

EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALA SUSTATZEKO ESTRATEGIA



GIZARTE-ARLOKO ESKU-HARTZEAREN ALORREAN GIZARTE-EHUNA ETA SEKTOREEN ARTEKO LANKIDETZA SUSTATZEKO BATERAKO ESTRATEGIA

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala, *gizarte-ekimeneko eta gizarte-arloko esku-hartzeko antolakundeak*, euskal gizartearen oinarritzko aktibo bat da, eta haren ekarpena ezinbestekoa da gizarte zuzen eta solidario, berdintasunezko eta kohesionatu, demokratiko eta parte-hartzailea eraikitzeke. Eta gizarte-beharrei modu egokiagoan erantzuteko (integrala, hurbilekoa, pertsonala, parte-hartzailea), sektoreen arteko lankidetzaren bidez eta pertsonen, familien, kolektiboen eta komunitate hartzaileen partaidetzarekin.

Hala aitortzen eta adierazten du Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak, zioen azalpenen hamargarren paragrafoan eta *elkarrizketa zibilaren printzipioa eta erantzukizun publikoko zerbitzuak emateko eredu mistoa* finkatzean. *Elkartasuna eta justizia, berdintasuna eta kohesioa, edo demokrazia eta partaidetza bezala, printzipioa eta eredu ere batera erreklamatzeko dira.*

Elkarrizketa zibilaren printzipioa, euskal sektore publikoarekin (betearazleak eta legegileak), erakundeen eta sareen, eta gizarte-arloko esku-hartzearen hartzaile eta protagonisten eskubidea onartzea dakarrena, haiei dagozkien politika publikoen fase guztietan parte hartzeko, egikaritze-fasea barne (7. artikulua).

Eta *eredu mistoa*, publiko-soziala, zuzeneko kudeaketa publikoa nagusi duena eta gizarte-arloko ekimenarekin lankidetzan aritzeko, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak aurreikusten duena eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak (III. Kapitulua) gizarte-arloko esku-hartzearen esparru osora zabaltzen duena: gizarte-zerbitzuak, enplegurako sarbidearen sustapena, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko sistema, eta eremuen arteko elkarrekintzarako espazioak; adibidez, soziolaborala, soziosanitarioa, soziohabitazionala, sozioedukatiboa, soziokulturala edo soziojudiziala.

Beraz, *euskal gizartea da apustu bat arau bidez finkatu duena, Gobernuak ere sustatu eta partekatzen duena*, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren (EHSS) ekarpena aitortu eta bultzatu dituelako, Euskadiko gizarte-ehuna indartu, elkarrizketa zibila bultzatu, eta erantzukizun publikoko zuzkiduran ekimen publikoaren eta gizarte-ekimenaren arteko lankidetzaren sendotzeagatik, eta interes orokorreko beste jardura batzuetan lankidetzaren aritzeagatik, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan.

Lankidetzaren publiko-soziala gizarte zuzen eta solidario, berdintasunezko eta kohesionatu, demokratiko eta parte-hartzaile, ondasun erkidera bideratu eta pertsonen aldekoaren bermea da eta izan behar du. Eta, beraz, erantzukizun publikoa finkatzea eta gizarte-beharrei erantzuna ematean gizarteak aktiboki parte hartzea eskatzen duen gizarte- eta garapen-eredua izango du oinarri, batik bat gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan.

Hala, Eusko Jaurlaritzak, legea eta XI. Legealdiko gobernu-programa garatuz, EHSSko erakundeekin eta sareekin lankidetzan, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren bitartez (EEZM), *Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategia* hau egin du, EHSS indartzeko eta sustatzeko asmoz, eta euskal sektore publikoaren eta EHSSren arteko lankidetzaren ibilbidearekiko koherentea den esparru arautzaile berri hau praktikan finkatzeko; baina, aldi berean, elkarrizketa zibila eta eredu mistoa oinarritzko zutabe dituen *izugarritzko jauzi kualitatiboa* da.

Beraz, Gobernuaren EHSSren arteko *baterako estrategia* da, diseinatu zen unean proposatzen zuen hura bera du oinarri: Gobernuaren sailen eta Euskadiko hirugarren sektore sozialaren sareen arteko gero eta lankidetzari handiagoa.

Estrategiaren izaerak bizia izan nahi du, operatiboa eta dinamikoa, eta, asmo handiko helburuak dituen, legealdi honetaz harago luzatu beharko da denboran. Gainera, sailen arteko estrategia bada ere, eta ez erakunde artekoa, euskal administrazio publikoen beste maila batzuetako parte-hartzera irekita dago, eta, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko 6/2016 Legean aurreikusitakoaren arabera, beren sustapen-estrategiak landu beharko dituzte, hemen finkatu diren eta estrategia hau partekatzen duten helburu orokorrekin koherente izanik.

Lankidetzari publiko-sozialari dagokionez, estrategiak **Euskadiko sektore publikoaren eta sektore sozialaren arteko lankidetzari finkatzen** lagundu dezala espero dugu. Eta, bereziki, **gai horretan Gobernuaren ekintzaren zeharkakotasunean aurrera egiteko** (oro har eta espazio soziokultural, soziohabitazional, soziosanitario, sozioedukatiiboan...) eta **EEZM indartzeko** aukera eman dezala. Eta espero dugu **EHSSren erakundearen eredu komunitarioa indartzea**, haren nortasunaren eta laguntzaren oinarri gako bat den aldetik, gero eta arreta hurbil, integral, jarraitu, pertsonalizatu eta parte-hartzaileagorantz aurrera egiteko, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan oro har, eta erantzukizun publikoko zerbitzuenean bereziki; eta **eredu mistoa sustatzea**, zabalkundearen jarraipena eginez eta kontzertu sozialeko araubidea arautuz, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko 6/2016 Legean eta Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean aurreikusitakoa betez.

Sustapenaren ekintzaren bidezko sektore publikoaren eta EHSSren lankidetzari dagokionez, strategiaren asmoa da **gizarte-ehuna indartzea**, arreta berezia jarritz asoziazionismo txiki eta ertainean, gizarte-oinarria sustatuz eta erakundeetan parte hartzea sustatuz eta laguntzen deialdiak eta haiei laguntzeko programak, finantzaketa-iturrien aniztasuna eta azpiegituren eta beste baliabide batzuen eskuragarritasuna hobetuz.

EHSSren eta euskal sektore publikoko zenbait eragileren arteko lankidetzari dagokionez, strategiaren asmoa hau da: EHSSren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzari sustatzea, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan Euskadiren posizioa indartzeko Europar Batasunean, eta **EBrekin lankidetzari** bultzatutako proiektuak gehitzeko, bai eta **EHSSren eta enpresen arteko lankidetzari** sustatzeko ere, esperientzia positiboak pilatzeko eta lankidetzari-espazio hori egoki definitzen aurrera egiteko aukera emango duen programa pilotu baten bidez.

Sektorearen nortasun, egituraketa eta aitorpenari dagokionez, erakundearen eta sarearen asmoa hau da: **nortasunaren definizioan** eta **koherentziaren bilaketan** aurrera egiten jarraitzea, gizartearen proposatzen dutena beren baitan biziz, eta, horretarako, erakundeetan aukera- eta tratu-berdintasuna bultzatuz eta eragiteko funtzioa bultzatuz. Eta sektorearen **egituraketa-prozesuan** ere urratsak egiten jarraitzea, Sarearen Sarearen harremanak indartzeko sektorearen esparruetan, sare bakoitza barrutik artikulatuz eta esku-hartze zuzeneko erakundearen nahiz sarearen arteko lankidetzari horizontala artikulatuz. Ildo horretan bertan, strategiaren asmoa da herritarrek oro har eta gizarte-eragileek **EHSS ezagutzeko eta aitortzeko urratsak egitea**, ekimen baten bitartez, sektorea eta haren ekarpena, erakundearen balio osoaren eta balio erantsiaren identifikazioa eta sustapena ezagutzera emateko, bai eta gardentasuna eta ebaluazioaren kultura sustatzeko ere.

Azkenik, **I+G+b eta datuetan oinarritutako kudeaketari dagokionez**, strategiak **I+G+b sustatu nahi du** **gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan**, eta esparru horretan **inbertsio-ekimen** bat definitu eta sustatu, nazioarteko ituneko esperientziak kontuan hartuta, eta **Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia** bultzatu, 6/2016 Legeak 25. artikuluan sortzen duena, eta EHSSren egoerari, sustapen-

neurrii eta strategiaren zabalkundeari buruzko **ikerketako eta ebaluazioko ziklo periodiko** bat zabaldu nahi du, aukera emango duena legearen aurreikuspenak betetzeko, EHSSren errealitatea ezagutzeko eta datuetan oinarritutako sustapen-sistema kudeatzeko.

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	5
1.1. Strategiaren oinarriak	5
1.2. Strategiaren ezaugarriak, helburua eta hura sortu duen testuingurua.....	7
1.3. Strategiaren eta XI. Legealdiko Gobernu Programaren, Agenda 2030en eta Europa 2020 Strategiaren arteko lotura.....	9
1.4. Estrategia egiteko prozesua eta partaide diren Eusko Jaurlaritzaren sailak.....	1 2
2. Diagnostikoa. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren egungo egoera eta strategiak aurreikusten dituen eremuekin lotutako erronka nagusiak.....	1 5
2.1. Diagnostikoaren laburpena.....	1 5
2.2. Diagnostikoa zabaltzea (strategiaren eremuei dagokienez).....	1 8
2.2.1. Strategiaren eremuen eta sektorearen erronken arteko lotura.....	1 9
2.2.2. Diagnostikoaren edukiak, strategiaren eremuei dagokienez.....	2 0
3. Helburu orokorrak	3 8
3.1. Esparru orokorra sustapen-helburuei dagokienez.....	3 8
3.2. Helburu orokorrak eta emaitzen adierazleak EHSSren sustapenari dagokionez.....	3 9
3.3. Strategiaren eta foru- eta udal-estrategien arteko lotura.....	4 3
4. Jarduerak	4 4
4.1. Strategiaren laburpena (mapa).....	4 4
4.2. Jardueren zerrenda eta jardueren taula eremuka.....	4 9
5. Strategiaren zabalkundea, ebaluazioa eta eguneratzea	5 2
Eranskinak	

1. eranskina Ikerketako eta ebaluazioko ziklo periodikoa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen aurreikuspenekiko koherentea.....	5 4
2. eranskina laburdurak.....	Glosarioa eta 5 5

1. AURKEZPENA

1.1. ESTRATEGIAREN OINARRIAK

Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak dioenez, hirugarren sektore sozialeko erakundeek "...premiei eman beharreko erantzuna eta instituzioekiko lankidetzak kritikarako, salaketarako eta alternatibak proposatzeko gaitasunarekin konbinatzen dituzte, funtsezko ekarpena, ekarpen bereizgarria, eginez honako hauei: a) ematen dituzten zerbitzuen xede diren pertsona, familia, talde eta komunitateei, eskubideak sustatzeari eta benetan erabiltzeari eta gaitasunak eta bizi-proiektuak garatzeari dagokienez, betiere ahalik eta autonomiarik handiena utziz; eta b) euskal gizarte osoari, hain zuzen ere solidaritateari eta elkar laguntzari, partaidetzari, kohesio sozialari, politika sozialak eta erantzukizun publikoko sistemak sustatzeari, zerbitzu-hornikuntzari (hots, horrelako zerbitzuak diseinatzea, ematea, ebaluatzea eta hobetzea) eta gobernantzari dagokienez" (zioen azalpena, bederatzigarren paragrafoa).

Sektorearen ekarpen hori kontuan hartuta, errealitate bat dena eta haren nortasunaren berezko erronka bat ere badena, legeak euskal gizartearen funtsezko aktibo gisa onartzen du EHSS, gizarte zuzen eta solidario, berdintasunezko eta kohesionatu, demokratiko eta parte-hartzaile gisa eratzeko, bai eta gizarte-beharrei (integrala, hurbilekoa, pertsonalizatua, parte-hartzailea) modu egokiagoan erantzuteko ere, sektoreen arteko lankidetzaren bidez eta pertsonen beraien, familien, kolektiboen edo komunitate hartzaileen parte hartzearekin (zioen azalpena, hamargarren paragrafoa).

EHSSaren oinarria ekarpen –historiko, eguneko eta etorkizuneko– hori onartzean datza, EHSSren ezaugarria dena eta izaten jarraitu behar duena, eta, horrez gain, **bi ustetan:**

- a) **Helburuei dagokienez**, garapen jasagarriak dimentsio hirukoitza duela (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa), aldi berean egin beharrekoa, Agenda 2030en eta Europako 2020 Estrategian ezarrita dagoen moduan, eta norabide guztietan aldi berean egin behar dena.

Gizarte-garapena, zehazki, garapen ekonomikoa posible egiteko baldintza bat ere bada. Ez da soilik aberastasuna sortzea, ondoren banatzeko eta ekonomia-politiken nahi gabeko eraginak gizarte-politiken bidez zuzentzeko. Horrez gain, beharrezkoa da giza kapitala eta gizarte-kapitala sustatzea, aberastasuna sortzeko¹ eta inor alboan uzten ez duen eta desberdintasunetan eta prekarietatean sakontzen ez duen hazkunde barneratzailea sustatzeko, aukerak sortuz eta emakume nahiz gizon guztientzat nolabaiteko emaitza-berdintasun bat sortuz.

Dena dela, *gizarteratzea inklusiboa izan behar duen gizarte-, hazkunde- eta garapen-eredu jakin baten emaitza da, eta herritarren eskubideen erabilera efektiboarena, edozein abagunetan sustatu beharrekoa, eta ez da hazkunde ekonomikorako aukera huts bat soilik. Pertsonak eta haien bizi-kalitatea dira helburua, eta interes orokorra edo guztien mesedea ororen gainetik jarri behar da.*

Hori da autogobernua berreskuratu zenetik legegileek eta exekutiboak partekatu eta indartu duten euskal gizarte- eta garapen-eredua, aldi berean aberastasuna eta enplegua sortuz, alde batetik, eta

¹ Horren haritik, adierazi behar da, Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020ko Industrializazio Planak Ekonomiako Nobel saridun Paul Krugmanen ekarpenari buruz dioten moduan, gizarte-desberdintasunak eragozpenak direla hazkunderako, eta errentak behar bezala birbanatzea, berriz, oso onuragarria dela ekonomiarako.

Ongizate Estatu eta aukeren eta emaitzen berdintasunaren aldeko ekintza positiboa finkatuz, bestetik; horien oinarritzko adierazpenetako bat erantzukizun publikoko sistemak finkatzea eta erantzukizun publikoko prestazioetarako eta zerbitzuetarako sarbidea aitortzea, eskubide subjektibo bat den aldetik: diru-sarreraren bermea, etxebizitzarena, gizarte-zerbitzuena, eta abar.

- b) **Bitartekoei dagokienez, HSS indartzea eta sektore arteko lankidetzak (publikoa, pribatua, soziala)² eta, bereziki, elkarrizketa zibilarena³ eta lankidetzak publiko-soziala gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan eta esparru horretako erantzukizun publikoko zenbait sistema eta espazioen kudeaketan (eredu mistoa), koherentea dela bultzatu nahi den eta ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren garapenaren helburuetan aurrera egiteko aukera ematen duen gizarte-, garapen- eta gobernantza-ereduarekin.**

EHSSko erakundeek eta sareek eta sektore publikoak lankidetzan dihardute eta jarraitu behar dute gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan gizarte-politikak eta sistema publikoak sustatzen, erantzukizun publikoan, lankidetzak publiko-sozialean eta gobernantza parte-hartzailean oinarritutako kudeaketa-eredu bat erabiliz (kudeaketako eredu mistoa).

Gainera, EHSSko erakundeentzat eta sareentzat betebeharrak bat eta erronka bat da funtzioen orekari eustea (zerbitzu-hornikuntza, gaitasun kritikoa, salaketakoa eta alternatibak proposatzekoa...) eta gizarte- eta garapen-ereduari buruzko gizarte-elkarrizketan aktiboki parte hartzea, orientabide, irizpide eta proposamen konkretuak elkarrizketa zibilaren bidez eramanez.

Azken finean, estrategiaren euskarria gizarte- eta garapen-eredu bat da, lankidetzak publiko-sozialarekin, elkarrizketa zibilarekin eta eredu mistoarekin koherentea dena, erantzukizun publikoko zerbitzuak hornitzeko gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan.

EHSS beharrezkoa da agenda globala eta Europakoa inplementatzeko, Euskadiko testuingurura egokituta; eta euskal gizarte- eta garapen-eredua definitzen lagundu du eta laguntzen du, bai eta eredu hori politika publikoen diseinu, exekuzio, ebaluazio eta eguneraketan zabaltzen ere; horrez gain, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan ongizate-sistemak finkatzen eta zabaltzen lagundu du, erantzukizun publiko, elkarrizketa zibil eta lankidetzak publiko-sozialaren printzipioak kontuan hartuta.

EHSS eta lankidetzak publiko-soziala indartzeak euskal gizartearen gaitasuna handitzea dakar, une honetan ditugun erronka handietako batzuei erantzuteko eta aurrera egiteko gizarte zuzen eta solidario, berdintasunezko eta kohesionatu, demokratiko eta parte-hartzaileagoa eraikitzen, pertsonak ardatz dituen, ondasun erkidera bideratua, jasangarria, berritzailea eta, lankidetzak abiapuntu hartuta, etorkizuna modu proaktiboan eraikitze gaitasunak dituen.

² Antzeko planteamendua da, baina ez berdin-berdina, Agenda 2030en azken helburuaren azpian dagoena, aurreko 16 helburuak lortzeko itunen aliantzari buruz aritzen denean, eta Europako 2020 Estrategian, zabalkunderako sektore eta gizarte-eragile guztien parte-hartzea ezinbestekotzat jotzen duenean. Horretarako, Europako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak Europa 2020 zuzendaritza-batzordea sortu du, eta Europa guztiko gizarte zibileko sareek hartzen dute parte bertan.

³ <<Elkarrizketa zibilaren printzipioari jarraikiz, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakunde eta sareek, eta horien bitartez esku-hartze sozialaren hartzaile eta protagonista diren pertsona, familia, kolektibo eta komunitateek, eskubidea izango dute ukitzen dituzten politika publikoetan parte hartzeko, politika publiko horien edozein fasetan, egikaritze-fasea barne, betiere lege honetan eta sistema bakoitza erregulatzen duen araudian jasotako baldintzei jarraikiz, kalterik egin gabe hala ere erakunde bakoitzaren gobernu-organoei dagozkien erabaki-gaitasunei>> (6/2016 Legearen 7. artikulua, 1. atala).

1.2. ESTRATEGIAREN EZAUGARRIAK, HELBURUA ETA HURA SORTU DUEN TESTUINGURUA

Lehenik eta behin, azpimarratu behar da *Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Sustapen Estrategia* (EHSSSE) egitea aurreikusita dagoela Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean (EHSSL); hain zuzen, 17. artikuluan eta hirugarren xedapen gehigarrian.

Beraz, estrategiak lege-mandatu bati erantzuten dio eta EHSS Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren eta euskal sektore publikoaren arteko⁴ gero eta lankidetzeta eta elkarlan handiagoko ibilbidea jasotzen eta indartzen duen arau-esparru batean kokatzen da.

Bigarrenik, estrategia: a) Eusko Jaurlaritzak egin du, EHSSko erakundeekin eta sareekin lankidetzan, EEZM Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren bitartez; b) helburuen eta jardueren nahia kontuan hartuta, esparru-estrategia gisa ulertzen da, legealdiko zenbait plan egiteko balio behar duena, hura zabaltzeko⁵; c) eragile bakoitzaren (EJ, EHSS...) jarduerak eta lankidetzeta-jarduerak ditu berekin, bai eta koordinazio-mekanismoak ere, horretarako; d) 9 arlo ditu, 17.3 artikulua ezarritako 8 eta nortasunaren arloa.

Gainera, Legearen 17.6 artikuluan ezarritakoaren arabera, estrategiak: diagnostiko bat du euskarri, hurrengo atalean aurkeztzen dena; adierazleak⁶ ditu, exekuzioaren jarraipenaren urteko txostena egiteko aukera ematen dutenak, bai eta emaitzen ebaluazioen txostena ere; eta 34 jarduera propio eta bi jarduera ez-propio identifikatzen ditu, aldean ustez gakoak direnak Legean aurreikusitako helburuak eta diagnostikoan identifikatutako erronkak lortzeko.

Hirugarrenik, Eusko Jaurlaritzaren zenbait sailen EHSSren sustapenaren ekintza artikulatzen du, lehenengo aldiz, Gobernuaren eta EHSSren elkarlan- eta lankidetzeta-gaietan Gobernuaren ekintzaren elementu eragile gisa jarduteko, hura sustatzeko, zenbait orientabide orokor ere ezarri euskal administrazio publiko guztien sustapen-ekintzarako⁷, Legean aurreikusitakoarekin koherente izanik.

Zehazki, estrategiak sail arteko izaera du, eta Eusko Jaurlaritzak, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan eta jarduera ekonomikoa zein hura garatzen duten erakundeak sustatzeko, egin nahi dituen jarduera berritzaileak barnean hartzen ditu, Legearen 17.4 artikuluan aurreikusitakoa betez. Eta barnean hartzen du, halaber, foru aldundiek eta tokiko erakundeek, EHSSSerekin koordinatuta, beren estrategiak egiteko eta denetariko sustapen-neurriak bultzatzeko aurreikuspena, diru-laguntzen urteroko deialdiez gain, Legearen 18. artikulua 1. eta 2. atalean aurreikusitakoa betez hurrenez hurren (ikusi EHSSSeren jardura ez-propioak).

⁴ Ikusi laburdurak eta terminoen glosarioa 1. eranskinean.

⁵ Legeak ez du berariaz aurreikusten bigarren estrategia bat egitea eta adierazten du strategiaren iraunaldia lau urtekoa izango dela. Horren haritik, legealdi-planak estrategia zabaltzen du, lehenetsitako jardueren ebaluazioaren zerumugatzat legealdia ezartzen dela bermatzeko, baina diagnostiko zabal bat eta estrategia integral bat ditu euskarri, derrigor eta duen nahiagatik bi aldean ustez (Eusko Jaurlaritza eta EEZMn ordezkaturako EHSSren sareak) denborazko zerumuga handiagoa izan behar duena.

⁶ Jarraipenaren eta emaitzen adierazleak legealdi-planean sartutako jardueren deskribapen xehatua agertuko dira.

⁷ Estrategiari dagokionez, sektore publikoaren *sustapen-ekintza*, zentzu zabalean, haren eta EHSSen arteko lankidetzarekin eta elkarlanarekin lotuta dago, zentzu zabalean. Eta sustapena, edo sustapen-ekintza zentzu murriztaileagoan edo hertsiagoan, erakundeei eta sareei, laguntzen, diru-laguntzen, laguntza-programen eta abarren bitartez lagunduz (laguntza teknikoak, ekonomikoa, materiala,...).

Horren haritik, estrategiaren asmoa da EHSSren sustapenean esku hartzen duten eragileen ekintza dokumentu honen hirugarren atalean jasotako helburuekin lerrotzea, eta sustapen-ekintza aberastea, jarduera berri eta garrantzitsuak sartuz, lehendik existitzen diren neurri eta jarduera guztiak kontuan hartu gabe.⁸

Azken finean, Euskadin lege batean aurreikusitako Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko estrategia bat abian jartzen den lehenengo aldia da, sektorearen diagnostiko batean oinarritua, integrala (9 eremu hartzen ditu), baterakoa (Gobernuaren eta EHSSren arteko lankidetzaren abiapuntu izanik), zeharkakoa (Gobernuko sailerikoa (sailen artekoa) eta euskal administrazio publikoen multzorako erreferentzia diren helburu orokor (3. atala) batzuekin lerrotua.

Azkenik, legeak ezartzen duen strategiaren ezaugarrietatik harago, eta sortutako eztabaiden eta estrategia egiteko prozesuan hirugarrenekin egindako egiaztapenen ondorioz (berezi, Generalitatearekin eta Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialerako erakundearen Taula), nahiago izan da estrategia eta gerora egin daitezkeen estrategiak honelakoak izatea:

- jarduera garrantzitsu ugari egitea, haietako asko berriak, eta aipatutako helburuekin eta erronkekin koherenteak direnak;
- eta estrategia biziak izatea, errealitatean gerta daitezkeen aldaketa esanguratsuei edo strategiaren zabalkundearen esperientziatik eratorritako direnei erreparatzeko, jarduera berriak sartzeko aukera izanik eta/edo aurrez sartutako jarduerak eguneratzeko edo zehazteko, behin abian daudela; berezi, aurretiko analisi edo diagnostiko bat aurreikusten badute.

Bestalde, aurreikusitako eremu guztietan helburu handinahiak eta jarduerak finkatzen diren aldi berean, hasierako faseetan beharrezko zehaztasun eta errealismoz zabaldu behar da, ezaugarri horiek dituen lehendabizikoa izanik Euskadin eta koordinazioko egiturak umotzeko eta bi aldeek emandako denbora, esleitutako baliabideak eta abar pixkanaka handitzeko prozesu bat egiteko beharra kontuan hartuta.

Horren haritik, strategiaren jarraipenari eta ebaluazioari dagokienez, bosgarren atalean adierazitako beste alderdi batzuen artean, honako hauek aurreikusten dira:

- EEZMn *lantalde* bat konfiguratzeko, gobernuak eta EEZMn ordezkaturako sareek osatua, izaera proaktiboa duena eta strategiaren jardueretako bakoitza banan-banan pixkanaka zabaltzeko ardura izango duena, helburu errealistak eta funtzionamendu-mekanismo argiak izanik;
- Lehendakariak eta EEZMk bilera bat egitea, estrategia ebaluatzeko;
- jarraipeneko urteko txostenak egitea, eta legealdiaren amaieran (2020) emaitzen ebaluazio bat egitea;
- eta Kataluniarekin esperientziak egiaztatzeko eta trukatzeko harremanei eustea, kontuan hartuta Kataluniako Generalitatearekin eta Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialerako erakundearen Taularekin ondorengo ondoko “hirugarren sektore sozialari laguntzeko planen” diseinu, exekuzio eta ebaluazioari buruzko esperientzietan izandako lankidetzaren.

⁸ Kontuan hartu behar da, gainera, Legearen 19. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, gizarte-politiken gaietan eskuduna den Eusko Jaurlaritzaren Sailak egin beharreko **Euskadiko hirugarren sektore sozialaren sustapen-neurriak buruzko urteko txostenak** EHSSren sustapen-ekintzen multzoa jaso behar duela gutxienez.

1.3. ESTRATEGIAREN ETA XI. LEGEALDIKO GOBERNU PROGRAMAREN, AGENDA 2030EN ETA EUROPA 2020 ESTRATEGIAREN ARTEKO LOTURA

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen aginduz eta Eusko Jaurlaritzaren “hirugarren sektore sozialari laguntzeko” konpromisoaren laguntzarekin egin da estrategia.

Estrategia zabaltzea ***XI. Legealdiko (2016-2020) gobernu-programan*** sartutako Eusko Jaurlaritzaren konpromiso horren funtsezko adierazpena izango da.

Gobernu Programak “giza garapen jasangarria” lortu nahi du, eta Euskal Herriaren helburu batzuk betetzera bideratutako 4 oinarritzko zutabek, 10 ardatzek, 175 konpromisok eta 650 ekimenek osatzen dute; hauek, besteak beste: pobrezia-tasa % 20ra murriztea, langabezia-tasa % 10etik jaitea eta Euskadi Europako lehen lau herrialdeen artean kokatzea, genero-berdintasunari dagokionez.

Hauek dira lau oinarritzko zutabeak:

- Enplegua, ekonomia berrindartzea eta jasangarritasuna.
- Giza garapena, gizarteratzea, berdintasuna eta kalitateko zerbitzu publikoak.
- Bizikidetzeta eta giza eskubideak.
- Autogobernu gehiago eta hobea.

II. Oinarriaren barruan, Giza garapena, gizarteratzea, berdintasuna eta kalitateko zerbitzu publikoak izenekoan, II.4 Ardatza dago, Gizarteratzeko eta berdintasunerako gizarte-agenda, eta hor, 138. konpromisoa: “Hirugarren sektore sozialari laguntzea”.

Zehazki, 2. ekimenean, hau aurreikusten da: *hirugarren sektorearen sustapenerako estrategia egitea, euskal gizarte-ehuna, parte-hartze soziala eta solidaritate antolatua sendotzen laguntzeko*. Eta 1. ekimenean, *Elkarrizketa Zibilaren Mahaia sendotzea*: estrategia honetan sartutako jardueretako bat, hain zuzen ere.

Bestalde, Gobernu Programa lotuta dago Nazio Batuen *Agenda 2030en Garapen Jasangarriarekin* eta *Europa 2020 Estrategiarekin*, *hazkunde zentzuzko, jasangarri eta integratzailearekin*.

Agenda 2030ek tresna bat izan nahi du, planeta osoan giza garapen jasangarria lortzeko, eta Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) inplementatzen eragile guztiek hartuko dute parte: maila guztietako administrazioek, sektore pribatuak, hirugarren sektore sozialak eta herritar guztiek, oro har.

Agendak garapen jasangarriko hiru dimentsioak (soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa) artikulatzen dituzten 17 helburu ditu, kontuan hartuta garapenak pobrezia ezabatzea eta bakea izan behar dituela euskarri, nahitaez. Honako hauek dira: 1. Pobrezia ezabatzea. 2. Goserik ez. 3. Osasuna eta Ongizatea. 4. Kalitateko hezkuntza. 5. Genero-berdintasuna. 6. Ur garbia eta saneamendua. 7. Energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea. 8. Lan txukuna eta hazkunde ekonomikoa. 9. Industria, berrikuntza eta azpiegitura. 10. Desberdintasunak murriztea. 11. Hiri eta komunitate jasangarriak. 12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak. 13. Klimaren aldeko ekintza. 14. Itsaspeko bizitza. 15. Lehorreko ekosistemetak bizitza. 16. Bakea, justizia eta erakunde sendoak. 17. Helburuak lortzeko aliantzak.

Bestalde, **Europa 2020 Estrategia** 2010ean hamarkada guztirako Europar Batasunak hazkunde jasangarriko eta enplegurako abian jarri zuen estrategia da, krisiak planteatutako erronkei erantzuteko, egiturazko aldaketak sustatzeko eta epe luzeko hazkundera akuilatzeke, *hazkunde-eredu zentzuzko, jasangarri eta integratzaile batera bideratua*.

Estrategia horrek 2020an bete beharreko helburu kuantitatibo batzuk ezartzen ditu, 5 eremutan:

Eremua	2020 helburua
Enplegua	20 urtetik 64ra arteko adin-tartearen okupazio-tasa: % 75
I+G	BPGd-ren gaineko I+Gko inbertsioa: % 3.
Klima-aldaketa eta energia-jasangarritasuna	Berotegi-efektuko gasen isuriak: % 20 (edo % 30, baldintzak betetzen badira) 1990eko mailen azpitik. Energia berriztagarrien pisua energiaren amaierako kontsumoan: % 20. Energia-kontsumo maximoa: 1.483 Mtoe (oinarrizko kontsumoa) edo 1.078 Mtoe (amaierako kontsumoa).
Hezkuntza	Eskola uzte goiztiarraren tasa: % 10 baino txikiagoa. Hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonen ehunekoa: % 40 edo handiagoa 30 urtetik 34 urtera arteko pertsonena.
Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka	Pobrezian eta gizarte-bazterkerian dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen kopurua: 20 milioi txikitzea.

Iturria: Europako Batzordea

Estrategiaren adierazleek agerian utzi zuten 2016an EB hezkuntza, klima eta energiari buruzko helburuak betetzeko bidean zegoela, baina ez gainerakoak. Hurrengo taulan, 2020rako helburua, Europako posizioa (EU-28) eta Euskadikoa (Euskadi) ageri dira, kasu bakoitzean eskura dauden datu berriekin (urtea parentesi artean adierazita), eta Euskadiri buruzko 2008ko datua.

Eremua	Adierazlea	2020	EU-28	Euskadi	Euskadi, 2008
Enplegua	20-64 okupazio-tasa	75.0	71.1(2016)	69.1(2016)	71
I+G	Barne gastu gordina I+Gn (BPGd-ren gaineko ehunekoa)	3.00	2.03(2015)	1.84(2015)	1.81
Hezkuntza	Eskola-uzte goiztiarraren tasa (18-24 urte)	< 10,0	10.7(2016)	7.2(2014)	13.9
Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka	Pobrezia edo gizarte-bazterkeria arriskuan dauden pertsonen tasa	2008an baino 20 milioi gutxiago	24.4(2014) 23.7 2008an	20.6(2016)	17.9

Iturria: geuk eginikoa, Eustaten (Euskadi) eta Eurostaten datuetan oinarrituta

Bestalde, urte anitzeko finantza-esparruak 2014-2020ko aldirako finantzaketaren lehentasunak ezartzen ditu:

1A AZPIERRUBRIKA HAZKUNDERAKO ETA ENPLEGURAKO LEHIA 126 mM euro

HORIZON 2020. 75 mM	Ikerketa eta berrikuntza
COSME. 2Mm	Lehiakortasuna eta jasangarritasuna, ekintzailtza, eta ETEak sortzea eta haien hazkundea
GIZARTE-ALDAKETA ETA BERRIKUNTZA. 1mM	Enpleguaren eta gizarte-politiken sustapena
EUROPA SORTZAILEA. 2mM	Sektore kultural eta sortzailearen gaitasunak indartzea
ERASMUS GUZTIENTZAT. 15 mM	Mugikortasuna heziketaren eremuan
CEF AZPIEGITURAK 30 mM	Azpiegiturak birgaitzeko, hobetzeko edo berriak eraikitzeko inbertsioa

1B AZPIERRUBRIKA EKONOMIA-, GIZARTE- ETA LURRALDE-KOHESIOA

ESKUALDEKO PROGRAMAK	I+G+b, IKTen sarbidea, erabilera eta kalitatea, ETEen lehiakortasuna, karbonoaren murrizketa, klima-aldaketara egokitzea eta arriskuen kudeaketa, ingurumenaren babesa eta baliabideen efizientzia, garraio jasangarria, enplegua eta lan-mugikortasuna, gizarteratzea eta pobreziaren aurkako borroka, hezkuntza eta etengabeko prestakuntza, gaitasun instituzionala eta administrazio publikoaren efizientzia sustatzea.
MUGAREN BI ALDEETAKO LANKIDETZA	
ESKUALDE ARTEKO LANKIDETZA	
NAZIOZ GAINDIKO LANKIDETZA	

EHSSSEk Agenda 2030ekin eta Europa 2020 Estrategiarekin duen loturari dagokionez, kontuan hartu behar da EHSSSEren ardatza sektorea indartzea eta sektore arteko lankidetzak dela; bereziki, sektore publikoari dagokionez, eta, neurri batean, enpresei ere bai, kontuan hartuta, adierazi dugun moduan, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruak, dituen ezaugarriengatik, eta gizarteratzeak, helburua den aldetik, sektore sozial guztien parte hartzea eta lankidetzak eskatzen dutela.

Horregatik, sektore arteko lankidetzaren eta jarduera jakin batzuen bultzadari berari dagokionez salbu (I+G+b soziala bultzatzeari buruzkoak, adibidez), ez da egokia lotura zuzenik bilatzea EHSSSEren helburuen eta jardueren eta Europa 2020 Estrategiaren artean; izan ere, azken horiek, EHSSSEn kasuan ez bezala, gizarte-arloko esku-hartzearen hartzailak dituzte ardatz, erakundeak baino gehiago.

Hala ere, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruko lankidetzak publiko-sozialaren ahaleginari esker, gobernantza parte-hartzailearekin eta erakunde demokratikoak beraiek indartzearekin lotutako helburuetan aurrera egiteko aukera dago eta eredu komunitarioaren ezaugarriei (hurbila, pertsonalizatua, parte-hartzailea...) erantzuten dien arreta ematen laguntzen du.

Eta, zeharka, Agenda 2030en eta Europa 2020 Estrategiaren beste helburu batzuetan aurrera egiten laguntzen du.

- Hala, lehenengoari dagokionez, nazioarteko garapenerako lankidetzako erakundeek 17 helburuak ia erabat betetzea lortzen dute.
- Bestetik, EHSSko gainerako erakundeek Agenda 2030eko 1., 3., 4., 5., 8. eta 10. helburuetan jarduten dute, neurri handiagoan, 17. helburuaz gain, eta modu esanguratsuan laguntzen dute Europa 2020 Estrategiaren dimentsio sozialaren garapenean, eta, bereziki, pobrezia- eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokarekin lotutako helburuetan, baina, baita enpleguan, hezkuntzan edo I+G-n (soziala) ere.

Horrenbestez, EHSSko erakundeek funtsezko zeregina dute garapenerako helburuak lortzen, eta, bereziki, desberdintasunarekin (adibidez, pobrezia- eta desenplegu-tasak murriztea) edo genero-berdintasunarekin lotutako helburuei dagokienez, bai eta funtsezko erronka batzuei dagokienez ere; hala nola erronka demografikoa eta krisitik irtetea, inor atzean utzi gabe.

1.4. ESTRATEGIA EGITEKO PROZESUA ETA PARTAIDE DIREN EUSKO JAURLARITZAREN SAILAK

Adierazi dugunez, strategiaren diseinua Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko 6/2016 Legearen 17. artikuluan aurreikusitakoari egokitu zaio, eta diagnostiko kuantitatibo eta kualitatibo bat du euskarri, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria egitearekin batera egina, EHSSko sareek dinamizatutako tailerretan jasotako ekarpenak alde batetik eta zenbait tamainatako esku-hartzeko erakundeek jasotakoak bestetik abiapuntu hartuta analisi kualitatiboa eguneratuz (2015ean amaitu zen Liburu Zuria, 2014ko datuekin eta 2013ko datu ekonomikoekin).

Hala, hasieran planteatutako diseinua Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin eta EEZMrekin kontrastatu ondoren, abian jarri zen prozesua eta hiru fasetan garatu da.

1. fasea	2. fasea	3. fasea
<ul style="list-style-type: none"> • Dokumentazioa biltzea eta analizatzea, eta eranskinak egitea. • EHSSko sareen tailerraren 1. saioa. • Zenbait tamainatako EHSSko erakundeekin tailerrak. • Enplegu eta Gizarteko Politiketako Sailarekin saioak, maila politiko eta teknikoan. • Kataluniako Generalitatearekin elkarrizketa. • Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialako erakundeekin Taularekin elkarrizketa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Estrategiaren lehen zirriborroa – jardueren zerrenda egitea. • EHSSko sareen tailerraren 2. saioa. • Saioak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin. • Lan-prozesua Eusko Jaurlaritzako zenbait sail eta agentziarekin (ikusi xehetasunak aurrerago). • Bilera foru-aldundiekin eta Eudelekin. 	<ul style="list-style-type: none"> • Estrategiaren bigarren zirriborroa lantzea. • Zirriborroa kontrastatzea EEZMko kide diren EHSSko sareekin, foru-aldundiekin eta Eudelekin, eta Eusko Jaurlaritzarekin (bilerak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin, maila politiko eta teknikoan, eta zenbait jarduera dagozkien sailekin eta agentziekin kontrastatzea). • Zirriborroa EEZMn aurkeztea. • Ekarpenak integratzea, dokumentua aurkeztea eta ixtea, Gobernu Kontseilura igortzeko.

Lehen fasean dokumentazioa bildu zen, prozesuan zehar aberastuz joan da, eta, haren irakurketa eta analisia abiapuntu hartuta, zenbait eranskin egin ziren, eztabaida-taldeetarako eta barne-lanerako oinarri direnak:

1. eranskina. Estrategiak izan behar dituen ezaugarri orokorrak.
2. eranskina. Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala “sustatzeko” jarduera eta ekintza konkretuak, eta Legeak aurreikusten dituen erakundeek eta sareen konpromisoak eta betebeharrak.
3. eranskina. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuriaren laburpena.
3A eranskina. Diagnostikoaren laburpena.
3B eranskina. Diagnostikoa zabaltzea (estrategiaren eremuei dagokienez).
3C eranskina. Ikuspegia eta erronkak.
4A eranskina. EHSS sustatzearekin lotutako laguntza publikoak eta pribatuak, edo lot daitezkeenak.
4B eranskina. EHSSrekin lotutako estrategiak, planak eta programa publikoak, edo lot daitezkeenak.
5A eranskina. Esperientzia garrantzitsuak Estatuan: Katalunia
5B eranskina. Esperientzia garrantzitsuak Europan: Erresuma Batua.

A4 eranskina oinarri egokia da ondoren *Euskadiko hirugarren sektore soziala sustatzeko neurriei buruzko txostena* egiteko, Legearen 19. artikuluan aurreikusitakoa betez. Eta 4B eranskinak aukera eman du identifikatzeko aztertutako instituzioen zer plan dauden sektorearekin lotuta edo egon daitezkeen lotuta, EHSSSE diseinatzeke orduan eta sektore publikoaren eta EHSSren arteko lankidetzaren planifikatzeko edo bultzatzeko etorkizuneko prozesuetan kontuan izateko.⁹

Erakundeekin eta sareekin egin beharreko tailerrei dagokienez, zehazki, lehen fasean, esku hartzeko erakundeen saio bat dinamizatu zen, eta sareekin lehen saio bat, GGKEen Koordinakundearekin berariazko elkarrizketa bat eta UNICEFekin beste bat egiteaz gain (bi erakundeak EEZMko kideak dira eta ez daude sartuta Sareen Sarean, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko sareen sarean).

Gainera, bilera politikoak egin ziren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin, eta bilera tekniko bat ere bai, etorkizuneko estrategiaren edukiarekin lotutako funtzioak dituzten saileko teknikariekin, haren orientazioaren eta diseinuaren jakitun izateko.

Azkenik, lehen fase horretan, bi topaketa egin ziren Katalunian, Generalitateak eta Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen Taulak lankidetzan bultzatutako hirugarren sektore soziala sustatzeko hiru laguntza-planen bilakaera ezagutzeko asmoz: bat Taularekin eta bi Taularekin eta Generalitatearekin; zehazki, Presidentetza Sailarekin eta Sail arteko Koordinazio Orokorreko Zuzendaritzarekin, plana dinamizatzeke gobernuaren aldeko arduraduna den aldetik.

Bigarren fasean, adierazitako iturri guztiak abiapuntu hartuta, strategiaren lehen zirriborroa egin zen, zenbait oinarri, diagnostikoaren zirriborro bat eta jardueren lehen zerrenda bat barnean hartzen zituena.

Kontrastatzeko eta aberasteko asmoz, sareekin tailerren bigarren saio bat egin zen, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin zenbait bilera, eta elkarrizketa-txanda bat ondoren aipatuko den Eusko Jaurlaritzaren sail, agentzia eta sozietate bakoitzarekin, prozesua aurkezteke lehen topaketa orokor baten ondoren.

Halaber, hiru foru-aldundietako eta EUDELeke arduradunekin bilera bat egin zen, estrategia aurkezteke, eta, bereziki, foru-estrategiak eta tokikoak EHSSSEekin koordinatzeari buruzko ikuspegia aurkezteke,

⁹ 4. eranskina egiteko, ahalegin handia egin zen dokumentazioa biltzeko eta analizatzeko, alderdi hauei buruzko informazio sistematikoa eta nahikoa baina ez zehatza lortzeko asmoz: a) EHSS sustatzeko jarduerak; b) EHSSra bideratutako edo harekin lankidetzan aritzeko jarduerak berekin dituzten edo izan ditzaketen euskal administrazio publikoen planak, estrategiak edo lan-ildoak.

Zehazki, dokumentazio hau bildu eta analizatu zen horretarako:

- XI. Legealdiko gobernu-programa (Eusko Jaurlaritzaren).
- Gobernu-plan estrategikoak, sailen planak, sailen plan sektorialak eta Eusko Jaurlaritzako X. Legealdiko ekintza-planak (2012-2016), haien eta XI. Legealdian aurreikusitako enpresen erlazioa ezarri.
- Foru-aldundien plan estrategikoak eta haien sailen planak, kontsulta egiteko unean indarrean zeudenak.
- Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta hiru Herrialde Historikoetako hiriburuen diru-laguntzen plan estrategikoak, eta instituzio horiei atxikitako enpresa publikoen laguntzen eta diru-laguntzen programak.
- Eusko Jaurlaritzaren sailen eta enpresa publikoen, foru-aldundien eta hiru Lurralde Historikoetako hiriburuen laguntzei eta diru-laguntzei buruzko dekretuak eta aginduak.
- Euskal enprekin lotutako edo gure erkidegoan zabal finkatutako banku-fundazio, enpresa eta fundazioen planak edo estrategiak eta laguntzen deialdiak.
- HSSri laguntzeko Kataluniako Generalitatearen eta Taularen planak (3 legealdi).
- Hirugarren Sektorearekin lotutako 2010etik gaur egun arteko Erresuma Batuko eta Eskoziako gobernuen jardura-ildoak eta politika publikoak.

Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 18. artikuluan aurreikusitakoa betez (euskal administrazio publikoen maila guztiek partekatutako helburu orokorrak), bai eta foru-aldundiei eta tokiko erakundeei dagozkien jarduerak ere (EHSSSerenak berarenak ez diren jarduerak), 7. eta 18. artikuluetan aurreikusitakoa betez.

Hirugarren fasean, estrategiaren bigarren zirriborro bat egin zen, aurreko fasean jasotako ekarpenekin. Zirriborro hori osorik kontrastatu zen Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin, maila politikoko zenbait bilera eta maila teknikoko bilera bat eginez, eta partzialki kontrastatu zen beste sail batzuekin, haien eskumen-eremuarekin lotutako jarduerak kontrastatuz. Horrez gain, foru-aldundiekin eta EUDELekin kontrastatu zen, alde batetik, eta Euskadiko Elkarrizketa Zibilaren Mahaiko kide den EHSSren “sareekin”, bestetik. Eta, ekarpen horiekin, behin betiko zirriborroa egin, eta EEZMren osoko bilkuran aurkeztu zen eta Gobernu Kontseilura igorri zen, onartzeko.

Azkenik, prozesuan zehar, zenbait bilera egin dira EEZMren batzorde mistoarekin; batzorde hori EEZMren esparruan sortu zen eta Gizarte Politiketako sailburuordeak eta EHSSko sareak ordezkatzan dituzten bi pertsonak, mahaian daudenak, osatzen dute.

Partaide diren Eusko Jaurlaritzako sailak

Kontuan hartuta gizarte-arloko esku-hartzearen esparruaren definizioa (Legearen 4. artikulua) eta “estrategiak EHSS bultzatzeko ekintzak eta neurriak izango dituela eta Eusko Jaurlaritzak gauzatuko dituela, haren zenbait sailen bidez, *gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan nahiz jarduera ekonomikoa eta hura garatzen duten erakundeak sustatzearekin lotuta*” dioen 17.4 artikulua, estrategia egiten, zabaltzen eta ebaluatzen parte hartu beharko luketen sailak gizarte-zerbitzuetan, enpleguan, osasunean, hezkuntzan, etxebizitzan, justizian, kulturean eta garapenerako lankidetzan eskumenak dituztenak izango lirakeke, gutxienez, jarduera ekonomikoaren sustapen-gaieran eskuduna den sailarekin batera.

Beraz, Lehendakaritzaz gain (Koordinazio Zuzendaritza eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia) honako hauek parte hartu dute estrategia eratzen eta parte hartuko dute legegaldi honetan estrategia zabaltzen eta ebaluatzen: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Osasun Saila, Hezkuntza Saila, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Lan eta Justizia Saila, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila, bai eta SPRI – Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia ere.¹⁰ Horrez gain, estrategiaren sail arteko izaera dela eta, sartutako jardueretan eta gizartearen eta gobernantzaaren eredu jakin baten aldeko apustuan Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak ere hartu du eta hartuko du parte. Hori guztia, beste sail edo “agentzia” batzuk ere sar daitezkeela ahaztu gabe.

Azken batean, prozesua aberatsa eta zabala izan da, gai horretan gobernuaren ekintzaren zeharkakotasunean aurrera egiteko aukera eman du –estrategiaren helburu bat dena aldi berean–, eta hura aberasten lagundu du; beraz: a) 2017an amaitu da, uda pasatu ondoren; b) anbizio handiko esparru-estrategia bat zehaztu da, jardueren kopuru oso garrantzitsua duena, zenbait eragin eta lehentasunekoa, eta garatu ahal izateko, nahitaez, legegaldi bat baino gehiago behar duena.

2. DIAGNOSTIKOA. Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren egungo egoera eta estrategiak aurreikusten dituen eremuekin lotutako erronka nagusiak.

¹⁰ Estrategia egiteko prozesuan, Segurtasun Sailarekin ere egin zen bilera bat, baina, orain arte, ez da berariazko jarduerarik identifikatu, estrategian sartzeko.



2015ean amaitutako Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Liburu Zuriaren emaitzak kontuan hartuta¹¹:

- Sektorreari eta haren gizarte-ekarpenari buruzko datuak nagusiak, kuantitatiboak, sartu dira, bai eta eremukako diagnostiko kualitatiboaren laburpena ere.
- Eremu horietako bakoitzarekin identifikatutako erronkak adierazi dira.

2.1. DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA

Azterlanaren xedea

Legeak bigarren, hirugarren eta laugarren artikuluetan ematen duen definizioarekin koherente izanda, EHSS egoitza eta jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta duten *gizarte-arloko ekimeneko eta esku-hartzeko erakundeek* osatzen dute.

A) *Gizarte-ekimeneko erakundeak diren aldetik*, ekimen formalizatuak dira (formalki eratuak eta nortasun juridiko propioa dutenak):

- borondatezko jardunekoak (gizarte-oinarria erakundearekin lankidetzan borondatez aritzen diren pertsonak osatzen dutena, erabat edo partzialki);
- gizarte zibilekoa (gizarte zibilaren parte direnak eta handik eta harentzat sortzen direnak);
- pribatuak; hau da, kudeaketa autonomia dutenak eta beste sektore batzuekiko independenteak direnak (instituzionalki administratibotik bereizitakoak eta autogobernatuak);
- irabazi-asmorik gabekoa (ondasun ekonomikoaren banaketa xede ez dutenak; haien irudi juridikoak balizko edozein irabazi berri ere bertan inbertitzeko obligazioa dakar);
- eta parte-hartzaileak (erabakiak hartzeko parte hartzeko moduak egokituz, haren modu juridikorako aplikagarria den araudiak ezartzen duena betez);

B) *Gizarte-arloko esku-hartzeko erakundeak* diren aldetik, garatzen dituzten jardueren helburua gizarteratzea, garapenerako lankidetzat eta biztanleria osoaren eskubideen aitortza sustatzea da, bai eta zaugarritasun- edo bazterkeria egoeran, babesik gabe dauden, desgaitasunen bat edo/eta mendekotasunen bat duten pertsona, familia, talde, kolektibo edo komunitateek horren erabilera efektiboa egitea ere, gizarte-desberdintasunen, bazterkeriaren, babesik ezaren eta indarkeria matxistaren aurka borrokatuz, eta gizarte zuzen, solidario, berdintasuneko, parte-hartzaile eta demokratikoago batera bideratutako beharrezko gizarte-transformazioan aurrera eginez.

Bada, Liburu Zuriaren aztertzen dena bat dator erabat Legeak egiten duen EHSSko erakundearen definizioarekin, eta aztergai izango diren erakundeak honelakoak izango dira: gizarte zibileko ekimenak, formalizatuak, kudeaketa autonomokoak eta independenteak (pribatuak), irabazi-asmorik gabekoak eta borondatezkoak, egoitza eta jarduna Euskadin dutenak, eta helburu nagusitzat gizarteratzea sustatzea eta zaugarritasun- edo bazterkeria-egoeran, babesik gabe dauden, desgaitasunen bat edo/eta mendekotasunen bat duten pertsona, familia, kolektibo eta komunitateek horren erabilera efektiboa sustatzea. Horrez gain, Liburu Zuriaren xedeen artean garapenerako lankidetzat eta Legearen 4. artikuluan adierazitako eremuetako bakoitza ere badaude, bai eta artikulua horren hirugarren atalean zehaztutako jarduerak ere, arestian adierazi dugun moduan.

Aurreko ezaugarriak kontuan hartuta, hurrengo grafikoan EHSSko erakundearen nortasun-ezaugarriak ageri dira, haiek sortu dituen gizartearekiko lotura eta konpromisoa azpimarratuz, zerbitzatzen dutena

¹¹ Liburu Zuriak sektorearen analisi kualitatiboa egiten du, erakundeekin eta sareekin kontrastatuz, eta etorkizuneko erronkak identifikatzen ditu, 2014an lagin adierazgarri bat hartuta egindako inkesta baten bidez 2014an jasotako datuak abiapuntu hartuta egindako analisi kuantitatiboan oinarrituta; 2014ari dagokion jardueraren datuak eta 2013ko ekitaldia itxi ondorengo datu ekonomikoak biltzen ditu.

eta eraldatu nahi dutena, gizarte-justizia handiagorantz aurrera eginez, elkartasuna bultzatuz eta partaidetza, eskubideak, gizarteratzea eta gizarte-kohesioa sustatuz.



Iturria: Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria

Zifra nagusiak

Estimatu da EHSS 3.500 erakundek osatzen dutela (2.000 Bizkaian, 1.000 Gipuzkoan eta 500 Araban), haietan kontratu bidez ordainduta 36.000 pertsonak egiten dute lan (EAEko biztanleria landunaren % 4) eta 125.000 boluntariok (gutxi gorabehera, EAEko boluntarioen % 80).

Erakundeek 2013an kudeatutako bolumen ekonomikoa 1.451 milioi eurokoa izan zen (horietatik 1.051 Bizkaiari dagozkio), euskal BPGd-ren % 2,2.

3.500
organizaciones
1,6 org/ cada 1.000 hab.

¿Cuál es la contribución del sector en términos de creación de empleo?

¿Cuál es la contribución social del sector en términos de articulación de la participación social del voluntariado?

¿Cuál es la contribución económica del sector?

Personas remuneradas
36.000
4% de la población activa en la CAPV

Personas remuneradas	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	CAPV
Personas remuneradas	8.087	20.820	7.093	35.999
%	22,5	57,9	19,6	100

Personas voluntarias
125.000
Aprox. 30% del voluntariado de la CAPV*

Personas voluntarias	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	CAPV
Personas voluntarias	18.807	80.200	26.993	125.999
%	15,0	63,7	21,3	100

2,2% del PIBvasco

Indicador	2013	%	% PIB Euzkoak	% PIB Euzkoak
ARABA	128.228.000	10,9	1,00	0,16
BIZKAIA	1.051.820.000	72,10	8,18	1,19
GIPUZKOA	210.228.283,2	18,20	1,10	0,30
CAPV	1.400.276.283,2	100	1,10	2,20

*Incluyendo en Suro y otros sectores, por tanto, de datos de la muestra al universo.

Iturria: Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria

Oso sektore **heterogeneoa eta atomizatua** da. Lurraldean bereziki sustraitutako erakunde txiki ugari daude, gai direnak haren berariazko ezaugarriei erantzuteko, komunitatearen parte-hartzea aktibatzekeo...

Denetarik eremuetatik jarduten dute; adibidez, sozial-zeharkakotik edo herritarretik, garapenerako lankidetzatik, aisialditik, osasunetik, enplegutik... Lehen biak dira erakundeen kopuru handiena biltzen dutenak.

Erakundeen % 32ren aurrekontua 12.000 eurokoa edo txikiagoa da, eta % 46 soilik pertsona boluntarioz osatuta daude. Bietan, eremu **sozial-zeharkakoa** eta aisialdikoa nabarmentzen dira. Eta **Gipuzkoa**, boluntario ugari dituzten erakundeen ehuneko handiena duen herrialdea den aldetik.

% 42k 20 urtetik gorako **ibilbidea** du, eta % 13k duela 5 urte baino gutxiago ekin zion bide horri. Sektore bizia da, beraz.

10etik 8ren jarduera ez da EAetik kanpo zabaltzen. % 35ek lurralde historikoan egiten du lan, eta % 27 gehigarri batek, **eremu geografiko** txikiago batean. Oro har, tokiko izaera duten eta lurraldeari lotutako erakundeak dira.

Erakundeen % 95ek **zerbitzuren bat ematen du**, eta % 75ek **beste funtzio batzuk** egiten ditu gainera. Zerbitzuak hornitzera bideratutako erakundeen pisua handitu egin da sektorean, bai eta zerbitzuen horniduraren pisua ere, zenbait erakundetan.

Erakundeek 316 pertsonako **gizarte-oinarria** dute batez beste; hala ere, kasuen erdiak 100etik beherakoak dira. Hamarretik lauren gizarte-oinarria handitu egin zen inkestaren aurreko hiru urteetan, eta % 36renak berdin eutsi zion. Erakundeen % 87 **boluntarioz** osatuta daude gehienbat. 10etik 4k boluntarioen kopurua handitzea lortu zuten inkestaren aurreko hiru urteetan (krisialdian, beraz), eta % 9k soilik galdu ditu boluntarioak. % 54k ordainpeko langileak ditu, baina % 13an soilik dira gehiago ordainpeko langileak boluntarioak baino.

Sektorearen finantzaketaren % 54 jatorri pribatukoa da, eta finantzaketa propioa dutenak % 38ra iristen dira (donazioak, zerbitzuak ematea eta produktuak saltzea, erakunde pribatuen diru-laguntzak eta beste diru-laguntza pribatu batzuk kenduta). % 42k diru-sarrera pribatu handiagoak ditu publikoak baino, eta % 12k ez du diru-sarrera publikorik. % 13 diru-iturri bakar baten mende dago, eta % 21ek, bost edo gehiago ditu.

Erakundeen oraina **krisiak** markatzen du oraindik ere, eta etorkizuneko hautemateko moduan eragiten du. 2014an, soilik % 22k uste zuen hurrengo hiru urteetan errazagoa izango zela helburuak betetzea. Krisiarekin, gizarte-beharrak handitu egin ziren eta konplexuagoak bihurtu ziren. Erakundeen % 52tan erabiltzaileen kopurua handitu egin zen inkestaren aurreko hiru urteetan; erakundeen erdietan aldaketak hauteman zituzten beharrei zegokienez, eta % 40an, profilari zegokienez, eta horrek esku-hartzea egokitzea eskatzen zuen.

Gainera, erakundeen % 18k plantilla murriztu zuen, eta % 67k berregituraketa-motaren bati ekin behar izan zion (zereginetan, funtzioetan, lanpostuetan, lanaldietan, soldatan...). % 38an, bolumen ekonomikoa txikitu egin zen 2008z geroztik, eta soilik % 5ak eutsi zion bolumen ekonomikoari.

Krisiak batik bat diru-laguntzen mende irauten duten erakunde txikienei, garapenerako nazioarteko lankidetzako erakundeei eta erantzukizun publikokoak ez diren zerbitzuak ematen dituzten edo sektoreari berari zerbitzuak ematen dizkieten erakundeei eragin zien.

2.2. DIAGNOSTIKOA ZABALTZEA (estrategiaren eremuei dagokienez)

Estatistikoki adierazgarria den lagin batetik bildutako datuen analisiari eta sektoreko erakundeen beraien eta sareen egoera partekatua gainera hausnarketari esker, 10 erronka identifikatu ziren, eta horietako bakoitzak zerikusia du EHSSen **ikuspegi** baten parte diren gako batzuekin.

RETOS

	IDENTIDAD	<ul style="list-style-type: none"> RETO 0. Potenciar nuestras señas de identidad.
	ACTIVIDAD	<ul style="list-style-type: none"> RETO 1. Preservar la diversidad del sector. RETO 2. Impulsar el equilibrio de funciones y la orientación transformadora.
	PERSONAS	<ul style="list-style-type: none"> RETO 3. Incrementar la conexión con la ciudadanía y reforzar la base social. RETO 4. Reforzar el vínculo entre la organización y quienes la integran y mejorar las condiciones laborales.
	RECURSOS ECONÓMICOS	<ul style="list-style-type: none"> RETO 5. Avanzar en la sostenibilidad económica de las organizaciones.
	GESTIÓN	<ul style="list-style-type: none"> RETO 6. Fortalecer la dirección y gestión de las organizaciones, en coherencia con los valores y "entiempos de crisis".
	RELACIONES CON EL EXTERIOR	<ul style="list-style-type: none"> RETO 7. Garantizar la transparencia y rendición de cuentas y multiplicar los esfuerzos de comunicación. RETO 8. Mejorar y afianzar la relación con otros agentes.
	RELACIONES DE SECTOR	<ul style="list-style-type: none"> RETO 9. Impulsar la colaboración entre organizaciones de intervención directa. RETO 10. Avanzar en la estructuración del sector.

19

Iturria: Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria

VISIÓN

- 1 Un Tercer Sector Social diverso;
- 2 con capacidad de promover alternativas transformadoras;
- 3 con una base social amplia;
- 4 que mantiene un vínculo fuerte entre organizaciones y personas que las integran y que ofrece empleo de calidad;
- 5 sostenible y autónomo;
- 6 fortalecido y coherente;
- 7 transparente y reconocido;
- 8 relacionado y aliado con otros agentes,
- 9 que estrecha lazos internamente;
- 10 y está bien articulado.

Iturria: Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria

Ondorengo laburpen-koadroan, estrategiaren egiturako 9 eremuak eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zurian identifikatutako erronkak agertzen dira.

Gainera, ondoren, strategiaren eremuetako bakoitzarekin lotuta, Liburu Zurian jasotako EHSSren egoeraren diagnostikoko elementu nabarmenenen azalpena egiten da labor-labor.

2.2.1. ESTRATEGIAREN EREMUEN ETA SEKTOREAREN ERRONKEN ARTEKO LOTURA

EHSSL	ERRONKAK (EHSSOL)
1.GIZARTE-OINARRIA GARATZEA ETA ERAKUNDEETAN PARTE HARTZEA	2. Funtzioen oreka eta orientabide transformatzailea. 3. Herritarrekiko lotura handitzea eta gizarte-oinarria indartzea. 4a. Erakundearen eta haren kideen arteko lotura indartzea.
2.ERAKUNDEA ETA KUDEAKETA SENDOTZEA	6. Erakundeen zuzendaritza eta kudeaketa sendotzea, balioekin eta "krisi-garaiekin" koherente izanik. 7b. Komunikazio-ahaleginak biderkatzea.
3.EHSS-REN EGITURAKETA ETA ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA	1. Sektorearen aniztasunari eustea. 9. Esku-hartze zuzeneko erakundeen arteko lankidetzaren bultzatzea. 10. Sektorearen egituraketan aurrera egitea.
4.JASANGARRITASUNA, AUTONOMIA, GARDENTASUNA ETA KONTU-EMATEA	4b Lan-baldintzak hobetzea. 5. Erakundeen jasangarritasun ekonomikoan aurrera egitea. 7a. Gardentasuna eta kontu-ematea bermatzea.
5.INBERTSIOAK ETA AZPIEGITURAK	5. Erakundeen jasangarritasun ekonomikoan aurrera egitea.
6.SEKTORE PUBLIKOAREKIKO LANKIDETZA	8. Beste eragile batzuekiko harremana hobetzea eta finkatzea.
7.ENPRESEKIKO LANKIDETZA	8. Beste eragile batzuekiko harremana hobetzea eta finkatzea.
8.EHSS-REN SUSTAPENA, FISKALITATEA ETA ONARPENA	8. Beste eragile batzuekiko harremana hobetzea eta finkatzea.
9. NORTASUNA	0. Gure nortasun-ezaugarriak sustatzea. 1. Sektorearen aniztasunari eustea. 2. Funtzioen oreka eta orientabide transformatzailea.

Erronka batzuk eremu batekin baino gehiagorekin daude lotuta, taulan ikus daitekeen moduan.

2.2.2. DIAGNOSTIKOAREN EDUKIAK, ESTRATEGIAREN EREMUEI DAGOKIENEZ¹²

Atal honetan, estrategiaren eremu bakoitzeko, datuak eta bere garaian Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Liburu Zurirako egin zen analisi kualitatiboa jasotzen dira, bai eta, berariaz, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialerako erakundeekin eta sareekin egindako tailerretan edo eztabaida-taldeetan jasotako ekarpenak ere.

Tailer horietan, Liburu Zuriaren diagnostikoa hartu zen abiapuntutzat, parte hartu zuten erakundeek eta sareek ontzat eman eta eguneratu zutena, elementu berriak jarritz, eta zenbait alderdi zehaztuz eta azpimarratuz.

EHSSL	ERRONKAK (EHSSOL)
1. GIZARTE-OINARRIA GARATZEA ETA ERAKUNDEETAN PARTE HARTZEA	2. Funtzioen oreka eta orientabide transformatzailea. 3. Herritarrekiko lotura handitzea eta gizarte-oinarria indartzea. 4a. Erakundearen eta haren kideen arteko lotura indartzea.
<p>Gizarte-oinarria legitimitate-iturria da erakundeentzat, haien funtzio transformatzailea sustatzen du eta bere burua finantzatzeko eta ekonomikoki autonomia izateko aukera bat da. Boluntarioak ekarpen bereizgarria dira erakundeentzat eta haren balioekin, misioarekin eta nortasunarekin bat egiten du.</p> <p>Erakundeek 316 pertsonako gizarte-oinarria (bazkideak, boluntarioak, laguntzaileak...) dute batez beste; hala ere, kasuen erdiak 100etik beherakoak dira. <i>Gizarte Zerbitzuetaoak –bereziki, desgaitasunak dituzten pertsonekin lan egiten dutenak–, Lankidetzakoak eta Sozial-Zeharkako eremukoak –bereziki, pertsona eta familia hartzaileek osatuak– batez bestekoa baino gizarte-oinarri handiagoa dute.</i></p> <p>Hamarretik lautan, gizarte-oinarria handitu egin da azken 3 urteetan, % 36,5ean eutsi egin dio, eta hamarretik bik, gutxi gorabehera, galerak izan ditu.</p> <p>Erakundeen erdiak uste du gizarte-laguntza handitu egin dela azken urteetan, eta % 43ren ustez hurrengo hiru urtekoan beren gizarte-oinarria handitu egingo da. Batzuek laguntzak gehitzea lortu dute krisiaren ondorioz. Hala ere, kolektibo estigmatizatuenekin lan egiten dutenek gizarte-laguntza gehiagoren beharra sumatzen dute (lan egiten den kolektibo batzuen estigmaren aurka borroka egiteak kezka sortzen du).</p> <p>Horren haritik, erakundeek herritarrekin eta gainerako gizarte zibilarekin duten lotura ere kezagarria da, garrantzitsua delako bizirik eustea, eta arina eta bi norabidekoa izatea. Gaur egungo balioen krisiko une honetan, eta kontuan hartuta herritarren zati bat ez mobilizatzea eragiten duela, erakundeen lan pedagogikoak garrantzia hartzen du. Gainera, gaur egun, nolabaiteko defizita hautematen da EHSSko erakundeen eta gizarte zibil “ez-antolatuaeren” artean (sare informalak, gizarte-mugimenduak...).</p> <p>Bestalde, boluntarioei dagokienez, batez beste 33 boluntario daude erakundeko; hala ere, gehien errepikatzen den balioa 10 da. <i>Osasunaren, Gizarte Zerbitzuen eta Nazioarteko Lankidetzaren eremuetako erakundeak dira, oro har, boluntario gehien biltzen dituztenak.</i></p> <p>Boluntarioen % 26 23 urtetik beherakoa da, eta % 22, 65 urtetik gorakoa. Gehienak emakumeak dira (% 56). Ohikoena da boluntarioek astean 5 ordutik 10 ordura arteko denbora pasatzea lanean (% 31); dena den, % 18k noizean behin laguntzen du. Boluntarioen % 18,5ek 10 urte baino gehiago daramatza erakundean boluntario gisa, eta boluntario berriak (bi urte edo gutxiago daramatzatenak) % 23 dira.</p> <p>Ia 10 erakundetik 4tan lortu da boluntarioen kopurua handitzea azken hiru urtekoan, eta soilik % 9k galdu ditu boluntarioak. <i>Galera hori sumatu duten erakundeen ehunkoa handiagoa da Aisialdia eta Sozial-Zeharkakoa eremuetan.</i> Erakundeen erdiak baino pixka bat gehiagok uste dute boluntarioen kopuruari eutsi egingo zaiola hurrengo 3 urteetan, eta % 37k uste du kopuru hori handitzeko aukera egongo dela.</p> <p>Galerak esanguratsuak izan ez diren arren, aldaketak igarri dira boluntarioen parte-hartzean eta inplikazioan</p>	

¹² Diagnostikoko datuak eta hausnarketak sailkatzeko ariketa egin den arren, harreman handiena duten estrategiaren eremuekin lotzeko, kontuan hartu behar da datu batzuk erabilgarriak direla eremu bat baino gehiago testuinguruan kokatzeko, eta, horregatik, daitekeena da atal batean baino gehiagotan errepikatuta agertzea. Bestalde, letra etzanez idatzitako informazioa interes bereziko datuen banaketari dagokio.

(denbora erabilgarria, txandaketa, motibazioak, zeregin konkretuarekin identifikazio handiagoa izatea erakundearekin eta haren misioarekin baino...), eta, batzuetan, nolabaiteko zailtasunak, ekarpenak jaso, integratu eta bideratzeko.

Erakundeen % 43an ez zen kide berririk sartu gobernu-organoaren azken berritzean. Haietan sartu ziren lau pertsonatik bat bakarrik zen berria eta beste bati txanda hartu zion. Horren haritik, kezkarria da erakundeetan zuzendaritza- eta kudeaketa-erantzukizunak hartzen dituzten pertsonen higadura eta txandaketarako zailtasunak izaten dituzte.

Erakundeen % 54an boluntarioak eta soldatapeko langileak daude (gainerakoak boluntarioek soilik osatzen dituzte). Horri dagokionez, kezka sortzen du soldatapeko langileen eta boluntarioen arteko orekari eusteak, bi profilak dituzten erakundeetan, funtzioen orekari mesede egiten diolako.

Sektoreko soldatapeko langileen ezaugarria profil gaztea izatea bada ere (% 83k ez ditu 50 urte baino gehiago), zenbait belaunaldi, bide eta ibilbidetako pertsonak elkartzen dira erakundeetan. Antzintasunari dagokionez, % 32k 10 urte baino gehiago daramatza erakundeetan lanean, eta % 21 duela 2 urte edo gutxiago hasi da.

Sektoreak esperientzia handia du interes-taldeen parte-hartzearen kudeaketan. Hamar erakundetik bederatzik soldatapeko langileen parte-hartzea errazten du jardueren planifikazioan edo/eta ebaluazioan, eta hamarretik zazpi boluntarioen parte-hartzea artikulatzen du. Erabiltzaileen eta bazkideen kasuan, erakundeen % 58 eta % 51, hurrenez hurren.

Bestalde, erakundeen erdiak inguruk erabiltzaileen edo soldatapeko langileen asebetetze-maila ebaluatzeko sistemak dituzte. Dena den, hamar erakundetik ia zazpi ez dute neurtzen familien eta erakundearen gizarte-oinarriko beste talde batzuen asebetetze-maila; adibidez, bazkideena.

Batzuetan, kudeaketak eskatzen duen arintasunaren eta barneko parte-hartzeak eskatzen duen denboraren arteko orekari eustea zaila da, bai eta interes-taldeei egokitutako formulak aurkitzea ere. Horren haritik, kezka sortzen du gizarte-oinarriaren parte-hartzea bermatzeak (bereziki, bazkideena, erabiltzaileena, familiaena...), gizarte-oinarria zabala izateaz gain aktiboa ere izan dadin.

Gainera, erakundeen eta hura osatzen duten pertsonen arteko loturaren (lotura positiboa) indarrak eta zentzuak ere kezka sortzen du (batik bat, hazkunde azkarreko unetan eta krisi-unetan); lotura horrek, besteak beste, profil, ibilbide, belaunaldi eta rol desberdinak dituzten pertsonen erakunde ulertzeko eta bizitzeko moduak integratu behar ditu.

Horregatik, garrantzitsua da lotura positiboa indartzen duten alderdien multzoa zaintzea: gardentasuna eta kontu-ematea interes-taldeekin, koherentzia, parte-hartzea, eta abar.

Eztabaida-taldeetan, erakundeetako parte-hartzea sustatzeko beharra nabarmendu da, handienetakoa batik bat; hartara, erakundeen pisua ez da talde teknikoen esku geratuko. Oro har, parte-hartzearen defizitak erakundeetan tamainarekin eta beste zenbait alderdirekin (irudi juridikoa, balioak, eta abar) lotuta daudela uste da.

Lehenik eta behin, beharrezkotzat jotzen da gizarte-oinarriaren kontzeptuari buruzko hausnarketa bat egitea eta adostutako definizio bat lortzeko bidean aurrera egitea.

Erakundeen gizarte-oinarria handitzeko, beste zenbait alderdiren artean, boluntario helduak, boluntario korporatiboak eta abar bultzatu behar direla uste da.

Gainera, bazkideek eta boluntarioek erakundearen bizitzan parte hartzeko duten interesa nolabait txikitu egin denez, kuota ordaintzeaz, zerbitzuak erabiltzeaz edo esku hartzeko berariazko jardueretan parte hartzeaz harago, beharrezkotzat jo da parte hartzera eta beren parte-hartzea sustatzera prest dauden boluntarioak eta bazkideak identifikatzea.

Oso garrantzitsutzat jotzen da, halaber, erakundeen eta soldatapeko langileen arteko lotura zaintzea, erakundeetan erantzukizun publikoko zerbitzuen hornidura indartzen denean, erakundeak eta haien ekarpenak diluitzeko arriskua dagoelako, administrazioarekiko lankidetzan, eta erakundearen eta langileen arteko lotura ahultzeko arriskua dagoelako.

Eta gizartearen parte-hartzea sustatzeko, IKTen eta sare sozialen erabilera handitzeko behararekin lotutako zenbait sakonerratako alderdiak ere nabarmendu dira (erakundeetan eta haien bidez gizartearen parte hartzeko modu

berriak). Edo, espazio informalak berreskuratzeko beharrarekin lotuta, topaketa eta erlazio informalekoak, sektorearen nortasun-elementuak direnak, pertsonen eta erakundeen arteko lotura positibo bat sortzen laguntzen dutenak eta parte-hartzea errazteko jarduten dutenak.

Bestalde, gizarte-oinarriaren eta parte interesdunen edo kanpoko interes-taldearen erlazioaren kudeaketa-espereintziak sistematizatzea proposatzen da (informazioa, prestakuntza, barruko eta kanpoko denetariko interes-taldearen parte-hartzea dinamizatzea erakundearen, erakundearen lotura ingurunearekiko...), eta parte hartzeko kudeaketaren eredu ireki bat ezartzea (jardunbide onak...) existitzen diren espereintzien ezagutza eta kontrastea abiapuntu hartuta, eta beste alderdi batzuk sustatzearekin lotutako laguntza-sistema bat (informazioa, orientazioa, prestakuntza, laguntzak...), sektoreak parte-hartzea sustatzeko estrategia bat izan dezan.

Erakundearen hartzaileren parte-hartzea sustatzea, gizarte-oinarrikoak izan edo ez, funtsezko alderdia da erakundearen parte-hartze sozialaren artikulazioaren funtzioari dagokionez, eta oso presente izan behar da eredu horren eta estrategia horren definizioan. Gainera, herritarrekin, oro har, eta erakundearen sentsibilizazio-ekintzen hartzailerekin diren pertsona, familia, komunitateekin... nolabait elkarrizketa antolatzeke erronka planteatu behar da, eta herritarrek parte hartzeko espazioak sortu, asoziazionismotik edo borondatezko lan tradizioaletik harago.

Horren haritik, egokia iruditu da parte-hartzeari buruzko sektorearen hausnarketa bat sustatzea: existitzen diren ereduak eta haiek aplikatzeko moduari buruz, eta haien abantailak eta arriskuei buruz; sektoreko estandarrei eta parte hartzeko mailak buruz (maila baten eta estandar minimoen existentzia, irudi juridikoen arteko aldeak alde batera utzita); gizartearen parte-hartzea antolatzearen eta erakundearen beste funtzio batzuen arteko orekaren beharri eta hari eusteko moduari buruz; erakundeetan parte hartzea errazten edo zailtzen duten alderdiei buruz (erakundearen egituraren elementuen erlazioa eta pisua, interes-taldeena...) bai eta sareetakoa eta abar ere.

Gizartearen parte-hartzea antolatzea eta gizarte-oinarria zaintzea erakundearen funtsezko funtzioak dira, eta gizarte-kapitalaren eta legitimitatearen iturri dira erakundeentzat.

Eta, beraz, erakundeetan alderdi hori eta beste batzuk orekatzeko beharra planteatzen da, eta kudeaketa burokratiko batek parte-hartzea dinamizatzeak eta gizarte-oinarriarekiko erlazioak eskatzen duten freskotasuna blokeatzeko edo zailtzeko arriskua ekiditea.

Ildo horretan, erakunde txikietan, boluntarioen erakundeetan... kudeaketaren alderdi jakin batzuk erraztu/deskargatu ditzaketen ekintza posible batzuk planteatzen dira; esate baterako, boluntario korporatiboak sartzeko kudeaketako profiletan, eta kudeaketako metodo, tresna eta baliabide egokituak, hornitzaile komunen bilaketari... dagokienez sareei laguntzea.

Horrez gain, erakundearen eta ingurunearen arteko loturari buruzko berriazko hausnarketa bat egiteko beharra ere planteatzen da (zenbait alderdiren mende alda daitekeena; esate baterako, erakundearen tamainaren, ibilbidearen, jatorriaren eta gizarte-oinarriaren osaeraren mende), bai eta nola sustatu ere (jardunbide onak).

Erakunde txikiak eta ertainak dagokienez, eta sektorearen aniztasunari eusteko asmoz, erakunde horiek egokitutako indartze-programak sustatzeko beharra azpimarratzen da, eta esku-hartzeko erakundearen arteko lankidetzak horizontalak sustatzeko beharra, gai horri buruzko analisi bat eginez erakundeekin.

Gainera, Sareen Sareak ezagutza eta erakundearen arteko lankidetzak erraztu dezakeela planteatzen da, erakunde txikiak arreta berezia jarrita (ezagutza eta erakundearen arteko lankidetzak ere alderdi gakoak da sektorearen egituraketan).

2. ERAKUNDEA ETA KUDEAKETA SENDOTZEA

6. Erakundeen zuzendaritza eta kudeaketa sendotzea, balioekin eta “krisi-garaiekin” koherente izanik.
- 7b. Komunikazio-ahaleginak biderkatzea.

Kudeaketako sistemen eta tresnen garapena desberdina da sektorean; hain zuzen ere, erakundeak denetarioak dira eta berariazko kudeaketa-zailtasunak dituzte. Dena den, alor horretan beharrezkoa da aurrera egiten jarraitzea, eta sistemak eta tresnak sektorerara eta haren mota guztietako erakundeetara egokitzea.

Adierazi dugun moduan, erakundeen % 46k boluntarioekin soilik egiten du lan, eta % 87 boluntarioz osatuta daude, batik bat. *Boluntarioz soilik osatutako erakundeek presentzia handiagoa dute Aisialdia eta Sozial-Zeharkakoa eremuetan. Erakunde horietan pisu handiena duen lurraldea Gipuzkoa da, bai eta boluntarioak soldatapeko langileak adina edo gehiago diren erakundeetan ere.*

Bereziki beharrezkoa da erakunde txikien eta ertainen kudeaketaren trebakuntza indartzea. Besteak beste, IKTen erabilerarekin eta diru-laguntza publikoen kudeaketarekin lotuta erakunde horiek izaten dituzten eragozpenak nabarmentzen dira, erakunde guztiek, edozein tamainatakoak izanik ere, kudeaketan gero eta eskakizun gehiago dituztelako.

Erakunde askok –bereziki, boluntarioen erakundeek– txandaketarako arazoak izaten dituzte gobernu-organoetan (erakunde horietan, sarritan, gobernuko erantzukizunak hartzen dituzten pertsonak erakundearen kudeaketan ere jarduten dute). Erakundeen % 43an ez zen pertsona berririk sartu gobernu-organoaren azken berritzean.

% 54k soldatapeko langileak ditu (ehuneko hori handiagoa da Gizarte Zerbitzuen eta Enpleguaren eremuetan), baina soilik % 13an dira gehiago soldatapeko langileak boluntarioak baino. Erakunde mistoei buruz ari gara, neurri batean, boluntarioak eta soldatapeko langileak dituztenei buruz.

Soldatapeko langileak dituzten sektoreko erakundeen artean, dimentsio handiko erakundeak badauden arren, erakunde txiki eta ertainak dira gehienak. Soldatapeko langileak dituzten hamar erakundetik zazpi kontratupeko 10 pertsona edo gutxiago dituzte, eta hamarretik lau, gutxi gorabehera, 3 baino gutxiago. Beste muturrean, erakundeen % 10ean soldatapeko 50 pertsonak baino gehiagok egiten dute lan. *Gizarte Zerbitzuen eremua da soldatapeko langile gehien dituzten zenbait erakunde biltzen dituen (soldatapeko 33 langile, batez beste).*

Administrazioko eta kudeaketako lanetan aritzen diren langileak guztizkoaren % 13 dira. Eta % 1,5ek mantentze-lanak egiten ditu. Gainerakoek esku-hartze zuzeneko lanak egiten dituzte. Gastuari dagokionez, jarduerarako % 85 erabiltzen da batez beste, eta kudeaketako zeharkako gastuetarako, % 12, batez beste.

Soldatapeko langileen ikasketak maila altua da. % 66k goi-mailako ikasketak ditu. Dena den, kezagarria da erakunde handietako kudeaketako langileen espezializazio falta, fondoak eskuratzeari eta komunikazioari dagokionez (esperientzia, gaitasun, estrategia, tresna... falta).

Erakundeak “profesionalizatzen” joan diren heinean, kudeaketako praktiken eta estrategien formalizazioan aurrera egiteko aukera eman dieten kudeaketako sistemak eta tresnak garatzen joan dira. Erantzun gehiago eta hobeak ematen dira, sektorearen ekarpena nabarmentzeko lanean aurreratu egin da, kudeaketako kultura propioa dago, eta abar. Dena dela, kudeaketa-gaietan sektorearen egiten jakitea aitortzeak kezka sortzen du.

Hiru erakundetik batek Plan Estrategiko formalizatu bat du, eta beste batek horrekin lotuta dauden ekintzak egiten ari direla dio; % 65ek prestakuntzaren kudeaketa-ekimenak egiten ditu; % 38 kalitatea hobetzera bideratutako ekintzak garatzen ari da; % 35ek emaitzak ebaluatzeko sistema formalizatu bat du, eta % 67k emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako bideratutako ekintzak egiten ditu. Gainera, sektoreak esperientzia handia du interes-taldeen parte-hartzearen kudeaketan (hamar erakundetik bederatzik soldatapeko langileen parte-hartzea errazten du jardueren planifikazioan edo/eta ebaluazioan, eta hamarretik zazpi boluntarioen parte-hartzea artikulatzen du).

Konpondu gabeko arazo batzuk euskararen erabilera sustatzea eta ingurumenaren kudeaketa dira (% 40k euskararen sustapenarekin lotutako ekintzak egiten ditu, eta % 29k, ingurumenaren kudeaketakoak).

Modu berean, aipagarria da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotuta sektorean kudeaketa-ekimenak egin arren, gobernu-organoetan emakumeen ordezkariak ez dela koherentea emakumeek erakundeen pertsonen artean duten pisuarekiko.

Sektoreko erakundeetako gobernu-organoak osatzen dituzten pertsona guztien % 53 emakumea da (aurrekontu-

bolumen handiagoa erabiltzen duten erakundeen organoetan, emakumeen pisua txikiagoa da), eta soldatapeko langile guztien % 68 emakumea da; tasa hori oso goitik dago beste sektore batzuetan erregistratutakoekin alderatuta (emakumeak EAEko biztanleria landun osoaren % 47 dira, eta landunen % 58, zerbitzu-sektorean).

Sektoreko erakundeen % 65eko boluntarioen artean ere gehienak emakumeak dira; boluntario guztien % 56 emakumeak dira. *Boluntarioen kolektiboan, emakumeen batez besteko ehunekoa bereziki handiagoa da Gizarte Zerbitzuen (% 67,56) eta Sozial-Zeharkakoaren (% 64,41) eremuetan.*

Gai horrekin eta beste batzuekin lotuta, badago nolabaiteko kezka kudeaketako eta esku-hartzeko praktiken eta erakundearen nortasunaren eta balioen arteko koherentziari eusteari dagokionez, gizartean proposatzen dena barnean bizi dadin.

Kezka berezia sortzen dute berdintasunak (emakumeak erakundeen erantzukizun-espazioetan sartzea), euskarak, eta krisiak erakundeetan eta haien kudeaketan izandako eraginak. Eta, horri dagokionez, kezkarria da pertsonen politikaren eta erakundeen nortasun eta balioen arteko koherentzia, bai eta gardentasunari eta kontu-emateari eustea, eta erakundeko interes-taldekiko komunikazioa ere. Komunikazio eta kudeaketa egokiak pertsonen eta erakundearen arteko parte-hartzea eta lotura positiboari eusten eta mesede egiten diote, oro har; eta are gehiago krisialdi-egoera batean.

Gobernu-organo batzuen ahultasuna eta kudeaketa-taldeekin duten lotura ere kezkarria da. Hala, batzordeen % 9 urtean behin baino ez da biltzen, eta ia hamar asoziaziotik zortzik batzar orokor bat deitzen dute urtean behin, hori delako legeriak ezarritako gutxieneko periodikotasuna. Bestalde, gobernu-organoen eta kudeaketa-taldearen arteko distantzia ere kezkarria da; batik bat, erakunde handienetan.

Horrez gain, kanpo-komunikazioko ekintzen eragina handitzea beharrezkotzat jotzen da, balio estrategiko handia duelako. Zehazki, hauen falta sumatzen da: denboran luzaroago irauten duten komunikazio-ekintzak, arazoetan hainbeste zentratzen ez direnak eta izaera erreaktibo txikiagoak; aliantza gehiago gizarte-komunikazioko bitartekoekin; eta erakundeetan eta sareetan komunikaziora bideratutako baliabide gehiago. Hala ere, gai horretan, erakundeen indarguneak dira lurraldearekiko hurbiltasuna (komunikazio zuzena hobetu dezake tokian tokian...), errealtate "ezkutatu" ezagutza handia eta protagonistekiko hurbiltasuna.

IKTek gero eta presentzia handiagoa dute komunikabide gisa. Hala, erakundeen % 90ek posta elektronikoa sarritan edo oso sarritan erabiltzen du interes-taldeekin komunikatzeko, % 69k bere web-orria du, eta % 54k dezentetan erabiltzen ditu sare sozialak. Hala ere, % 31k ez du webgunerik edo ez du erabiltzen. *IKTak, eta, zehazki, IKTak erabiltzen azkena hasi direnak Sozial-Zeharkakoa eremuko erakundeak dira.* Bestalde, oro har, irrati, prentsa eta telebista bidezko komunikazioa oso mugatua da (erakunde guztien % 16, % 18 eta % 7, hurrenez hurren).

Hamar erakundetik zazpi sentsibilizazio-kanpainaren batean, baliabideak eskuratzen edo antzeko ekimenen batean parte hartu dute. *Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren eremuko erakundeak nabarmentzen dira, batez bestekoaren ginetik.* Hirugarren Sektorea terminoak oihartzuna izan arren, sektoreko erakundeen % 36ren ustez, euskal gizarteak oraindik ez du behar adina aitortzen haien lana herritar guztientzako onuragarria dela. Badira erakunde gutxi batzuen jardunbide txarren eragin negatiboarekin lotutako zenbait aurreiritzi, interes orokorrera bideratuta dagoenari eta baliabide publikoak egoki erabiltzen direnari buruzko zenbait zalantza, eta gizartean jarduera (gizarte-arloko esku-hartzea) gastu publiko gisa ulertzen da inbertsio gisa ulertu beharrean.

Horren haritik, uste da garrantzitsua dela ahaleginak egitea hobeto ateratako sektorearen argazkia eskaintzeko eta gizarte-irudia hobetzeko; sinesgarritasuna eta konfiantza hobetzeko; loturak eta laguntzak handitzeko; inpaktu, eragin eta intzidentzia handiagoa lortzeko. Eta erakundeen jardueraren inpaktuari buruzko emaitzak eta informazioa itzultzeko denbora gehiago eman behar da.

Eztabaida-taldeetan, EHSSko erakundeei erakundeak sendotzeko, kudeaketaren berrikuntzako eta hobekuntzako, ekintzailetzako... programetan sartzeko beharra azpimarratzen da, hausnarketa bat eta planteamendu bat (direla EHSSko erakundeei laguntzeko berariazko sistemak, direla haien ezaugarriei egokitutako sistema orokorrak) oinarri hartuta, erakundearen sarbidea ez dadin egon arduradun politikoen edo/eta unean uneko teknikarien ikuspegiaren edo borondate onaren mende.

Horretarako, badirudi beharrezkoa dela sektoreak, administrazio publikoek eta EHSSko erakundearen sarbidea indartzeko programak dituzten beste erakunde publiko eta pribatu batzuek partekatutako hausnarketa bat eta planteamendu estrategiko bat egitea, eta sektoreari eta lankidetzari publiko-sozialari egokitutako ikuspegiak sartzea. Horri dagokionez, kudeaketako ikuspegiak eta tresnak eta existitzen diren laguntza-sistemak sektorearen berariazko ezaugarrietara egokitzeko beharra jaso da, lehendik ere jasota zegoena. Adibidez, hori ari da egiten Euskaliti, EHSSko

zenbait erakunderekin lankidetzan adierazleen multzoak garatzen ari da.

Edo, zerbitzuen hornikuntza mistora egokitu, sistema publiko bat (esate baterako, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema) sistema misto bihurtzen denean, kudeaketa publiko zuzena eta gizarte-arloko esku-hartzearekiko lankidetzako kudeaketa nagusi izanik.

Zentzu horretan, sektoretik lankidetzan aritzeko beharra ere adierazi da, jadanik existitzen diren programetan EHSSko erakundeen sarbidea errazteko; esate baterako, sektorean aholkulari, hezitzaile, coach, ebaluatzaile... gisa esperientzia duten pertsonak identifikatuz eta trebatuz, hori aurreikusten duten programen baitan, bai eta sektoreko erakundeak ere, pertsonak trebatu ahal izateko.

Bestalde, erakundeek laguntza-egitura bat sortzeko beharra ere planteatzen dute, existitzen diren finantzaketak eta beste baliabide batzuk (prestakuntza, azpiegiturak...) lortzeko informazioa, orientazioa eta laguntza izateko, eta, hartara, haiek eskuratzeko izaten dituzten zailtasunak gainditu ahal izateko; bereziki, ATEen kasuan, haien tamaina eta kudeaketa-taldeen ezaugarriengatik, behar duten laguntza jaso dezaten eta ekimenak eta proiektuak garatzeko, erakundeen arteko elkarlana bultzatzeko.

Gizarte-oinarria sustatzen, fondoak eskuratzen edo beste hainbat eta hainbat eremutako boluntarioen eta soldatapeko langileen trebakuntza hobetzeko plan bat diseinatzea ere beharrezkotzat jotzen da. Horren diseinuan, EHSSko erakundeez eta sareez gain, administrazio publikoek, gizarte-ekintzek, unibertsitateek eta abarrek har lezakete parte ("planaren diseinurako errealitatearen ezagutzaren espazioak sustatuz, eragile guztien arteko elkartrukea eginez, eta betiere ikuspegi etiko batekin").

Gainera, nolabaiteko defizita identifikatu da gobernu-organoen kudeaketan eta kudeaketa-taldeetan, eta zuzendaritza-taldeei prestakuntza eta laguntza emateko ekimen bat diseinatzeko eta exekutatze beharra ere adierazi da, sektorearen profilei egokitua eta erakunde txikietan bereziki eragingo duena.

Boluntarioei dagokienez, haien prestakuntza sustatzeaz gain, haien ekarpena aitortzeko beharra planteatzen da ("ekarpen ez-tekniko eta profil baxukotzat ulertzen da, eta ez da hala"), eta administrazioetik laguntzea erakundeetako boluntarioen kudeaketa-gaitasunak indartzea eta laguntzailearen eta boluntarioen arduradunaren irudiak indartzea, boluntarioen arretaren kalitatea bermatzen dutelako eta esku-hartzearen kalitatea indartzen dutelako.

Komunikazioaren kudeaketari dagokionez, epe ertainean (lau urte) komunikazio-plan bat diseinatu, exekutatu eta ebaluatze beharra adierazi da, gizarte-eragineko ekintzak hartuko dituen (urteroko kanpaina, EHSSren eguna, akordioak komunikabideekin...), sektorea eta haren ekarpena erakusteko (erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzaren balio osoa eta balio erantsia).

Bestalde, bozeramailetzak sustatzea planteatzen dute, funtzio horretarako pertsonak aukeratuz eta trebatuz, komunikazio-ekintzetan pertsona eta familia erabiltzaileak ere sartuz, desgaitasunak dituzten pertsonen erakundeetan lantzen ari diren auto-ordezkaritzako ereduak bat eginez.

Informazioaren kudeaketarekin lotuta, esku-hartzeko erakundeek dituzten datuak partekatzea aukera eta ekarpen egokia litzatekeela adierazten dute, errealitatearen analisiak egiteko edo egiten diren analisi gehitzeko. Uste dute datu horiek badutela balioa eta behar bezala ustiatu behar direla, errealitatearen analisirako tresna bat den aldetik.

Emakumeen erakundeetako gobernu-organoetan eta kudeaketa-taldeetan parte hartzeari buruz (emakumeen ehuneko eta beren gain hartzen dituzten rolak), erakundeek uste dute sektore gisa gai horretan proaktiboak izan behar dutela, eta hori sustatzeko beharra dagoela, eta, horretarako, erakundeek sinatzeko moduko eskutitz bat edo atxikipen-konpromiso bat (sareek, agian) sustatu daitekeela.

Koherentziarekin lotutako beste alderdi batzuei buruz ere antzeko zerbait planteatu daiteke; hala ere, sare batzuek badituzte kode etikoak edo antzeko tresnak, eta haietan sar daiteke alderdi hori, jadanik sartuta ez badute.

**3. EHSS-REN EGITURAKETA ETA
ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA**

1. Sektorearen aniztasunari eustea.
9. Esku-hartze zuzeneko erakundeen arteko lankidetzaren bultzatzea.
10. Sektorearen egituraketan aurrera egitea.

Erakundeak bat datoz gizarte zuzen, kohesionatu, inklusibo eta parte-hartzaileago baten proposamenean eta eskubideen zaintzan eta sustapenean. Garrantzitsua da esku-hartze mailan eta kudeaketan lankidetzaren horizontalitate sustatzea, haien arteko aliantzek indar handiagoa ematen baitiete (oro har eta krisiaren aurrean), integralitate handiagoa esku-hartzean, eta inpaktu eta intzidentzia handiagoa politikan eta gizartearen. Atomizazioak alderdi hori indartzea justifikatu behar du.

Erakundeen oraina krisiak markatzen du, eta etorkizuneko hautemateko moduan eragiten du. Soilik % 22k uste du hurrengo 5 urteetan errazagoa izango dela helburuak betetzea. Krisi-testuinguru horretan, gizarte-beharrak handitu egin dira eta konplexuagoak bihurtu dira. Erakundeen % 52tan erabiltzaileen kopurua handitu egin da azken 3 urteetan, erdietan aldaketak hauteman dituzte beharrei dagokienez, eta % 40an, profilari dagokionez (bereziki, bazterkeria-egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonekin lan egiten dutenetan). Dena dela, krisiak ez du eragin bera izan erakunde guztietan. Enpresa txikienei eta sozial-zeharkako eremukoei eragin die gehien krisiak. Erakunde horiek desagertzeko arriskuak sortzen du kezka, haien ekarpen espezifikoak eta sektorearen aniztasuna eta aberastasuna gordetzeko beharrezkoak dira eta.

Erakundeen % 67k sektoreko beste erakundeekin harremanak izaten ditu edo lankidetzan jarduten dute, eta berdin sarean % 55ek. Hala ere, heren bat inguruk erlazio urria du gainerako erakundeekin. Harremanek informazioa trukatzeko, elkarri aholkuak ematea eta sentsibilizazio-kanpainak elkarrekin egitea eskatzen dute. % 66k dio beste erakunde batzuen laguntza jasotzen duela, eta % 60k, sareana.

Enplegu eta Gizarte Zerbitzuetako erakundeek eta Bizkaikoek lankidetzaren tasa altuagoak dituzte (gainerako lurraldeetan, erakundeek gutxiago ezagutzen dute elkar, baterako hausnarketa-espazioak partekatzeak aukera gutxiago izan dituzte...). Ohikoagoa da, halaber, beste batzuekin lankidetzan jardutea zenbat eta handiagoa den erakunde (bolumen ekonomikoa eta soldatapeko langileak).

Bereziki beharrezkoa da erakundeek elkar ezagutzea eta sektoreko beste eremu batzuetako erakundeekin harremanak sendotzea; batik bat, Araban eta Gipuzkoan, Osasunaren eremuan, Sozial-Zeharkako eremuan eta Lankidetzarenean.

Sektorearen egituraketari esker, aurrera egiten ari da eta aurrera egiteko aukera dago erronka komunean: sektorearen eta erakundeen berariazko ekarpena onartzea eta sustatzea; salaketako, sustapeneko eta eskubideen defentsako ekintzen inpaktua; lan-baldintzen hobekuntza, eta abar. Gaur egun, 10 erakundetik 6 gutxienez sare batekoa da (gehienak bat baino gehiagokoak). Beste erakunde batzuekin harremanetan egoteko, intzidentzia handitzeko, sentsibilizazio-ekintzak sustatzeko eta beste eragile batzuekin elkarrekin jarduteko gaitasuna handitzeko biltzen dira, batik bat. *Zenbat eta handiagoa izan bolumen ekonomikoa orduan eta ohikoagoa da biltzea, eta ez da hain ohikoa Araban.*

EHSS gero eta antolatua dago eta sare ugari eratu dira. 79 sare identifikatu dira. Sareek 22 erakunde biltzen dituzte, batez beste.

Erakundeek argi ikusten duten beren intzidentzia, soziala eta politikoa, aliantzen bitartez handitzeko beharra. % 90ek uste du "Euskadiko HSSak jarrera tinko eta kolektiboa agertu behar duela gaur egungo egoera ekonomikoaren aurrean, eta intzidentzia politiko hobe izateko aukera emango duen diskurtso kolektibo bat bilatu behar dela". % 86ren ustez, EHSSk lidergoa bere gain hartu behar du gizarte-eredu berriak sortzeari eta politika publiko berriak sortzeari dagokionez.

Sektorearen egituraketa-prozesua behar bezala zaindu behar dela uste da, prozesu horrek sektorearen aniztasunari erantzun diezaion, zenbait errealtate, ikuspegi, behar eta sentsibilitate integratzeko gai izanik, eta egoera ahulagoan dauden erakunde mota batzuk antolaketaren dinamikatik kanpo ez geratzeko. Kezka sortzen du erakunde guztiak, aniztasunaren baitan, sektore beraren parte direla onartzeko gai diren (sektorekoak izatearen kontzientzia hartzea) eta helburu komunak identifikatzeko gai diren.

Bestetik, sareek nolabaiteko zailtasunak izaten dituzte finantzaketa egonkorra lortzeko, eta barneko parte-hartzea eta kanpoko komunikazio arin eta eraginkorra izateko behar dituzten dinamika, egitura eta baliabideak izan ditzatela ere kezka-iturri da. Eztabaidei buruzko edo sektorean partekatutako diskurtso baten parte diren mezu nagusiei buruzko komunikazio-ekintzak areagotzen lagunduko du horrek.

Eztabaida-taldeetan, nabarmendu da krisialdian murrizketak gehien jasan dituzten erakundeak (erakunde txikiak, sozial-zeharkako eremukoak eta garapenerako lankidetzakoak) positiboki diskriminatu beharko lirakeela sustapen-ekintzetan (batik bat, diru-laguntzei dagokienez) aldi baterako. Sektoreak berak erakunde txikiak babestea –batik bat, izaera zibikokoak– eta nazioarteko garapenerako erakundeak babestea elkartasunaren ondorio da, eta sektorearen egituraketa-prozesuarekin eta euskal gizarterako nahiz eskala orokorrerako nahi den gizarte-eta garapen-ereduarekin bat egiten du.

Sektoreari ahalduzko, esangarrtasun edo garrantzia sozialean aurrera egiteko eta eskubideak sustatze aldera beste eragile batzuekin elkarrizketan jarduteko gaitasuna handitzeko aukera eman dion tresna gisa ulertzen dituzte sareak erakundeek. Eta hau planteatzen dute: “sarean lan egiteak eta sektorearen egituraketak mesede egin badigute, nola sendotu ditzakegu sareak erakundeek?”.

Horren haritik, uste dute erakundeek gehiago inplikatu behar dutela sareetan, kontuan hartuta kide diren sareetan parte hartzea beren misioaren parte bat dela (esate baterako, intzidentzia-funtzioekin lotuta...), planifikatuz (gai hori erakundearen planetan sartuz), barneko lana eta baliabideak jarritz, eta barne-kanpainak eginez, alderdi hori indartzeko.

Aldi berean, uste dute erakundeak ez direla oso “kooperatibistak” eta orain arte baino lankidetzari gehiago behar dela sektorean (esate baterako, administrazio publikoekin elkarrizketa bati ekiteko, zorroak, erantzukizun publikoko zerbitzu-erako sarbideei buruzko eskakizunak... zehazteari eta zabaltzeari dagokionez, edo sektore gisa erantzuteko krisi-garaiko diru-laguntzen murrizketari); izan ere, lankidetzari ezak sektorea ahultzen du.

Bestetik, uste dute sareek barne-komunikazioa hobetzeko beharra dutela, parte hartzeko funtsezko faktore bat den aldetik, eta sareek beraiek hausnarketa egin behar dutela beste behar dituzten funtzioei buruz. Horren haritik, aldeak daude sareen artean, eta jardunbide onak eta txarrak trukatu eta identifikatu daitezke. Eta hausnarketa sektorearen egituraketan aurrera egiteko ere mesedegarria izan daiteke, mota askotako sareak daudelako (zerbitzuak ematen dituzten sareak) eta gainjartzeak gerta daitezkeelako sareek egiten dituzten funtzioen eta ekimenen artean, bai eta sareen eta esku-hartzeko erakundeen artean ere.

Gainera, espazioak sortzeko beharra sumatu da, kolektiboekin lan egiten duten erakundeek estrategiak, informazioa, egiten jakitea, hausnarketak eta abar partekatzeak aukera izan dezaten. Eta erakundeen eta beste erakunde, instituzio, eragile, sektore eta abarren arteko harremanak sustatzeko, komunitatearen testuinguruan (gizarte-oinarriaren eta beste parte interesdun batzuen kudeaketa, lurraldeko enpresa txiki eta ertainekiko lankidetzak...). Diotenez, ohiko lankidetzak izaten dute (proiektuei dagokienez, kasuak koordinatzeko...), parte diren sareetako beste erakundeekin izaten duten harremana baino handiagoa dena, eta arretako eredu komunitarioa zabaltzeko ikuspuntutik oso garrantzitsua dena (arretaren integralizazioa eta pertsonalizazioa, prebentziozko ikuspegia...).

Azkenik, izaera “metodologikoa” duten beste alderdi batzuk ere nabarmendu dira; esate baterako, sektoreko egitura birpentsatzeko beharra (“batzuetan administrazio publikoek dituzten egituren antzekoak garatzen ditugu”) eta lan-sistemetan malgutasuna, arintasuna eta abar irabaztea.

Eta batzordeak edo lantaldeak osatzeko irizpideetan (sareen barruan eta sektore publikoarekiko lankidetzako espazioetan...) gaian ezagutzak edo/eta esperientzia duten pertsonen parte-hartzea sartzea, interes hutsa edo eskuragarri duten denbora baino harago, lana eraginkorra izan dadin eta emaitzak erakundeetara eta instituzioetara igor daitezela (“persona batzuk paraxutistak izango balira bezala sartzen dira batzordeetan”).

4. JASANGARRITASUNA, AUTONOMIA, GARDENTASUNA ETA KONTU-EMATEA

4b Lan-baldintzak hobetzea.

5. Erakundeen jasangarritasun ekonomikoan aurrera egitea.

7a. Gardentasuna eta kontu-ematea bermatzea.

EHSSn, oso baliabide murrizak dituzten erakundeak eta aurrekontu aberatsak dituzten erakundeak daude (aniztasuna). % 9K milioi eta erditik gorako urteko aurrekontua dute, eta % 32k urtean 12.000 euro edo gutxiago kudeatzen ditu. *Bolumenak handiagoa izateko joera du Gizarte Zerbitzu, Enplegu eta Lankidetzako eremuetan, antzinatean handieneko erakundeetan eta Bizkaian (Bizkaian, erakundeen % 25ek 300.000 euro baino gehiago ditu; Araban, % 17k, eta Gipuzkoa, % 15ek). Bolumen ekonomiko txikiena dutenak Sozial-Zeharkako eremukoak dira.*

Bolumen ekonomiko handiena dutenetan, erantzukizun publikoko katalogoen parte diren zerbitzuen horniduran lankidetzan aritzen diren erakundeen ehuneko handiagoa da, eta bolumen ekonomiko txikiagoko erakundeetan, batik bat zerbitzu propioak ematen dituzten eta beste gizarte-funtzio batzuekin lotutako jardueretan aritzen diren erakundeen ehuneko handiagoa da.

Sektorearen finantzaketa globalaren % 45 jatorri pribatukoa da (finantzaketa pribatuaren barruan finantzaketa propioa sartzen da), eta gainerako % 55a, jatorri publikokoa. Finantzaketa propioa dutenak % 38ra iristen dira (donazioak, zerbitzuak ematea eta produktuak saltzea, erakunde pribatuen diru-laguntzak eta beste diru-laguntza pribatu batzuk kontatu gabe).

% 42K diru-sarrera pribatu handiagoak dituzte publikoak baino, eta % 12k ez du inolako diru-sarrera publikorik; dena den, % 10ek jarduera guztia diru-sarrera publikoarekin finantzatzen du.

Finantzaketa pribatuak presentzia berezia du baliabide ekonomiko gutxien duten erakundeetan, boluntarioak soilik dituztenetan eta Lankidetzako erakundeetan. Finantzaketaren zati handiena publikoa duten erakundeen ehuneko handiena Arabari dagokio (% 63); ondoren, Gipuzkoari (% 59), eta, azkenik, Bizkaiari (% 56).

Finantzaketa publikoa foru-aldundietatik iristen da batik bat (% 38); ondoren, udaletatik (% 37), eta, azkenik, Eusko Jaurlaritzatik (% 20,5). Erakundeen % 5ek soilik lortzen du Europaren finantzaketa, eta hori sektorearen finantzaketa osoaren % 0,5 da.

Iturri pribatu nagusia bazkideen ohiko donazioak dira (sektorearen diru-sarrera osoaren % 22 dira eta finantzaketa-iturri horren pisu handiagoa da boluntarioen erakundeen artean). Hauek dira finantzaketa publikoaren iturri nagusiak: diru-laguntzak (sektorearen diru-laguntza guztien % 37 dira eta erakundeen % 78k bere jardueraren zati bat bederen haiei esker ordaintzen du) eta itunak (erakundeen % 24k egiten ditu; batik bat, erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran lankidetzan jarduten dutenek).

Erakundeek bolumen ekonomiko handiagoa kudeatzen duten heinean, ohiko donazioek eta diru-laguntza publikoek pisu txikiagoa izaten dute eta zerbitzuen prestazioa, kontratuak eta itun publikoak indartu egiten dira. Iturrien aniztasuna ere ohikoa izaten da.

Finantzaketa publikoa nolabait txikitzeko eta finantzaketa pribatuari nolabait eusteko joera orokorra hautematen da. Azken hiru urteetan (2011-2012-2013) joera hori areagotu egin da: % 53ren finantzaketa publikoa txikitu egin da eta soilik % 19k lortu du finantzaketa publikoa handitzea; erakundeen % 41ek finantzaketa pribatuari eutsi dio, eta erakundeen % 37an, berriz, txikitu egin da; % 27an, donazio-emaile ohikoen kopurua handitu egin da, eta % 36an, kopuruari eutsi egin zaio.

2008z geroztik, erakundeen % 5ek bolumen ekonomikoari eusten dio, % 57k handitu egin du (erdiak ez dira % 39tik gora handitu) eta % 38an txikitu egin da (batez besteko diru-sarrerak % 28,45 txikitu dira). *Batik bat, 12.000 euro baino gutxiago kudeatzen dituzten erakundeen (% 48) eta Osasun (% 46), Lankidetzak (% 43) eta Sozial-Zeharkako eremuko erakundeen (% 43) bolumen ekonomiko txikitu da. Bolumen ekonomiko handieneko erakundeetan, nolabaiteko dualtasuna hauteman da: % 40 handitu egin da (agian, aurrez gehien handitu zirenak), eta % 60, txikitu.*

Krisiaren inpaktua ez da berdina izan erakunde guztietan. Azken urteetan, erantzukizun publikoko katalogoetako eta zorroetako zerbitzuen finantzaketa publikoa finkatuz joan da pixkanaka, itunen eta kontratuen bidez.

Zerbitzu horien hornidurak pisu garrantzitsua duen erakundeetan, egoera ez da hain konplexua, eta, beraz, erakunde horiek ez dute aldaketa nabarmenik izan soldatetan (baina bai beste alderdi batzuetan), ez eta arreta-ratioetan ere (zenbait eremutan izan ezik; adibidez, bazterkeriaren eremuan).

Bestetik, zerbitzu propioak finantzatzea oso zaila ari da izaten, eta, oro har, erantzukizun publikokoak ez diren zerbitzuen hornidurarekin lotuta ez dauden funtzioak finantzatzea (krisiaren ondorioz, finantzaketa publikoa murriztu egin da, bai eta beste zerbitzu batzuen erantzukizun publikoa handitu izanaren ondorioz ere), eta, beraz, jarduera-foku hori duten erakundeei gehiago eragin dien krisiak eta haien egoera konplexuagoa da.

Gainera, erakunde askok, krisia baino lehenagotik, oztupoak izan dituzte diru-laguntza publikoak eskuratzeko orduan (jarduerak sartzea zailtzen duten deialdien zurruntasuna, inprimakien luzera, aniztasuna eta konplexutasuna...), laguntzen ebazpenen atzerapenen ondorioz eta ordainketen kasuan. *Arazo horiek erakunde txikiei, Sozial-Zeharkako eta Lankidetzako eremuei eta sistema publikoetatik kanpo geratzen diren pertsonekin lotutako jarduerari (bazterkeria) eragiten diete bereziki.*

Erantzukizun publikoko zerbitzuen hornidura finantzatzeari dagokionez, finantzaketa publikoa administrazioen erantzukizunaren garapenera egokitu behar dela nabarmendu da, erantzukizun publikoko zorroan finkatutako bere eskumeneko zerbitzuei dagokionez (zerbitzu guztien kostuaren % 100 betetzea). Gainera, beharrezkotzat jotzen da gaur egun erantzukizun publikoko zorroan sartuta ez dauden zerbitzu batzuen egoera edo/eta finantzaketa % 100 bermatua ez dutenen zerbitzuen (aisialdia, zerbitzu sozio-sanitarioak, bazterkeriaren eremuko zenbait zerbitzu) egoera argitzea.

Finantzaketa-iturrien aniztasunari dagokionez, sektoreko erakundeen % 13 diru-iturri bakar baten mende dago, eta % 21ek, berriz, bost diru-iturri edo gehiago ditu. Eta, erantzukizun publikoko katalogoetatik eta zorroetatik kanpo geratzen diren jarduerari eutsi ezinaren arriskuaren aurrean, nolabaiteko autonomiari eutsi behar zaiola eta finantzaketa-iturriak dibertsifikatu egin behar direla ere nabarmendu da.

Enpleguari dagokionez, aldi baterako kontratuak guztizkoaren % 20 dira (2014an, EAEko batez bestekoa % 18,6 izan zen); lanaldi partzialeko kontratuak guztizkoaren % 24 dira (2014an, EAEko batez bestekoa % 16,7 izan zen), eta ohikoagoak izaten dira emakumeen artean. Sektorean nagusi den lan-hitzarmena gizarte-arloko esku-hartzeko hitzarmena da, eta hari atxikita daude hamar erakundetik lau.

Hamar erakundetik seik aldaketarik gabe eutsi diote soldatapeko langileen kopuruari azken hiru urteetan, eta % 24k enplegua sortzea lortu du; baina, % 18an, plantilla murriztu egin da. *Gizarte Zerbitzuen eremua da erakundeen ehuneko handienak enplegua sortu duen eremua (mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta ematera bideratutakoak nabarmetzen dira). Hala ere, eremu horretako erakundeen % 22k plantilla murriztu du, eta bolumen ekonomiko handieneko erakundeetan, enplegua sortzeko eta enplegu-galeraren tasak batez bestekoaren gainetik daude.*

Gainera, soldatapeko langileak dituzten erakundeen % 67k motaren bateko berregituraketa bati ekin behar izan dio azken urteetan (zereginak, funtzioak, lanpostuak, lanaldiak, soldata...). Hain zuzen ere, erakunde horien % 42an soldatak doitu dituzte; % 38an, lanaldia; % 22an, kaleratzeak egin dituzte; % 40an lanpostuak berregituratu dituzte, eta % 51n, zereginak eta funtzioak. Horrez gain, % 15ean borondatezko bajak eta eszedentziak erregistratu dira.

Sektoreko lau erakundetik batek (% 26) likidezia-arazoak edo diruzaintzako tentsioak ditu, eta antzeko ehuneko batek zailtasunak ditu maileguak lortzeko.

Krisiaren inpaktua anitza izan da lan-baldintzetan ere. Batik bat erakunde txikienei edo diru-laguntzen mende irauten dutenei eragin die, eta garapenerako nazioarteko lankidetzako erakundeei eta erantzukizun publikokoak ez diren zerbitzuak ematen dituzten edo sektoreari berari zerbitzuak ematen dizkieten erakundeei.

Etorkizunari begira, lau erakundetik batek uste du enplegua sortzea lortuko duela, eta soilik % 10ek uste du erakunde bertan enplegua murriztu egingo dela. Kezkagarria da, oro har, sektoreko enpleguaren kalitatea eta krisiak erakunde batzuetako lan-baldintzetan izan dituen ondorioak, bereziki. Pertsonak eta haien ekarpenak galtzeko arriskuak ere kezka sortzen du (krisiaren eraginaren ondorioz, loturaren kudeaketaren ondorioz, eta abar).

Gardentasuna eta kontu-ematea sektorearen nortasunarekiko erantzukizuneko eta koherentziako ariketa bat da. Erakundeek eskarmentu handia dute gardentasunari eta kontu-emateari dagokionez, interes-taldeen zabaltasunetik eratorrita, eta parte hartzeko sistemekin eta erakundeen kontrolako sistemekin lotuta.

Horri dagokionez, erakundeek informazioa igortzen diote aldizka interes-taldee: urteko jarduerari buruzko informazioa (% 86), kontuen egoerari buruzko informazioa (% 81ek egiten du), gobernu-organoen osaerari buruzkoa (% 74), eta misioei eta balioei buruzkoa (% 70). Eta, neurri txikiagoan, helburuak zenbateraino bete diren (% 60) eta jardueraren eragina (% 52k igortzen du).

Kontabilitatearen kanpo-ikuskapena ohikoa da bolumen ekonomiko handieneko erakundeetan. Milioi bat euro eta erdi baino gehiago kudeatzen dituztenen % 93k hori egiten du, baina ehunekoa txikiagoa da aurrekontu txikiagoak kudeatzen dituzten erakundeetan (urtean 300.001 eurotik 1.500.000 eurora arte kudeatzen dituztenen % 55ek egiten du).

Sektorearen gizarte-hautematea eta konfiantza hobetzeko eta lankidetzak eta finantzaketa pribatua lortzen laguntzeko, gardentasuna eta kontu-ematea bermatzeak ere kezka sortzen du.

Eztabaida-taldeetan, laguntza-lerroak, urte anitzeko diru-laguntzen edo proiektuen bitartez, proiektuen aldikotasunera egokitzeko beharra nabarmendu da, gaur egun badaudelako zenbait urte irauten duten proiektuentzako laguntza-lerroak, urtero errepikatzen direnak, eta urtero proiektu bera aurkeztu behar izaten dutenak. Ildo berean, beharrezkotzat jo da erantzukizun publikoko katalogoetan sartuta ez dauden, baina denboran jarraituak diren eta interes orokorrari erantzuten dioten zerbitzuekin lotutako hitzarmenak formalizatzeko bidean aurrera egitea (esate baterako, desgaitasunak dituzten pertsonentzako aisialdi-zerbitzuak).

Gardentasunari eta kontu-emateari dagokionez, gai horrekin lotutako betebeharrak erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran parte hartzen ez duten ATEei egokitzeko beharra (eta, zehazki, EHSSLren 16. artikuluan aurreikusitakoak) azpimarratu da, kontuan hartuta zer zailtasun izaten dituzten erakunde horiek kanpo-ikuskaritza baten kostuei aurre egiteko, eta helburuen eta bitartekoen arteko proportziorik eza kontuan hartuta, eta, bereziki, erakunde horiek kudeatutako aurrekontuen eta kanpo-ikuskaritza baten kostu minimoaren arteko aldea.

Finantzaketa-iturriei dagokienez, finantzaketa-bide tradizionalen ordez erakunde bakoitzean beste iturri batzuk bilatzeko beharra adierazi da (finantzaketa-iturrien aniztasuna); bereziki, erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduraz kanpoko funtzioak garatzeko eta sistema horietatik kanpo geratzen diren pertsonen arreta emateko. Gainera, administrazio publikoek esku-hartzearekin lotutako gastuak aurreikusteaz gain kudeaketaren hobekuntzarekin lotutakoak ere aurreikusteko beharra ere adierazi da; bereziki, beren erantzukizuneko zerbitzuekin lotuta kudeaketa-eskakizunak (kalitate-sistemak, kanpo-ikuskaritzak...) ezartzen direnean. Bestalde, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, EHSSko erakundeei Europar Batasuneko finantzaketa lortzen laguntzeko beharra ere azpimarratu da.

Azkenik, administrazioaren gastuen ehunekoa edo kudeaketa onargarria erakundeen ezaugarrietara egokitzeko beharra ere adierazi da. Hala, zerbitzu, programa edo proiektuaren kostu osoaren gaineko administrazio- edo kudeaketa-gastuen % 10 nahikoa ez dela uste da erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran parte hartzen duten ATE batzuek beren kudeaketa-gastuei aurre egiteko; bereziki, horretarako, kalitate-sistemak ezarri behar badituzte, esku-hartzea ebaluatu behar badute, kanpo-ikuskaritzak egin behar badituzte eta abar.

EHSSL	ERRONKAK (EHSSOL)
5. INBERTSIOAK ETA AZPIEGITURAK	5. Erakundeen jasangarritasun ekonomikoan aurrera egitea.

Lau erakundetik batek (% 25) zailtasunak ditu kredituak lortzeko, eta ehuneko hori % 39ra igotzen da soldatapeko langileak dituzten erakundeetan.

Soilik erakundeen % 18k du bere jabetzako lokala, eta erakunde batek bere azpiegiturak ez izateak zaildu egiten du kreditua lortzea, ezinezkoa baita abala ematea.

Kreditua lortzeko zailtasun horiei aurre egiteko, baduten erakundeen % 18k mailegu pertsonalak eskatzen ditu. Eta, kreditu-lerroak lortzeko dituzten zailtasunen ondorioz, erakundeen erdiak baino pixka bat gehiagok langileen nominen ordainketak atzeratu behar izan ditu.

Zenbait erakunde txikik ezin dute lokalik izan gizarte-egoitza gisa edo/eta erabiltzaileei arreta emateko beste oinarritzko jarduera batzuk egiteko (zerbitzuak ematea, elkarri laguntzeko jarduerak...), eta horrek ere kezka sortzen du.

Zenbait erakundek, baita tamaina handi edo ertainekoek ere, erantzukizun publikoko zerbitzu jakin batzuen horniduran parte hartzeko azpiegiturarik ez izateak ere kezka sortzen du; esate baterako, egoitza-zentroak eta beste alojamendu-aukera batzuk, eguneko zentroak edo inbertsio garrantzitsuak behar dituzten beste zentro batzuk.

Bi kasuetan, kreditu lortzeko zailtasuna da azpiegitura propioa ez izatea dakarrena, eta, kasu batzuetan, horren ordez, titulartasun publikoko edo pribatuko lokalak uzten dizkiete, erakunde batek edo gehiagok erabiltzeko (erantzukizun publikoko zerbitzuen kudeaketa, asoziazioen hotelak...).

Eztabaida-taldeetan, azpimarratu da kasu batzuetan bederen proiektuekin lotuta egon daitezkeen administrazio-gastuak txikitu egin direla (horien arten sar daitezke inbertsioen amortizazioak) eta, balizko batzuetan gutxienez, gastu horiek berariaz hartu behar direla kontuan (erantzukizun publikoko zerbitzuen hornidura, proiektu berritzaileak edo premiazko beharrei erantzuteko proiektuak...).

Bestetik, eskatzen zen administrazio publikoek inbertsiorako laguntza-lerroak ematea EHSSko erakundeei eta sareei, enpresek dituzten moduan.

Gainera, badirudi beharrezkoa dela hausnarketa bat sustatzea, eta, beharrezkoa bada, gizarte-proiektuetan inbertitzeari buruzko planteamendu estrategiko bat, gizarte-arloko esku-hartzea eta erronka sozialei, ekonomikoiei, demografikoiei... erantzutera bideratuak berariaz, Euskadin eta Europan (Erresuma Batua) jadanik existitzen diren ekimenak kontuan hartuta, horretarako.

EHSSL ERRONKAK (EHSSOL)

6. SEKTORE PUBLIKOAREKIKO LANKIDETZA 8. Beste eragile batzuekiko harremana hobetzea eta finkatzea.

Erakundeek harreman garrantzitsua izaten dute administrazio publikoekin (% 73k dio harreman handia edo nahiko handia duela), eta harremana estuagoa izaten da erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran lankidetzan aritzen diren erakundeen kasuan.

Gainera, adierazi dugun moduan, askok diru-laguntzak jasotzen dituzte edo/eta administrazioek utzitako lokalak dituzte. Eta ez dira gutxi foroetan parte hartzen dutenak eta jardunaldietan edo topaketetan lankidetzan aritzen direnak (% 72), aholkularitza eman edo/eta jasotzen dutenak (% 48) eta administrazio publikoen aholku-organoetan parte hartzen dutenak (% 41).

Administrazio publikoak dira, erakundeek diotenez, laguntza gehien ematen dietenak (foru-aldundiak, Udalak eta Eusko Jaurlaritza, hurrenkera horretan), eta % 55ek uste du laguntza hori hobetu egingo dela: denboran gehiago iraungo duela eta proiektuen jarraipena emateko aukera emango duten lankidetzan bitartez antolatuko direla.

Bestalde, uste da azken urteetan elkarrizketa zibileko mahaiak sustatzearekin edo Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Legea egin eta onartzearekin lotutako aurrerapen garrantzitsuak egin direla, baina, hala ere, zenbait alderditan aurrera egiten jarraitu behar dela; esate baterako, mahaiak indartzen (zeharkakotasuna eta proiektuetan oinarritutako lana), elkarrizketa zibila sektore publiko osora zabaltzen, legea zabaltzen, eredu mistoa finkatzen eta kontzertu sozialeko araubidea abian jartzen.

Erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran parte hartzen duten erakundeek uste dute beharrezkoa dela konfiantzan eta elkarren onarpenean oinarritutako eta nolabaiteko malgutasuna ematen duen zerbitzuen horniduraren lankidetzaren eredu bat zehaztea (zerbitzuen diseinuan, exekuzioan eta ebaluazioan parte hartzeko aukera, kasua koordinatzeko aukera...), hartara harreman klientelarrak ez sortzeko. Uste dute erantzukizun publikoko zerbitzuak ekidin behar direla eta erantzukizun publikoko zerbitzuen hornidurako eredu mistoa finkatu behar dela (publiko-pribatua, kudeaketa publiko zuzenaren nagusitasunarekin eta gizarte-ekimenarekin batera), arretaren eredu komunitarioaren balio erantsia zainduko duena eta kudeaketa interes orokorrera bideratuko duena.

Parte hartzeko mekanismo tradizionalak (aholku-organoak) hobetzeko beharra ere sumatu da, bai eta erakundeak gizarte-politiken garapenerako "aditu" gisa aitortu beharra ere. Administrazioarekiko harremanak hartzen duen espazioa erantzukizun publikoko zerbitzuen hornidurakoa baino handiagoa izatea nahi da, eta elkarrizketa zibil eta gobernantza parte-hartzaile terminoetan ulertzea.

Finantzaketa publikoari dagokionez:

- kezka sortzen du, adierazi den moduan, administrazioen erantzukizunaren garapenera egokitzeak, erantzukizun publikoko zorroetan sendotutako beren eskumeneko zerbitzuei dagokienez (zerbitzu guztien kostuaren % 100 ordaintzea), bai eta gaur egun zorroetan sartu gabe dauden zerbitzu batzuen egoera edo/eta finantzaketa % 100 bermatu gabe dutenen (aisialdia, zerbitzu sozio-sanitarioak, bazterkeriaren eremuko zenbait zerbitzu) egoera argitzeak ere.
- eta adierazten da erakunde askok oztopoak izaten dituztela diru-laguntza publikoak kudeatzeko (jarduerak sartzea zailtzen duten deialdien zurruntasuna; inprimakien konplexutasuna; kudeaketako gero eta eskakizun gehiago egiten zaizkie erakundeei, haien tamaina kontuan hartu gabe; atzerapenak laguntzen ebazpenean eta

ordainketetan, bereziki ATEei eragiten dietenak).

Eztabaida-taldeetan, eta Eusko Jaurlaritzari dagokionez, zeharkakotasunean aurrera egiteko beharra azpimarratu da:

- a) elkarrizketa zibilekoa (beste sail batzuen eta Lehendakariaren parte-hartzea EEZMn);
- b) EHSSSErena berarena (beste sail batzuen eta Lehendakariaren parte-hartzea estrategiaren exekuzioan, etengabeko ebaluazioan eta eguneraketan, diseinuan gertatutako moduan, Lehendakariaren lidergoa indartuz).

Era berean, azpimarratu da garrantzitsua dela EEZMn proiektuetan oinarritutako lan-dinamika indartzeko aukera emango duten laneko prozesu eraginkorrak eman behar zaizkiola EEZMri, informazio-truke hutsaz harago, eta EHSSSEren zabalkuntzan aurrera egin behar dela.

Horri dagokionez, beste alderdi batzuen artean, ad hoc lantalde bat abian jartzea planteatzen da, strategiaren jardueretako bakoitza bultzatzeko, helburu errealistak eta funtzionamendu-mekanismo argiak hartuta, haietan parte-hartze aktiboaren eta lan partekatua kultura sortzen joateko.

Eta, gainera, adierazten da komenigarria izango litzatekeela lantaldeko pertsona batek edo bik –zeregin horretarako postu, baliagarritasun eta gaitasun egokiek– trakzio-lana egitea Gobernuaren aldetik, strategiaren jarraipen globala eta jardueren hasierako bultzada bere gain hartuz.

Jarduera bakoitzaren hasierako bultzadaren lidergo horrek, EHSSk horretarako izendatzen dituen pertsonekin batera, funtsezkoa dirudi, eta badirudi, halaber, garrantzitsua dela lantaldeko kideen izendapenak zaintzea, eta horiek autoritatea izan dezatela eta dagozkien sailetan trakzio-lana egin ahal izan dezatela.

Horren helburua hau da:

- a) HSSren eta gizarte-ekintzako edo gizarte-politika sailen laneko eremuaren arteko asoziazio tradizionala gainditzea, eta beste sail batzuekiko lankidetzak eta lankidetzak publiko-sozialaren ikusgarritasuna handitzea, Eusko Jaurlaritzaren apustu estrategiko gisa.
- b) EEZMk eta estrategiak bultzada eta ikusgarritasun handiagoa izatea, barne-mailan (Gobernuan eta sareetan) eta kanpo-mailan, hausnarketa partekatua bultzatuz eta lan-prozesuak zainduz, pixka bat motelagoak izan daitezkeen arren.

Horrek esan nahi du EEZMk eta sailek eta sektoreko erakundeek lankidetzan jardun dezaketen edukiak identifikatzen aurrera egingo dutela eta lankidetzari balioa gehituko diotela. Prozesu hori kontu handiz zaindu behar dute bi aldeek, sail bakoitzaren eta sareen artean baterako hausnarketako eta laneko espazioak eta prozesuak sortuz (estrategian aurreikusitako jardueri eta sar daitezkeen beste batzuei dagokienez), helburu errealistak eta funtzionatzeko sistema praktikoa, erraz eta argi bat hartuta.

Erakundeek eta sareek, alde batetik, eta gobernuak, bestetik, argi izan behar dute norabide horretan aurrera egiteak lan garrantzitsu eta itxaropentsu bat eskatzen duela, eta horretarako, baliabideak jarri behar direla. Oso garrantzitsua da sareek (EHSS) eta sailek (EJ) erantzun positiboa ematea, eta horretan inplikatzeko eta adostasunak lortzea.

Halaber, garrantzitsua dela uste da sareek eta Gobernuak lan-eredu bat eta sareen eta sailen arteko harremana partekatzea, egiteko modu bat, estrategia zabaldu eta sareen eta sailen arteko elkarren ezagutzan (“jadanik elkarrekin zer egiten dugun, zer egin genezakeen...”) aurrera egitean. Azken hori ekintza bat izan liteke berez.

Azkenik, zeharkakotasunari dagokionez, instituzioen legealdi-planetan hirugarren sektorearekiko lankidetzak, edo lankidetzak publiko-sozialak, sartzeko interesgarria da, betiere haien aldeko apustu estrategikoa bada, sailen plangintza-prozesuetan trakzio-lana egiten duelako, gizarte-ekintzako sailetatik harago.

Bestalde, erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduraren ereduarekin lotuta existitu diren eta oraindik existitzen diren praktiken eta ikuspegiaren nolabaiteko hurbilketa bat ere sumatu da gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan eta gizarte-zerbitzuetan, bereziki.

Eta adierazi da, hala ere, oraindik asko aurreratu behar dela lankidetzaren publiko-sozialaren legitimitatearen onarpena (ez normatiboa soilik) finkatzeko, betiere erantzukizun publikoa eta prestazio eta zerbitzu jakin batzuen kudeaketa publiko zuzena finkatzeko ikuspegi baten baitan, eta EHSSko erakundeek eta sareek dagozkien politika publikoetan parte hartzeko ikuspegi baten baitan, fase guztietan, eta betiere Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 7. artikulua lehenean ezarritakoa betez.

Zentzu horretan, adierazi da erakundeek eta sareek aurrera egin dezaketela eredu mistoa definitu, zehaztu eta justifikatzeko orduan, irizpideak bateratuz, barne-mailan eta beste eragile batzuekin, eta planteamendu partekatu eta itxaropentsu bat sortuz.

Eta administrazio publikoek hitzarmen sozialaren aldeko apustua egin behar dutela ere azpimarratu da, hitzarmenekin batera gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan erantzukizun publikoko zerbitzuen hornidura mistorako lankidetzaren publiko-soziala antolatzeke funtsezko tresna bat den aldetik. Eta kontratazio- (klausulak) eta hitzarmen-gaietako arau-garapenean aurrera egitearen garrantzia, hitzarmenaren (soziala) Dekretua onartuz, hasteko.

Bestalde, badirudi egokia dela erantzukizun publikoko zerbitzuen hornidura partekatzen duten erakundeek eta haien arduradun diren administrazio publikoek aurrerapenak egitea erantzukizun publikoko zerbitzuen hornidura ebaluatzekeko prozeduren eta adierazleen diseinuan.

Gainera, erakundeek uste dute beharrezkoa dela erantzukizun publikoko prestazioei eta zerbitzuei, protokoloiei eta sarbide-eskakizunei... buruzko irizpideak eta prozesuak bateratzea administrazio publikoetan, lurralde-mailan ez dadin egon erabiltzaileek eragingo dion desberdintasunik.

Zerbitzu baten prezioak/plaza ezartzean, irizpideak homogeneoak izatea ere garrantzitsua dela uste dute, zer entitatek eta zer administrazioetarako ematen den alde batera utzita. Eta, azkenik, kezka adierazi dute interes orokorrekoak diren zerbitzu egonkorren finantzaketagatik –esate baterako, aisialdiko zerbitzuak, zeinak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioen eta zerbitzuen zorrorekin kanpo geratu diren– eta zerbitzu sozio-sanitarioen zorroaren definizioagatik eta finantzaketagatik.

Bestetik, sustapenari dagokionez, garrantzitsutzat jo da erakundeek eta sareek ahalegin bat egitea gizarte-arloko esku-hartzearen esparruetan egiten dituzten ekarpenak ezagutzera emateko (erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzaren balio osoa eta balio erantsia). HSSren sustapenean esku hartzen duten administrazio publikoek eta beste eragile batzuek erakundeen gizarte-ekarpenarekiko eta ondasun komunera eta interes orokorrera bideratzearekiko pertzepzioarekin zerikusi handia du sustapenak.

Oro har, eta erakundeek eta sareek politika publikoetan duten parte-hartzeari dagokionez, HSSren parte-hartzea handitzeko beharra azpimarratu da, eta ez gizarte-politiken diseinu, exekuzio eta ebaluazioari dagokionez soilik, baita ere pertsonen ongizateari eragiten dioten politikari (“sektore gisa, eta, batzuetan, erakunde gisa, pertsonekin egiten dugu lan bizi-ziklo osoan zehar eta zenbait egoeratan”) eta erakundeek eragiten dietenei dagokienez: gizarte-arloko esku-hartzearen esparruko politikak eta beste gizarte-politika batzuk, politika ekonomikoa, politika fiskala, gizarte- eta garapen-eredua, erakundeetan edo/eta sektorearen osotasunean eragiten duten politikak, eta abar.

Bestetik, parte hartzeko sistemak hobetzeko beharra nabarmendu da, bai kide anitzeko organoetan (elkarrizketa zibilerako mahaiak), bai aholku-organoetan; izan ere, haien aholku-emaile izaera errespetatuz, gai praktikoetan eragingo duen eta eraginkorra izango den parte-hartzea errazteko aukera dago.

Alderdi sinple eta zehatz bat da administrazio publikoek sektorearen ezagutza hobetzeko aukera dutela (zer sare eta erakunde existitzen diren, zer alde dauden batzuen eta besteen artean, eta abar), bai eta haien nortasuna eta gizarte-ekarpena ere. Horren haritik, uste da garrantzitsua dela sektoreak informazioa ematea eta sektore publikoarekiko harremanetarako espazioak sustatzea, maila politikoan eta maila teknikoan.

EHSSL	ERRONKAK (EHSSOL)
7. ENPRESEKIKO LANKIDETZA	8. Beste eragile batzuekiko harremana hobetzea eta finkatzea.
<p>Gizarte erlazional batean eta arazo konplexuen aurrean, beste sektore eta beste eragile batzuekiko harremanak gero eta beharrezkoagoak dira, erakundeen inpaktu eraldatzailea zabaltzeko nahiz haien baliabideak eta finantzaketa-iturriak dibertsifikatzeko. Bestetik, kezkgarria da beste eragile batzuek ez ezagutzea sektorearen berariazko ezaugarriak eta sektorearen gizarte-ekarpena, horrek aurreiritziak eta konfiantza eza elika ditzakeelako edo erlazio-oinarri desegokiak ezar ditzakeelako, eta baita lankidetzari eragin ere.</p> <p>Gaur egun, soilik erakundeen % 20k dio harreman edo/eta lankidetzari handia edo nahiko handia duela enpresek (bereziki, erakunde handiek). Dena den, erakundeen % 57k uste du ona izango litzatekeela enpresa-sektorearekin aliantzak sortzen aurrera egitea.</p> <p>Enpresek harremanak dituzten erakundeek, funtsean, dohaintzak eta diru-laguntzak lortzeko, informazioa trukatzeko, foro eta jardunaldietan parte hartzeko... eta zerbitzuak kontratatzeko izaten dituzte.</p> <p>Azkenik, euskal enpresaren errealitateak berariazko hurbilketa-estrategiak behar dituela uste da, ETEei egokituak.</p> <p>Eztabaida-taldeetan adierazi da eremu hori arakatzeko beharra dagoela eta programa pilotu bat abian jarri behar dela.</p> <p>Aurrera zentzuz egiteko, uste da egokia dela, gainera, sektorean hausnarketa bat egitea gizarte-erantzukizun korporatiboari buruz, eta, zehazkiago, ETEekin partekatutako GEK-en eta boluntario korporatiboaren ereduak sortzeari buruz, zeinek hasieran zehaztu daitezkeen oinarri batzuei erantzun dieten (erakundearen eta enpresaren misioarekin lotutako eta balioak adierazten dituzten jardueretan lankidetzan aritzea, boluntarioak HSSko erakundeekin bitartez antolatzea, bi aldeek arteko konpromisoa printzipio etiko batzuei dagokienez eta lankidetzan egin beharreko komunikazio-ekintzei dagokienez, eta abar).</p> <p>Bestalde, maila zehatzago edo operatiboago batean, EHSSko erakundeek beraiek onatzen dituzten boluntario korporatiboaren esperientzia batzuk existitzen direla egiaztatzen da, eta horiek interesa duten erakundeekin artean aurkeztu daitezke, bai eta zabaldu eta haiei buruz eztabaidatu ere.</p> <p>Azkenik, gai horiekin lotuta, enpresa-asoziazioekin harremana ezartzeko, sareetatik ekimenen bat sustatzeko zentzua izango lukeen planteatu da.</p> <p>Horri dagokionez, uste da komenigarria izan daitekeela enpresa handiekin eta euskal ETEekin batera elkarrizketa bati ekitea, EHSSrekin lankidetzan aritzeko aukerei eta irizpideei buruz, esperientzien trukea eta enpresetan eta sektorean existitzen diren eredu eta praktiken analisia abiapuntu hartuta (enpresen ekintza edo gizarte-arloko esku-hartzea).</p>	

EHSSL	ERRONKAK (EHSSOL)
8. EHSS-REN SUSTAPENA, FISKALITATEA ETA ONARPENA	8. Beste eragile batzuekiko harremana hobetzea eta finkatzea.
<p>Adierazi dugun moduan, sektoreko erakundeen % 36ren ustez, euskal gizarteak oraindik ez du behar bezala aitortzen sektorearen lana herritar guztientzat onuragarria dela (badira erakunde gutxi batzuen jardunbide txarren eragin negatiboarekin lotutako zenbait aurreiritzi, interes orokorrera bideratuta dagoenari eta baliabide publikoak egoki erabiltzen direnari buruzko zenbait zalantza, eta gizartean jarduerak gizarte-arloko gisa ulertzea inbertsio gisa ulertu beharrean).</p> <p>Horri dagokionez, erabakigarria da sektorearen gizarte-transformazioari egindako ekarpena ikusgarri egitea erantzukizun publikoko sistemak garatzeko eta finkatzeko (makro), aukera eta zerbitzu berriak sustatzeko (meso), eta pertsona, familia eta auzoetan jarrerak eta portaerak aldatzeko (mikro) terminoetan.</p> <p>Sektoreko erakundeek zerbitzuen hornidurari egiten dioten gizarte-ekarpen globala eta espezifikoak (balio osoa) eta eransten dioten balioa onartu behar dituzte herritarrek, sektoreek eta agenteek, horrek aukera berriak sortuko litzakeelako pertsona, familia eta komunitate hartzaileentzat, sektorearen gizarte-pertzepzioa hobetzen lagunduko lukeelako, lankidetzak, baliabideak eta finantzaketa pribatua (autonomia) lortzeko aukera emango lukeelako, eta abar.</p>	

Kudeaketa-gaietan sektorearen egiten jakitea onartzen aurrerapenak egitea ere interesgarria izango litzateke. Esate baterako, gardentasunari eta kontu-emateari dagokionez eta interes-taldeen kudeaketari dagokionez, haien zabalatasunetik eratorrita eta parte hartzeko sistemekin eta erakundeen kontrolako sistemekin lotuta esperientzia handia duten erakundeak.

Horri dagokionez, erakundeek informazioa igortzen diote aldizka interes-taldeei: urteko jarduerari buruzko informazioa (% 86), kontuen egoerari buruzko informazioa (% 81ek egiten du), gobernu-organoen osaerari buruzkoa (% 74), eta misioei eta balioei buruzkoa (% 70). Eta, neurri txikiagoan, helburuak zenbateraino bete diren (% 60) eta jardueraren eragina (% 52). Gainera, hamar erakundetik bederatzik soldatapeko langileen parte-hartzea errazten du jardueren planifikazioan edo/eta ebaluazioan.

Sektorearen onarpenarekin lotuta, kezka sortzen du, adierazi dugun moduan, elkarrizketa zibilaren eta erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduraren eredu mistoa finkatzea lortzeak (publiko-pribatua, kudeaketa publiko zuzenaren nagusitasunarekin eta gizarte-ekimenarekin batera), arretaren eredu komunitarioaren balio erantsia zainduko duena eta interes orokorrera bideratuko duena.

Bestalde, erakundeen % 86ren ustez, Hirugarren Sektore Sozialak lidergoa bere gain hartu behar du gizarte-eredu berriak sortzeari eta politika publiko berriak sortzeari dagokionez.

Azkenik, beste eragile batzuekiko lankidetzak esperientziak areagotu egin behar direla uste dute, enpresekiko eta administrazio publikoekiko esperientziak gain (sindikatuak, alderdi politikoak, gizarte-mugimenduak, eta abar), haiekin guztiekin lankidetzan aritzeak sektorearen transformazioaren inpaktua handitzeko aukera emango duelako.

Sindikatuak eta alderdi politikoekiko lankidetzari dagokionez, lankidetzaren erlazioa nulua da Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen zati garrantzitsu baterako. % 72k eta % 63k ez ditu inolako harremanik. Hori zailtzen duten oztopen artean, aipagarria da sindikatuen eta alderdien artean ez dela ohikoa sektoreari buruzko posizio instituzional bat egotea, eta baldin badago, sektoreari buruzko eta haren errealitateari egokitutako estrategiei buruzko ikuspegia falta da.

Bestetik, gizarte-mugimenduak eta autolaguntzako eta lehen mailako elkartasuneko herritar-ekimenak intzidentzia politikoa egiten eta herritarrak mobilizatzen ari dira, baina haiekiko lankidetzak-harreman gutxi dago. Horri dagokionez, uste da aliantza gehiago ezarri behar direla antolatu gabeko elkartasuneko mugimendu eta ekimen horiekin, erabiltzen dituzten dinamikak eta sektoreak erabiltzen dituenak desberdinak direla onartuz, sektorearentzako lagungarria izan daitekeelako herritarrekin konektatzeko, haiek mobilizatzeke eta abarrerako.

Azkenik, sektorearen zati baten eta gizarte-ekonomiako erakundeen artean bateratze-espazioak existitzen diren heinean, interesgarria izan daiteke erakunde horiekin aliantzak egitea, irabazi-asmorik gabeko sektorearen inguruko egituraketa ahaztu gabe, eta, bereziki, izaera zibikoko erakundeen antolaketa ahaztu gabe.

Eztabaida-taldeetan EHSSren onarpen publiko eta sozialean aurrera egiteko beharra adierazi da, eta gizarteak jakin dezala zer den EHSS eta erakunde guztiek partekatzen duten nortasun batekin lot dezala (herritarrek ezagutzen dituzten erakunde konkrituak, hirugarren sektoreari buruz hitz egitean zertaz ari garen ulertzeko adibide gisa jartzen direnak, izendatuzetik harago).

Sektorearen onarpenari dagokionez, uste da oso garrantzitsua dela EHSSko erakundeen balioaren edo berariazko ekarpenaren identifikazioan eta komunikazioan aurrera egitea, beste sektore eta eragile batzuek egiten dituztenekin alderatuta (enpresak, administrazio publikoak...), bai eta bere balio propioen eta haiekin lotutako praktiken identifikazioan eta komunikazioan ere. Ildo beretik, esku-hartzean eta kudeaketan efikaziarekin eta efizientziarekin lotutako alderdiak zaintzearen garrantzia planteatu da, bai eta ebaluazioaren eta emaitzak jakitera ematearen garrantzia ere. Funtsezko legitimitate-iturria da hori. Zenbat eta efikazagoak eta efizienteagoak izan erakundeak orduan eta handiagoak izango dira parte-hartzeko aukerak eta haien intzidentzia soziala eta politikoa.

Gainera, hain sakona ez bada ere, garrantzitsua da "Hirugarren Sektore Sozial" terminoa erabiltzea gizarte-arloko ekimeneko eta esku hartzeko erakundeak adierazteko, gaur egun erabiltzen diren denetarik terminoak erabili beharrean (arau-mailan, komunikabide sozialean, erakundeen eta sareen beraien komunikazioan...): irabazi-asmorik gabeko antolakundeak, gobernu kanpoko erakundeak, irabazi-asmorik gabeko instituzioak, asoziazioak edo asoziazioak eta fundazioak (guztia adierazteko), eta abar.

Sektorearen eta haren ekarpenaren ikusgarritasunari dagokionez, uste da beharrezkoa dela EHSSko erakunde eta sareen eta komunikabideen arteko hurbilketa bultzatzea, topaketarako eta elkar ezagutzeko espazioak sustatzen hasita. Eta Sareen Etxeak sareek elkar ezagutzera bultzatu dezakeela ere planteatu da, eta, barne-mailan, sektorea eta haren ekarpena ezagutzera ematea, komunikazio-ekintzen edo -kanpainen bidez, besteak beste, sortzaileak eta modernoak izan behar dutenak eta zenbait kanalen bidez gauzatu behar direnak, sare sozialak barne. Horri dagokionez, adierazi dugun moduan, komunikazio-plan bat izan beharra azpimarratu da, eta pertsonak hautatu eta trebatu, bozeramaile-lana egin dezaten.

Beste eragile batzuekiko lankidetzari dagokionez, uste da beharrezkoa dela gizarte-mugimenduekiko harremanei buruzko hausnarketari ekitea, ez dagoelako horrelako ezer edo urria delako: nola eta zertarako sustatu, eta abar. Gainera, alderdi politikoezikiko eta sindikatuekiko harremana ere landu egin behar da.

Administrazio publikoek sektorea sustatzeko ekintzak egiteari dagokionez, ondorioak Liburu Zurian jasotzean sektore publikoarekiko lankidetzari buruzko atalean adierazitakoarekin koherente izanik:

- Laguntzen deialdiak edo lerroak (diru-laguntzak) bateratu, sistematizatu eta sinplifikatzeko beharra azpimarratu da: zenbait deialdi , ahal den neurrian, batean bilduz, prozedura batekin eta irizpide bateratuekin (bateratu); existitzen diren laguntzak barne hartuko dituen sistema integral bat sortuz (adibidez, abian jartzea, funtzionamendua eta mantentze-lanak, prestakuntza, jarduera, berrikuntza, azpiegiturak); eta eskaera-inprimakiak hobetzea eta murriztea, administrazioak dituen datuak berriro eskatu beharrik ez izateko, esate baterako (sinplifikatu).
- Gainera, edukiak, sarbide-eskakizunak, prozedurak, inprimakiak, bildu beharreko datuen kopurua eta motak, betebeharrak... ATEen beharretara eta ezaugarrietara egokitzeko beharra adierazi da, bai eta boluntarioen erakundeen edo erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran parte hartzen ez dutenen beharretara eta ezaugarrietara ere. Hain zuzen ere, izapideak sinplifikatzea, betebeharrak murriztea (esate baterako, kanpo-ikuskaritarik ez egitea) eta ordainketak arintzea planteatzen da, ordainketak aurreratzeko baliabiderik ez duten erakundeek jarduerak bertan behera utzi behar ez izateko, eta laguntzak ematen dizkietenean haiei uko ez egiteko.

Bestalde, gogoan izan behar da beren misioa betez berariazko ekarpen bat egiten duten fundazio pribatuen gaur egungo ekarpena eta ekarpen potentziala, eta horri buruzko hausnarketa egin behar da; hala ere, gerta daiteke praktikan uhartetxo gisa funtzionatzea, elkarren arteko loturarik gabe eta sektorearen eta haren jardueraren sustapen-ekintzak egiten dituzten beste eragile batzuekin loturarik izan gabe.

Modu berean, betiere erakunde edo instituzio bakoitzaren autonomia errespetatuz, administrazio publikoen, banku-fundazioen, enpresen eta abarren sustapen-ekintzetan orientazioak eta irizpideak bateratzeko beharra planteatu da.

EHSSL	ERRONKAK (EHSSOL)
9. NORTASUNA	0. Gure nortasun-ezaugarriak sustatzea. 1. Sektorearen aniztasunari eustea. 2. Funtzioen oreka eta orientabide transformatzailea.
<p>Irudi juridiko, tamaina, erakunde-mota, ibilbide, kudeatutako bolumen ekonomikoari eta abarri dagokienez oso sektore heterogeneoa da.</p> <p>Hamar erakundetik bederatzir irabazi-asmorik gabeko beste figura juridiko batzuekin bizi dira; esaterako, fundazioak, gizarte-ekimeneko kooperatibak, gizarteratze-enpresak, eta abar.</p> <p>Erakundeen % 42k 20 urtetik gorako ibilbidea du, eta % 13k duela 5 urte baino gutxiago ekin zion bide horri. Sektore bizia da, beraz.</p> <p>Eta denetariko sektorea, zenbait eremutako erakundez osatua –esate baterako, sozial-zeharkakoa, gizarte-zerbitzuak, garapenerako lankidetzak, aisialdia, osasuna, enplegua...; lehenengo bietan erakundeen ehuneko handiena bilduta (% 34 eta % 25, hurrenez hurren)– eta zenbait kolektibori arreta ematen diotenak.</p> <p>Adin, sexu, jatorri, etniarekin... lotutako arrazoiengatik zaugarritasun-egoera berezian dauden eta beste alderdi batzuekin lotutako arrazoiengatik bazterkeria-egoeran dauden kolektiboari arreta ematera bideratzen dute beren jarduera erdiek gutxi gorabehera.</p>	

Sektore atomizatua ere bada (erakundeen % 32ren aurrekontua 12.000 eurokoa edo txikiagoa da) eta erakundeen ehuneko garrantzitsu bat (% 46) soilik pertsona boluntarioz osatuta dago. *Bietan, eremu sozial-zeharkakoa eta aisialdikoa nabarmentzen dira. Eta Gipuzkoa, boluntario ugari dituzten erakundeen ehuneko handiena duen herrialdea den aldetik.*

Gainera, 10etik 8ren jarduera ez da EAetik kanpo zabaltzen. % 35ek Lurralde Historikoan egiten du lan, eta % 27 gehigarri batek, eremu geografiko txikiago batean. Oro har, tokiko izaera duten eta lurraldeari lotutako erakundeak dira. Lurraldearekiko lotura horrek erantzunak haren beharretara eta berriazko ezaugarrietara egokitzeko erraztasuna dakar, bai eta komunitatearen parte-hartzea aktibatzea, tokiko beste eragile batzuekin lankidetzan aritzea eta beste ere.

Bestetik, erakundeen % 95ek zerbitzuren bat ematen du, eta % 75ek beste gizarte-funtzio batzuk ere egiten ditu (eragina, boluntarioak, garapen komunitarioa eta abar sustatzea). Hala eta guztiz ere, zerbitzuak hornitzera bideratutako erakundeen pisua handitu egin da sektorean, bai eta zerbitzuen horniduraren pisua ere, zenbait erakundetan.

Horren haritik, uste dute egokia izan behar duela erakundeen gizarte-funtzioen arteko orekak eta haren dimentsio transformatzailea indartu behar dela; bereziki, krisiaren eta gaur egungo gizarte-aldaketaren testuinguruan (beharrak hautemateko ikuspegi zabal batetik, administrazioarekiko lankidetzaren eta kritikaren orekatik, herritarren aktibazioa eta portaera alternatiboen sustapenetik, azken hartzaileen eskubideen defentsa eta sustapenetik, arretako eredu komunitarioko esku-hartzetik...).

Azkenik, sektorearen aniztasuna hainbat arazori denetariko erantzunak emateko aukera bat da, erakunde-mota bakoitzak berriazko gizarte-ekarpen bat eginez, guztiek gizartea eraldatzeko nahia partekatzen badute ere (mikro, meso eta makro mailetan), bai eta zuzenagoa eta berdintasun handiagokoa izango den gizarte-proiektu baten defentsa ere.

Eztabaida-taldeetan nortasun partekatua eraiki, finkatu eta zabaltzeari buruzko sektorearen estrategia bat izateko beharra azpimarratu da (nor eta nolakoak garen), ez soilik gizarteak sektorea ezagutzeko, baizik auto-identifikazioa eta erakundeetako kide izatearen sentimendua bultzatzeko.

Horren haritik, uste da beharrezkoa dela baterako nortasun bat zehazten aurrera egitea, EHSSko erakundeek eta sareek partekatutako nortasun-ezaugarriak abiapuntu hartuta (ezaugarriak, misioa, balioak...), eta gizarte-arloko ekimeneko eta esku-hartzeko erakundeen definizioa ere kontuan hartuta, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean egindakoa.

Eta sektorearen balioak termino jakin batzuetan identifikatzea (jardunbide onak), ebaluatzeko, bultzatzeko eta "balioan jartzeko" aukera ematen dutenak, eta ezagutaraztea, onarpenari buruzko atalean adierazi berri dugun moduan.

Bestetik, sektorearen nortasuna indartzeko ekintzak egiten jarraitu behar dela adierazi da, eta adibide nabarmen gisa EHSSren Liburu Zuria egin izana aipatu da, horrek sektorearen irudia erakusten duelako eta erakundeei nortasun partekatua eraikitzen eta komunikatzen lagundu dielako.

Horrez gain, sektorearen nortasun partekatua eraikitzeko, erakundeek sektorearen osotasunari buruz duten ezagutza hobetzea ere gakoa dela uste da. Eta, horretarako, zenbait eremu edo/eta lurraldetako erakundeen artean edo sareen artean, topaketarako guneak sustatzea proposatzen da.

Bai eta beste ekintza batzuk ere; esate baterako, erakunde bakoitzean Liburu Zuriko datuen laburpen bat lantzea gizarte-oinarriarekin... kide izatearen sentimendua eta sektoreko kultura sortzen joateko, edo sareen gidak egiteko eta zabaltzeko ("nor da nor"), nahikoa erraza dena, baina elkarren ezagutza eta erakundeen arteko lankidetzaren hobetzen nabarmen lagundu dezakeena, bai eta hirugarrenek sektorearen osotasunari buruz duten ikuspegia ere.

3 HELBURU OROKORRAK

3.1. ESPARRU OROKORRA SUSTAPEN-HELBURUEI DAGOKIENEZ

Estrategiak helburu handinahiak ezarri ditu, gizarte-ehuna indartzearekin eta gizarte-arloko esku-hartzearen esparruko lankidetzarekin lotutako alderdiei dagokienez, besteak beste.

Hala, EHSSLren 17.2 artikuluan aurreikusitakoa betez, estrategia ***EHSSko erakundeak eta sareak indartzera eta haien gizarte-ekarpena eta gizarte-arloko esku-hartzearen esparruko funtzioetara*** bideratzen da, eta, beraz, 4.3 artikuluan aurreikusitako denetariko jardueren garapena errazten du; jarduerok hauek dira: sentsibilizazioa, salaketa, arau-prozesuetan eta elkarrizketan parte hartzea, gizarte-arloko parte-hartzea antolatzea (boluntarioak, elkarlaguntza, gizarte-arloko esku-hartzearen hartzaile diren pertsonen asoziazionismoa) eta beharrak hautematea, ikerketa eta berrikuntza, zerbitzuen hornidura, erantzukizun publikokoa edo bestelakoa, eta esku-hartzeko proiektuak egitea.

*Eta, bestalde, krisiaren eragina neurri handienez jasan duten erakundeen diskriminazio positiboa aurreikusten da*¹³: ATEak, arreta bereiz jarrita sozial-zeharkako edo zibiko eremuko erakundeei (gizarte-arloko esku-hartzearen hartzaileak diren pertsonak beraiek osatuak) eta garapenerako nazioarteko lankidetzako erakundeei. Asmoa da garapenerako nazioarteko lankidetzaren indartzea, ATEen ahultasun-egoera gaintzea eta gizarte-arloko parte-hartzean egiten duten gizarte-ekarpena ez galtzea, baliabideak eta pertsonen gaitasunak, topaguneak, elkarlaguntza eta abar aktibatzea. Gainera, ATEei laguntza ematea, eta, bereziki, zibiko eremuko erakundeei, koherentea da sektorearen balioekin (hartzaileen parte-hartzea, elkartasuna...).

Hala, estrategiak ATEak ***indartzera berariaz bideratutako jarduerak*** sartzen ditu, eta, bereziki, gizarte-arloko esku-hartzearen hartzaileak diren pertsona eta familia beraiek osatutakoak, erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran parte hartzen ez dutenak, eta ***gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan erantzukizun publikoko sistemak finkatzen eta zabaltzen lankidetzaren publiko-soziala indartzera*** bideratutako beste jarduera batzuk (lankidetzaren erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran; ohikoagoa da erakunde handiek parte hartzea, baina ertainek eta txikiek ere hartzen dute parte).

Horri dagokionez, zerbitzuen horniduran lankidetzaren aritzeaz harago (diseinua, prestazioa, ebaluazioa eta hobekuntza), eta Legeak aurreikusten duenarekin koherente izanik, estrategia eta helburu orokorrak ***EHSSren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko, eta EHSSren eta oro har sektore publikoaren arteko lankidetzaren eta elkarlana indartzera*** bideratzen dira (exekutiboak zein legegileak), kontuan hartuta: “Esku-hartze sozialaren esparruan sektore publikoa eta ekimen sozialeko erakundeak lankidetzaren aritzea oso lotuta dago bi alderdiek gauzatzen dituzten egitekoekin, besteak beste premia sozialak detektatzea edo ebaluatzea, zerbitzuak ematea, sentsibilizazioa edo eskubideak sustatzea. Bi euskarri ditu lankidetzaren horrek: batetik, ekimen sozialak politika publikoetan parte hartzeko duen ahala, eta gizarte-eraren egiten dion ekarpenaren garrantzi handia; bestetik, gizarte-eredu jakin bat, antolatua, aktiboa eta demokrazia partizipatibokoa. Horrez gain, gizarte-eraren ezarritako dauden eta babestu eta bultzatu behar diren baliabideak eta gaitasunen efizientzia eta aprobetxamendu handiagoa dakar berekin, modu subsidiarioan” (zioen azalpena, hogeita seigarren paragrafoa).

¹³ Estrategiak orientabide orokorrak ditu bere baitan (ATEen diskriminazio positiboa, sozial-zeharkako edo zibiko eremukoak batik bat), bai eta ATEak sustatzeko edo haien laguntza emateko berariazko jarduerak ere. Ikuspegi horretatik, strategiaren jarduerak garatu, ebaluatu eta eguneratzean, diseinuan bezala, komenigarria da balioestea ATEen beharrei egokitutako ekintzak, irizpideak... sar daitezkeen (ikus definizioak 1. eranskinean).

Modu berean, estrategiaren eta helburu orokorren bidez lortu nahi dena da **EHSSren eta gainerako sektore eta eragileen arteko lankidetzeta eta elkarlana bultzatzea**, hau ulertuta: “Esku-hartze sozialaren esparruak, dituen ezaugarriak direla-eta, eta inklusio sozialak, helburu gisa, sektore sozial guztiak elkartzea eta lankidetzan aritzea eskatzen dute” (zioen azalpena, hogeita laugarren paragrafoa).

Izan ere, estrategiak eta hari buruzko legeak gizarte zuzen eta solidario, berdintasunezko eta kohesionatu, demokratiko eta parte-hartzaileagoa eraikitzeari erantzuten diote, eta lau sektoreen ekarpena du euskarri: sektore publikoa, sektore pribatu soziala, irabazi-asmorik gabeko sektore pribatua eta familiak, eta beste solidaritate-mota “informal, ez-antolatu eta lehen mailako” batzuk, familiekin batera “laugarren sektorea” osatzen dutenak. Eta gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan, bereziki, lankidetzeta eta elkarlan publiko-sozialari buruz, herritarren beharrei erantzuteko, gero eta konplexuagoa eta aldakorragoa den gizarte-testuinguru batean.

3.2. HELBURU OROKORRAK ETA EMAITZEN ADIERAZLEAK EHSSREN SUSTAPENARI DAGOKIONEZ

Hemen aurkeztutako helburu orokorrak orientaziozko esparru orokor eta partekatu gisa ezarri dira, EHSSSEren eta foru- eta tokiko estrategien koordinazioa bermatzeko, legean aurreikusitako moduan, bakoitzak bere errealitatera egokitzeko aukera kontuan izanda, eta helburu horiek eta beren lurralde-eremurako interesgarriak diren beste adierazle batzuk kontuan hartuta.

Hala, diagnostikoa eta legearen aurreikuspenak kontuan hartuta, eta estrategia indarrean dagoen aldiari euskal BPG handitzen ari den agertoki batean, hurrengo helburu orokorrak ezarri dira, eta horiek lortzeko euskal administrazio publikoak, EHSSk eta sustapenean inplikaturako beste eragile batzuek hartuko dute parte, eta haietako bakoitzari lotutako emaitzen zenbait adierazle ezarriko dira.¹⁴

A) SUSTAPEN-ESTRATEGIAK GARATZEA ETA ELKARRIZKETA ZIBILA SUSTATZEA

- Beste sustapen-neurri batzuk hartzeaz gain, sustapen-estategiak egiten dituzten eta diru-laguntzen urteko deialdiak egiten dituzten foru-aldundien eta tokiko erakundeen kopurua, EHSSLren 18. artikuluan aurreikusitakoa betez.
- Sustapen-estategiak zabaltzea, haien jarraipena egin eta ebaluatzen dituzten instituzioen kopurua.
- Elkarrizketa zibileko tresnak –esate baterako, elkarrizketa zibileko mahaiak edo antzeko beste batzuk– ezartzen dituzten edo sendotzen dituzten organo legegileen eta administrazio publikoen (gobernua, foru-aldundiak eta tokiko erakundeak) kopurua, EHSSLren 7. artikuluan aurreikusitakoa betez, eta garatutako tresnen edo indartzeko mekanismoen (proiektuetan oinarritutako lana, bultzatutako proiektuen kopurua eta mota...) deskribapena.
- Espazio horien esparruan lankidetzan bultzatutako ekimen konkretuen kopurua eta deskribapena, EHSSLren 7.3 artikuluan aurreikusitakoa betez, eta politiketan edo/eta legerian sortutako aldaketak: ikuspegi, jarduera eta zerbitzu berriak, arau berriak edo existitzen direnetan egindako aldaketak; eta abar.

¹⁴ Helburuen ebaluazioa egin daiteke, adierazle horiek kontuan hartuta. Adierazleak EHSSren Liburu Zuria egitea euskarritzat duten galde-sorten parte dira edo hartan sar daitezke, bai eta EHSSren sustapen-neurriei eta strategiaren ebaluazioari buruzko ondoko ondoko txostenetan ere.

B) LANKIDETZA PUBLIKO-SOZIALA

Lankidetzaren publiko-sozialaren, elkarrizketa zibilaren eta erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduraren eredu mistoaren garapena, EHSSLren 6. artikuluko e hizkian, 7. artikuluan eta hirugarren kapituluaren ezarritakoa betez.

- Sustapen-estrategien zeharkakotasuna: inplikaturako sailen kopurua eta mota, gizarte-zerbitzuen gaietan eskumenak dituzten sailez gain.
- Elkarrizketa zibileko espazioen zeharkakotasuna (mahaiak edo antzekoak) exekutiboekiko eta legegileekiko: inplikaturako sailen eta arloen kopurua eta mota, gizarte-zerbitzuekin lotutako sailez edo arloez gain.
- Gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan eskumenak dituzten eta jardura ekonomikoa eta hura garatzen duten erakundeak sustatzen dituzten euskal administrazio publikoetako sailen kopurua, EHSS laguntzaile gisa identifikatu eta sustapen-ekintzetan eta esku hartzen duen politiketan parte-hartzea errazteko kontuan izaten dutenak, edo EHSSLren 6. artikuluan d hizkian eta 7. artikuluan ezarritakoa betez eragiten diotenak.
- EHSSren erakundearen parte-hartze kuantitatiboa (kuota) eta kualitatiboa erantzukizun publikoko sistemetan eta sistemen arteko interakzio-espazioetan, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan, eta hitzarmen sozialak eta itunak bultzatzea: a) EHSSko erakundeekin egindako itun, kontratu eta kontzertuen kopurua; b) kontratazioan klausula sozialak sartzea (EHSSLren 15. eta 12.4 artikulua); c) EHSSLren 10.1 artikuluan adierazitako eta 11. artikulutik 13. artikulura arte (sistemen kudeaketa, zerbitzuen hornidura, erreferentziaren irudia, kasua koordinatzea eta gizarte-laguntza) garatutako lau mailako parte-hartzea.
- Lankidetzaren diseinatu, garatu eta ebaluatutako proiektuen edo ekimenen kopurua (erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduratik kanpoko interes orokorreko jardueretan).

Arretako eredu komunitarioa sustatzea, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearekin eta gizarte-zerbitzuetarako kalitatearen Europako borondatezko esparruarekin koherente izanik.

- Ereduarekin koherente izanik, arretan eta kudeaketan hobekuntzak sartzen dituzten erakundearen kopurua, eta barneko eta kanpoko interes-taldeek haiei buruz egiten duten balorazioa.
- Erakundeek artatutako pertsonen kopurua eta proportzioa: a) egoitza-zentroetan, beste alojamendu batzuetan eta etxean; b) ohiko bizilekuan edo beste leku batzuetan; c) lehen mailako arretako zerbitzuetan eta bigarren mailako arretako zerbitzuetan.

C) SEKTORE PUBLIKOAREN ETA EHSS-REN ARTEKO LANKIDETZA SUSTATZEKO/INDARTZEKO EKINTZAREN BITARTEZ

EHSSko erakundearen gizarte-oinarria indartzea: lotutako pertsonen kopurua handitzea eta profilen eta erakundearekiko lotura-moten dibertsifikazioa (bazkideak, boluntarioak, laguntzaileak, soldatapekoak, dohaintza-emaileak, legatudunak...), boluntarioen loturaren iraunaldia handitzea (antzinatasuna), profilen parte-hartze aktiboa (jardura konkretuetan, alde batetik, eta erakundearen, bestetik) eta gobernu-organismoak berritzea, txandaketetan zailtasunak dituzten ATEen kasuan bereziki.

Krisiaren ondoren, asoziazionismo txikia eta ertaina indartzea, erakunde zibikoiei eta osasunaren eremukoiei arreta berezia jarrita, bai eta garapenerako nazioarteko lankidetzako erakundeei ere: sortzen diren eta desagertzen diren erakundearen kopurua; beste batzuekin lankidetzan jardun, baliabideak partekatu edo biltzen diren erakundearen kopurua; gizarte-oinarria handitu duten erakundearen kopurua; finantzaketa publikoa duten erakundearen kopurua eta finantzaketa publikoa handitzea lortu duten erakundearen kopurua (krisiaren aurreko mailetaraino, orduan existitzen ziren erakundearen kasuan).

EHSSko erakundeei eta sareei laguntzeko sistema integral bat definitzea eta garatzea, enpresekin lotuta existitzen den moduan, lehendik zeuden ekimenen oinarriaren gainean (laguntza publikoen eta banku-fundazioen deialdiak, boluntarioen agentziak, Indartu programa... eta SPRI, Euskalit, Hobetuz-Lanbide...).

- Erakundea indartzeko programetan sartzten diren erakundeen kopurua eta mota.
- Kalitatea, prestakuntza edo/eta berrikuntza sustatzera bideratutako ekimenetan eta programetan sartzten diren erakundeen kopurua eta mota: a) orokorrak; b) berariaz sektorerara orientatuak.
- Jarduera ekonomikoa bultzatzera bideratutako programetan sartzten diren erakundeen kopurua eta mota, eta programa horien esparruan garatutako ekimenen edo proiektuen kopurua eta mota.
- Existitzen diren laguntza-lerroak berrantolatzea, euskal administrazio publikoen maila bakoitzeko eskumenak kontuan hartuta: Eusko Jaurlaritzak lurraldez gairik edo/eta jarrera berritzaileko erakunde, proiektu eta ekimenei ematen dizkien laguntzen pixkanakako orientazioa.

Laguntzen deialdiaren sinplifikazioa eta antolaketa: sektoreari laguntzeko denetarikoko lerroak biltzen dituzten deialdien kopurua; prozedurak eta inprimakiak ATEetara egokitzen dituzten berariazko deialdien edo deialdi orokorren kopurua; ebazpen-epeak murriztu dizkieten ATEen kopurua, eta, hala badagokio, diru-laguntzen ordainketa.

Guztizko finantzaketaren gainean finantzaketa propioak eta pribatuak adierazten duten ehunekoari eustea, edo pixka bat handitzea, finantzaketa-iturriak dibertsifikatzea eta finantzaketa propioa erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduraz kanpoko interes orokorreko jardueretara bideratzea: guztizko finantzaketaren gainean finantzaketa propioa eta pribatua adierazten dituen ehunekoak; erakundeen finantzaketa-iturrien kopurua eta mota; azken aldian finantzaketa-iturriak dibertsifikatu dituzten erakundeen kopurua eta ehunekoak; erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduraz kanpokoak diren interes orokorreko jardueretan finantzaketa propioak adierazten duen ehunekoak; erakundeek parte hartzen duten horniduretan erantzukizun publikoko zerbitzuen finantzaketa publikoa adierazten duen ehunekoak; dohaintzak eta legatuak hautematen dituzten erakundeen kopurua; EBk finantzatutako proiektuak garatzen dituzten erakundeen kopurua, eta guztizkoarekiko EBren finantzaketak adierazten duen ehunekoak.

Baliabide materialen (azpiegiturak) hobekuntza eta erakundeen inbertsio-gaitasunaren eta likidezia garatzea. Gizarte-egoitzarako edo/eta barne-bizitzarekin edo ematen dituen zerbitzuekin lotutako oinarriko jarduerak garatzeko beren lokala duten/ez duten erakundeen kopurua. Alojamentu-zerbitzuak, egunekoak edo beste azpiegitura “astun” batzuk hornitzeko beharrezkoak diren azpiegitura propioak dituzten/ez dituzten erakundeen kopurua. Kreditua lortzeko zailtasunak eta diruzaintza-arazoak dituzten erakundeen kopurua.

D) *BESTE ERAGILE BATZUEKIKO LANKIDETZA (euskal sektore publikokoak ez direnak)*

- Europar Batasuneko helburuekin bat datozen gizarte-arloko esku hartzeko proiektuak garatzen dituzten eta kofinantzaketa duten erakundeen kopurua, mota eta ehunekoak.
- Egoitza eta jarduera Euskadin duten enpresen kopurua, eta lankidetzaren motaren bat abian jarri duten erakundeak, eta zer motatako lankidetzak jarri duten abian (Legearen 24.2 artikulua).

E) *SEKTOREAREN NORTASUNA, EGITURAKETA ETA ONARPENA*

Aurrerapenak nortasun partekatuen definizioan, sektoreko kide izatearen zentzua handitzea eta koherentzia handiagoa bilatzea (sozialki proposatzen dena barnetik bizitzea).

- Sektoreko erakundeak eta sareak gero eta gehiago identifikatzea kolektiboki eraikitzen ari den eta sozialki komunikatzen ari den nortasun partekatuekin: sektorearen parte direla dioten lurralde, eremu, tamaina... bakoitzeko erakundeen kopurua, eta sektorearen zer ezaugarri onartzen dituzten ezaugarri propio gisa.
- Erakundeen gobernu-organoetan emakumeen kopurua handituz joatea, irudi juridiko guztietan parekotasunera iritsi arte, gutxienez. Zuzendaritza- eta kudeaketa-postuetan eta -taldeetan emakumeen kopurua handitzea.
- Dibertsitate funtzionala duten eta erakundeetan gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuan dauden pertsonen kopurua handitzea.

Aurrerapenak sektorearen egituraketan

- Lurralde-mailan sarean indartzea, hiru lurralde historikoetan.
- Baterako diskurtsoa eraikitzen eta posizio partekatuak sustatzen eta defendatzen aurrera egitea.
- Alde batetik, Sareen Sareren, eta bestetik, lurralde- eta eremu-sareen arteko loturak hobetzea, emakumeen asoziazioekiko konexioa indartuz, besteak beste.
- Sareen finantzaketa egonkor propioa eta publikoa, barneko parte-hartzea dinamizatzeko eta kanpoko ekintza sortzeko.
- Sareen eta kide diren erakundeen antolaketa indartzea eta hobetzea (bi norabideko komunikazioa, parte-hartzea...), bai eta sareen barruko sareko lana ere.
- Lankidetzaren horizontalean aurrera egitea (esku-hartzeko erakundeen artean): esku-hartzeko beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzen diren esku-hartzeko erakundeak.

Sektorearen errealitatearen eta haren gizarte-ekarpenaren ezagutza hobetzea.

- Erakunde konkretuen adibiderik eman gabe, EHSS zer den definitzen dakiten herritarren kopurua handitzea, eta sektorearen eta haren gizarte-ekarpenaren pertzepzio positiboa dutenak (erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduraren guztizko balioa eta balio erantsia), erakunde guztien baterako ezaugarriak zein sektorearen aniztasuna kontuan hartzen dutenak (zenbait irudi juridiko eta sektoreak jarduera garatzeko baliatzen dituen eremuak bereiztea, beste alderdi batzuen artean).
- Ebaluazio-, komunikazio- eta gardentasun-ekintzak egiten dituzten erakundeen eta sareen kopurua (zerbitzuen eta proiektuen emaitzen ebaluazioa, misioaren betetze-mailaren ebaluazioa), haien errealitatea eta ekarpena jakitera emateko. Egiten dituzten ekintza-motak eta haien maiztasuna.

F) I+G+B ETA DATUETAN OINARRITUTAKO KUDEAKETA

I+G+b soziala bultzatzea EAEn eta lurralde bakoitzean: finantzaketa publiko pribatu edo mistoarekin sustatutako ikerketa-, garapen- edo berrikuntza-ekimenen edo -proiektuen kopurua, itzuli beharrik gabe edo inbertsio-esparru batean; sustatutako edo abian jarritako inbertsio-tresnen kopurua eta mota.

Datuetan oinarritutako EHSS sustatzeko politiken kudeaketa, EAEn, eta lurralde bakoitzean, kontuan hartuta, gutxienez: a) sektorearen egoerari eta bilakaerari buruzko bi urtean behingo txostena (EHSSLren 25.2 artikulua) eta ondoz ondoko liburu zuriak; b) zabaldutako ondoz ondoko estrategien ebaluazioak (helburuekin lotutako emaitzen adierazleak, eta jarduerekin lotutako jarraipen-adierazleak); c) sustapen-neurriei buruzko txostenaren emaitzak (EHSSLren 19. artikulua).

3.3. ESTRATEGIAREN ETA FORU- ETA UDAL-ESTRATEGIEN ARTEKO LOTURA

Estrategien lerrokatzeari buruz adierazitakoaz gain, EHSSSE barne, helburu orokorreari dagokienez adierazi behar da EHSSSE hau dela:

- EHSSLren 17. Artikuluan aurreikusitakoa betez, Eusko Jaurlaritzak eta EHSSko sareek diseinatu eta bultzatu beharreko estrategia bat da.

<<Eusko Jaurlaritzan gizarte-zerbitzuen alorreko eskumena duen sailak, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeekin eta sareekin lankidetzan, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren edo hura ordeztzen duen erakundearen bitartez, hirugarren sektore soziala sustatzeko estrategia bat egingo du; alderdietako bakoitzak sustatuko dituen jardunak eta lankidetzan egindako jardunak hartuko ditu estrategia horrek barnean, bai eta hartarako behar diren koordinazio-mekanismoak ere>> (17. artikulua, 1. atala).

- Beraz, sail arteko izaera du, baina ez instituzio artekoa. Hala ere, foru-aldundiak, tokiko organoak eta EAEko organo legegileak ardatz dituzten bi jarduera sartzen ditu, jarduera ez-propio gisa, Legearen 18. artikulua eta 7. artikulua hurrenez hurren derrigorrezko gisa ezartzen dituen jarduerekin koherente izanik.

18. artikulua. EAEko administrazio publikoen beste maila batzuk sustatzeko neurriak.

<<1. Foru-aldundiek eta tokiko erakundeek hirugarren sektore soziala sustatzeko estrategiak landuko dituzte, bakoitzaren eskumeneko eremu geografikoei dagokienez. Estrategia horiek beti koordinatu beharko dira Euskadiko hirugarren sektore soziala sustatzeko estrategiarekin.

2. Foru-aldundiek eta toki-erakundeek diru-laguntzen deialdiak egin ahal izango dituzte urtero hirugarren sektore sozialeko erakundeek interes orokorreko jarduera sozialak egiten laguntzeko, bakoitzaren eskumeneko lurralde-eremuetan, eta baita eremu horretako erakunde eta sareen funtzionamendua laguntzekoak ere, beste hainbat sustapen-neurri hartzeaz gain>>.

7. artikulua. Elkarrizketa zibila

<< 5. Foru-aldundiek eta toki-erakundeek ere ezaugarri horietako beretako elkarrizketa edukiko dute, egokitzat jotzen dituzten baliabideen bitartez, beren lurraldeetan jarduerak gauzatzen dituzten Euskadiko hirugarren sektore sozialeko sareekin.

6. Eusko Legebiltzarrak eta lurralde historiko bakoitzeko batzar nagusiek ere elkarrizketa zibila sustatuko dute Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren sareekin.

7. Euskal sektore publikoak neurriak bultzatuko ditu hirugarren sektore sozialak hirugarren sektore sozialarekin eta esku-hartze sozialarekin zerikusia duen jarduera publikoko politiketan eta ildoetan eduki beharreko partizipazio erreal eta efektiboan sakontze aldera, aholku-emetetik harago joanik, kontuan hartuz ukitutako pertsona eta kolektiboen beharrezan eta eskaerak, eta bermatuz pertsona eta kolektibo horiek eta erakundeek partizipazio efektiboa eta eragina edukitzea aipatutako politiken eta ekintza-ildoen diseinuan, exekuzioan, jarraipenean eta ebaluazioan>>.

Azkenik, estrategia irekita dago foru-aldundiek eta EUDELeke parte har dezaten edozein jardueratan, hala nahi izanez gero, bai eta lankidetzak-ekintzak hartzeko ere, horiek edo Eusko Jaurlaritzak proposatuta, eta alde guztiek onartzen badute. Gainera, estrategian sartu baino lehenago, foru-aldundiekin eta EUDELekekin berariaz kontratatuko dira haien eskumenarekin zerikusia duten jarduerak, instituzio bakoitzaren esparrua eta instituzioen arteko leialtasuna errespetatuz.

Hori guztia estrategien koordinazioan aurrera egiteko eta helburu partekatuen esparru batean EHSS sustatzeko gaietako baliabideak aprobetxatzeko.

4. JARDUERAK

Atal honetan, estrategiaren laburpen bat eskaintzan da lehenik, estrategia osatzen duten jarduerak labor eta modu erlazionalean aurkezteko; eta, horrez gain, bi jarduera ez-propio eta jarduerak atalka xehatu erakusten dituen "mapa" bat.

Ondoren, jardueren zerrenda agertzen da, eta ondoren, strategiaren 9 eremuak eta haietako bakoitzarekin lotutako jarduerak (jarduera bat eremu batekin edo gehiagorekin lotuta egon daiteke).

4.1. ESTRATEGIAREN LABURPENA (MAPA)

A) JARDUERA EZ-PROPIOAK / Sustapen-estrategiak garatzea eta elkarrizketa zibila sustatzea

Bi **jarduera ez-propioek** Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak ezartzen dituen betebeharrei erantzuten diete, eta, batik bat, euskal sektore publikoaren osotasunaren jarduera arauaren helburuekin lerrokatzeko funtsezko alderdiak dira.

- **HSS sustatzeko foru- eta toki-estrategiak zabaltzea**, EHSSSE bezala aurkeztu berri diren helburu orokorrekin lerrokatu behar direnak, eta hartara, EHSS sustatzeko ekintzaren orientazioa ezartzen da, hartan parte hartu duten eragileek partekatuko dutena, eta, bereziki, euskal administrazio publikoek.
- **Sektore publikoaren osotasunarekiko elkarrizketa zibila sustatzea**, maila exekutibo eta legegilean (eusko legebiltzarra eta batzar nagusiak), 1. Jarduerak berariaz jasotzen duen arren elkarrizketa zibilari buruzkoa, eta EHSSSEren zeharkakotasunari buruzkoa, Eusko Jaurlaritzari dagokionez.

Estrategia osatzen duten 34 jarduera propioak elkarren artean lotuta dauden hurrengo ataletan biltzen dira.

B) LANKIDETZA PUBLIKO-SOZIALA

Estrategiaren zeharkakotasuna (EJ) eta EEZM indartzea

- **EHSSSEren zeharkakotasuna Eusko Jaurlaritzan**, sustapen-ekintza eta EHSSrekiko lankidetzaren bultzatzeko Gobernuaren sailetatik. **Eta Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaia indartzea**, Legearen 7. artikulua 3. atalean aurreikusitakoa betez, proiektu eta ekimen konkretuak oinarri hartuta operatibitatean eta baterako lanean irabazteko moduan.
- Gainera, atal honetan **zenbait sailen berariazko hiru jarduera** sartu dira, **aurrekoen maila desberdinekoak, baina** Eusko Jaurlaritzaren eta EHSSren arteko lankidetzaren **zeharkakotasunean aurrerapena adierazten dutenak**. Hauek dira: a) etxebizitzaren programa sozialak eta gizarteratzeko etxebizitzaren sare bat sustatzea; b) kirol- eta kultura-eremuen bidez gizarteratzeko programa pilotu bat diseinatu, abian jarri eta ebaluatzea; c) EHSSko erakundeetan euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa sustatzea, gai horretako Gobernuaren laguntza-lerroak sektoreari egokituta, beharrezkoa den neurrian.

Beste jarduera batzuek ere ematen dute zeharkakotasunean aurrera egiteko aukera, baina nahiago izan da beste atal batzuetan kokatu, haien edukia kontuan hartuta. Esate baterako, gizarteratzearen sustapen-plana "baliabideei" dagokien atalean kokatu da.

Eredu mistoa eta eredu komunitarioa

- **Eredu mistoa bultzatzea** gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan erantzukizun publikoko zerbitzuak hornitzeko, **eta, esparru horretan, hitzarmen soziala eta itunak** bultzatzea, zerbitzu horien horniduran lankidetzak publiko-soziala antolatzeko funtsezko tresnak diren aldetik.

Adierazi dugu elkarrizketa zibilak eta eredu mistoak elkarren beharra dutela eta estrategiaren oinarrian eta EHSSLn dauden gizarte-ereduarekin eta sektoreen arteko erlazioaren bidez lotzen direla elkarrekin. Jarduera horiek, beraz, funtsezkoak dira, strategiaren nukleoa edo zutabea dira, eta haien inguruan bilatu behar da, derrigor, euskal administrazio publikoen mailen arteko koordinazioa.

- Eta sektorearen erakundeetan arretako eredu komunitarioa bultzatzea, esku-hartzea eta kudeaketa eredu horretara eta horrekin koherenteak diren beste estandar batzuetara egokituz; esate baterako, *Gizarte-zerbitzuetarako kalitatearen Europako borondatezko esparrura.*

Ulertzen da, gainera, erantzukizun publikoko sistemek gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan berentzat nahi dituzten arretako eredu komunitarioaren ezaugarriak indartzen dituela eredu mistoak: arretaren hurbiltasuna, pertsonalizazioa eta integritatea (zeharkako jarraitua eta luzetarako arretakoa), hartzaileen parte-hartzea, eta abar.

C) SEKTORE PUBLIKOAREN ETA HSS-REN ARTEKO LANKIDETZA SUSTATZEKO/Indartzeko EKINTZAREN BITARTEZ

- **Erakundeak indartzea**, guztiek izan dezaten aukera: gizarte-oinarria handitzeko eta zaintzeko, eta parte-hartzea sustatzeko, nortasunaren funtsezko alderdi bat eta gizarte-legitimitatearen oinarri bat den aldetik; esku-hartzea eta kudeaketa hobetzea; beren denetariko funtzioak (funtzioen oreka) garatzeko behar dituzten baliabide guztiak eskura izatea, gakoak diren zenbait gairi ekinez, bereziki (esate baterako, finantzaketa-iturrien dibertsifikazioa), autonomia handiagoa izateko, eta azpiegiturak eskura izatea, oinarritzko jarduerak garatzeko.

Jarduera batzuk berariaz ATEetara bideratuta daude eta beste batzuk ez; hala ere, kasu guztietan, arreta berezia jarri behar zaie, sektorearen aniztasunari eusteko, eta erakunde horien ekarpenak sektorearen % 79 adierazten du. Bestetik, erakundearen ezaugarriei egokitutako laguntzak eta baliabideak hobetu nahi dira (ATEak/erakunde handiak; boluntarioen/boluntarioak dituzten erakundeak; jarduera ekonomiko garrantzitsua duten eta erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran parte hartzen duten/ez duten erakundeak).

Gainera, sektoreko erakundeetatik beraietatik iradokitzen da, legegaldi honetan, euskal administrazio publikoek, sustapen-ekintzan, ATEen nolabaiteko diskriminazio positiboa egitea; batik bat, eremu zibikokoei (hartzaileek beraiek osatutakoak) eta garapenerako nazioarteko lankidetzako erakundeek dagokienez, kontuan hartuta biak direla krisian zehar diru-laguntzen murrizketak neurri handiengan jasan dituztenak.

Azkenik, atal honetan, Legearen 16. artikuluan aurreikusitako betebeharren irismena argitzera bideratutako ekintza bat jaso da; bereziki, erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran parte hartzen ez duten ATEentzat, kasu horietan zenbait betebehar –kanpo-ikuskaritzak egitea, esate baterako– aplikagarria ez dela ulertuta.

D) BESTE ERAGILE BATZUEKIKO LANKIDETZA (euskal sektore publikokoak ez direnak)

- **Euskal administrazio publikokoak ez diren eragileekiko, eta, bereziki, Europar Batasuneko eta enpresetako eragileekiko lankidetz**a. EBren kasuan, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan Euskadik EBn duen posizionamendua hobetu nahi da, lankidetz a publiko-sozialaren bidez, eremu horretan EBren helburuekin lerrokatutako izaera estrategikoko ekimenak sustatu ahal izateko (horietako bat sektoreko erakundeetan arretaren eredu komunitarioa sustatzea da). Eta enpresei dagokienez, EHSSk eta euskal enpresek partekatutako esparru baterantz aurrera egin nahi da, bien arteko lankidetzaren helburu, irizpide eta edukien inguruan, eta hurrengo urteetan lankidetzan aurrera egiteko aukera emango duen programa pilotu bat sustatzea, irizpide horiekin lerrokatuta, eta jadanik existitzen diren esperientzien analisitik eta hedapenetik, eta horiek sustatuz joatea.

E) SEKTOREAREN NORTASUNA, EGITURAKETA ETA ONARPENA

Nortasuna eta koherentzia

- **Nortasuna eta koherentzia.** Atal honetan, sektorearen nortasuna indartzearekin loturako jarduerak sartzen dira, sektoreak partekatutako nortasunaren eta diskurtsoaren eraikuntzan aurrera egiteko, bai eta erakundeek sektorearekiko identifikazioan eta nortasun partekatu horretan aurrera egin dezaten ere (kide izatearen sentimendua).

Gainera, erakundeen koherentziarekin lotutako jarduerak sartu dira, eta, zehazki, intzidentzia sozialaren eta politikoaren funtzioa betetzea (eskubideak sustatzea eta haiek urratzen diren egoerak salatzea), aukera- eta tratu-berdintasuna sustatzea, erakundeetan emakumeen eta gizonen berdintasunari arreta berezia jarrita, bai eta dibertsitate funtzionala duten pertsonak haietan sartzea ere, legezko betebeharretatik harago.

Horren haritik eta erakundeen eta haien nortasunaren (misioa eta balioak) arteko koherentziari dagokionez, uste da funtsezkoa dela erakundeen baita bizi denaren eta sozialki proposatzen denaren arteko koherentzia ahalik handiena izatea. Nortasunaren adierazpena da, batik bat, koherentea, baina legitimitate-iturri garrantzitsua ere bada, eta horrek bilaketak sektorearen onarpenarekin bat egiten du.

Sektorearen egituraketa

- **Sektorearen egituraketa.** Sektorearen egituraketan, maila guztietan egin behar da aurrera, kontuan hartuta guztiak direla garrantzitsuak: a) esku-hartzeko erakundeen arteko lankidetz a horizontala; b) gobernantza, barne-antolaketa, parte-hartzea eta sareko lana, sare bakoitzaren baitan; c) sektorea osorik aktibatzea, lurralde mailan zein eremuka, eta Sareen Sarearen eta zenbait eremuren (esate baterako, emakumeen asoziazionismoa) arteko lotura egitea.

Sektorearen ezagutza eta onarpena

- **Sektorearen ezagutza eta onarpena.** Herritarrek, sektore publikoak, beste sektore batzuek eta beste gizarte-eragile batzuek sektorearen ezagutza eta onarpena, eta haren ekarpena hobetzeko jarduera gako batzuk bultzatu nahi dira, erakundeen ebaluazioaren gardentasunarekin eta kulturarekin, erakundeen gizarte-ekarpenaren identifikazioarekin eta hedapenarekin (erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduraren gutzizko balioa eta balio erantsia) eta kanpo-komunikazioko ekintzekin zerikusia dutenak (lau urtez behingo komunikazio-plana, bozeramailetzak sustatzea, komunikabide sozialekiko akordioak, bi urtez behingo biltzarra eta maiatzaren 12ko jarduerak). Sektorearen ezagutza eta onarpena gizarte-oinarria indartzearekin eta baliabide ekonomikoak dibertsifikatzearekin lotuta dago. Gainera, gutzizko balioaren eta balio erantsiaren jarduera zuzenki lotuta dago elkarriketa zibilaren eta eredu mistoaren sustapenarekin.

F) I+G+b ETA DATUETAN OINARRITUTAKO KUDEAKETA

I+G+b soziala

- **I+G+b soziala.** Beharrak hautematea eta berrikuntza funtsezko funtzioak dira sektore publikoaren lankidetzaren bidez sustatu nahi diren erakundeetan.


Hain zuzen ere, gizarte-berrikuntzari laguntza publikoa eman nahi zaio, eta EHSSren eta Innobasqueren artean lankidetzaz-lerro bat bultzatu. Gainera, sektoreen lankidetzaren bidez, gizarte-ekimen berritzaileetan inbertitzeko sustapen-ekimen bat diseinatu eta bultzatu nahi da, existitzen diren esperientziak kontuan hartuta; esate baterako, Erresuma Batukoa. Eta ekimen konkretuak bultzatzea erakundeentzat eta sektore publikoarentzat bereziki interesgarriak diren esparruetan; esate baterako, “silver economy”, alde batetik, eta gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan gazteen ekintzailatza, bestetik; betiere, bi gizarte-erronka handiei erantzun batzuk ematen saiatuz: zahartze aktiboa, osasungarria, parte-hartzailea..., eta gazteen enplegua.

Jarduera horiek jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzearekin lotuta daude, bai eta sektorearen eta haren ekarpenaren onarpenarekin ere. Bestalde, ekintzailatzaren sustapena eta sektorean gazteak sartzea sektorearen berrikuntzarekin eta erakundeen gizarte-oinarria indartzearekin (intraekintzailatza) lotuta daude.

Gainera, gizarte-inbertsioa, batetik, eta finantzaketa-iturriak dibertsifikatzera bideratutako jarduerak eta erantzukizun publikoak ez diren ekimen, proiektu eta zerbitzuak garatzeko lankidetzan jarduten duten eragileen jarduerak, bestetik, gakoak dira berrikuntza sustatzeko eta funtzioen eta autonomiaren arteko orekarako.

Errealitatearen analisisa eta datuetan oinarritutako sustapen-sistemaren kudeaketa

- **Errealitatearen analisisa eta datuetan oinarritutako sustapen-sistemaren kudeaketa.** Azken atal honetan, estrategia bera eta EHSSren sustapen-neurriak eguneratzeko ikerketa- eta ebaluazio-ziklo bat (EHSSren egoerarena, sustapen-neurriena eta strategiaren zabalkundearena) sortzera bideratutako jarduerak sartzen dira, existitzen diren edo/eta legean aurreikusitako informazio- eta diagnostiko- edo ebaluazio-tresnak abiapuntu hartuta.



Sustapen-estrategiak garatzea eta elkarrizketa zibila / jarduera ez-propioak sustatzea

Lankidetzak publiko-soziala

HSSrekiko lankidetzak sustapen-ekintzen bitartez

Beste eragile batzuekiko lankidetzak

Sektorearen nortasuna, egituraketa eta onarpena

I+G+b eta datuetan oinarritutako kudeaketa

4.2. JARDUEREN ZERREDA ETA JARDUEREN TAULA (JARDUERAK – EREMUA)

Jardueren zerrenda

A) JARDUERA EZ-PROPIOAK / Sustapen-estrategiak garatzea eta elkarrizketa zibila sustatzea

HSSren **sustapen-estrategiak** egitea, **foralak eta tokikoak**, helburu orokorrekin lerrokatuak, EHSSSE bezala.

Sektore publikoarekiko **elkarrizketa zibila** sustatzea **elkarrizketa zibilerako mahaien edo antzeko tresnen bitartez**, eta zabalkundearen eta zeharkakotasunean aurrera egitea (ikus 1. jarduera Eusko Jaurlaritzaren kasuan).

B) LANKIDETZA PUBLIKO-SOZIALA

Estrategiaren zeharkakotasuna (EJ) eta EEZM indartzea

1. **Eusko Jaurlaritzaren eta EHSSren arteko lankidetzaren zeharkakotasuna** sustatzea eta **Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaia indartzea**, eta haren funtzionamenduaren dinamika, **Legaren 7.3 artikuluan** aurreikusitakoa betez.
2. **Etxebizitzaren programa sozialak eta gizarteratzeko etxebizitzaren sare** bat sustatzea, lankidetzaren publiko-sozialetik.
3. **Kirolaren eta kulturaren eremuetatik, gizarteratzeko programa pilotu** bat diseinatu, abian jarri eta ebaluatzea.
4. EHSSko **erakundeetan euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa sustatzea**, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin (ebaluazioa, egokitzea, eta hala badagokio, laguntza-lerroak)

Eredu mistoa eta eredu komunitarioa

5. **Eredu mistoaren hedapenaren jarraipena, sustapena eta balorazioa (lankidetzaren publiko-soziala)** gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan.
6. **Kontzertu sozialaren araubidea eta itunak sustatzea**, erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran sektorearen lankidetzaren formalizatzeko, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan.
7. **Arretaren eredu komunitarioa indartzea eta sustatzea EHSSko erakundeetan.**

C) SEKTORE PUBLIKOAREN ETA HSS-REN ARTEKO LANKIDETZA SUSTATZEKO EKINTZAREN BITARTEZ

Indartzea

8. Erakundeetako **gizarte-oinarria eta parte-hartzea sustatzeko programa** bat diseinatu, abian jarri eta ebaluatzea.

Erakundeetako laguntza integrala emateko, erakunde-motek (ATEak eta beste batzuk) egokitutako sistema bat definitu, garatu eta ebaluatzea.

9. **ATEen erakundeak indartzeko (prestakuntza, laguntza teknikoak...) sailen arteko programa** bat diseinatu, abian jarri eta ebaluatzea.

- 10. EHSSko erakundeei zuzendutako **laguntzen deialdiak sinplifikatzea eta hobetzea, eta ATEei egokitzea.**
- 11. EHSSko erakundeen **sarbidea** indartzea eta sustatzea **jarduera ekonomikoa sustatzeko eta kudeaketa (kalitatea, berrikuntza...) hobetzeko programa publikoak finkatzea eta sustatzea.**
- 12. **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren diru-laguntzen eta laguntzen analisia eta hobekuntza** eta EHSSko erakundeentzako laguntza-lerroak deialdi bakar batean bateratzea (Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza), ezagutzaren kudeaketa-lerroa berreskuratzeko.
- 13. EHSSren **prestakuntza-beharren diagnostikoa** egitea eta **prestakuntza- eta laguntza-plana (mentoring)** garatzea.
- 14. EHSSko erakundeei **laguntzeko egitura, existitzen diren sustapen-neurrietara** eta baliabideetara **sarbidea izan dezaten, ATEei arreta berezia jarrita.**

Baliabideak

- 15. **Dohaintzak eta legatuak sustatzeko kanpaina** baten diseinua, garapena eta ebaluazioa.
- 16. Erakundeen **inbertsio-gaitasuna, likidezia eta kreditua lortzea garatzeko** neurriak sustatzea, abalak izateko eta diruzaintzako zailtasunei aurre egiteko aukera izan dezaten.
- 17. Erantzukizun publikoko zerbitzuen hornidurarekin eta gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan EHSSko erakundeen interes orokorreko beste jarduera batzuekin lotutako **gizarte-azpiegiturak sustatzeko plana.**
- 18. EHSSLren 16. artikuluan jasotako erakundeen betebeharren irismena argitzea, eta **laguntzak diseinatzea, hala badagokio, betebehar horiek betetzeko, aldizkako ebaluazio- eta kontrol-mekanismoak eta zehapen-araubide zehatza eta egokia** garatu baino lehenago.

D) BESTE ERAGILE BATZUEKIKO LANKIDETZA (euskal sektore publikoak ez direnak)

- 19. **Europar Batasunarekiko lankidetzak sustatzeko** ekimen bat definitu, abian jarri eta ebaluatzea, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan ekimenak eta proiektuak garatzeko.
- 20. **Euskal enpresa-sektorearen eta EHSSren arteko lankidetzako programa pilotu** bat sustatzea.

E) SEKTOREAREN NORTASUNA, EGITURAKETA ETA ONARPENEA

Nortasuna eta koherentzia

- 21. **Sektorearen nortasuna indartzeko ekimen** bat sustatzea.
- 22. **Eskubideen erabilera efektiboan defizitak dituzten intzidentziak hautemateko sistemak** garatzea, hartzaileen aldetik.
- 23. EHSSko erakundeen konpromisoa sustatzea, haietan **aukera- eta tratu-berdintasunaren** printzipioak aplikatuz, legerian aurreikusitakoaz harago eta nortasunarekin koherente izanik.

Sektorearen egituraketa

- 24. **Sareen programa, lankidetzak horizontalak** sustatzeko.
- 25. Sareen eta kide diren erakundeen **governantza eta barne-antolaketa, eta sareko lana (sareen barruan)** indartzea eta hobetzea.
- 26. EHSSren **egituraketa** sustatzea.

Sektorearen ezagutza eta onarpena

- 27. Ebaluazioaren gardentasuna eta kultura sustatzea EHSSko erakundeetan eta sareetan.
- 28. EHSSren eta erakundeen guztizko balioa eta balio erantsia identifikatu, onartu eta sustatzea.
- 29. EHSS eta haren errealitatea eta ekarpena ezagutzera emateko ekimen bat sustatzea.

F) I+G+b ETA DATUETAN OINARRITUTAKO KUDEAKETA

I+G+b soziala

- 30. Gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan I+G+b eta gizarte-inbertsioko ekimen bat sustatzea.
- 31. EHSSko erakundeen jarduera ekonomikoa “silver economyren” esparruan sustatzeko aukerak ebaluatzea eta gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan gazteen ekintzailatza sustatzea eta potentzialki bideragarriak diren ideiei laguntza ematea.

Errealitatearen analisia eta datuetan oinarritutako sustapen-sistemaren kudeaketa

- 32. EHSSko erakundeetan eta sareetan erregistroa hobetzeko eta erregistro-datuaren erabilgarritasuna hobetzeko ekintzak sustatzea.
- 33. EHSSren egoerari, sustapen-neurriei eta estrategiaren zabalkundeari buruzko ikerketaren eta ebaluazioaren aldizkako ziklo bat abian jartzea.
- 34. Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia abian jartzea, legean aurreikusitakoa betez.

Erlazio-taula: EHSSL eremuak eta EHSSSE jarduerak

EHSSL eremua	EHSSSE jarduerak
a) Gizarte-oinarria garatzea eta erakundeetan parte hartzea	8
b) Erakundea eta kudeaketa sendotzea	4, 9, 11, 13, 14, 22, 23, 24, 27, 30, 31
c) EHSSren egituraketa eta erakundeen arteko elkarlana	13, 24,25,26, 33
d) Jasangarritasuna, autonomia, gardentasuna eta kontu-ematea	15,16, 18, 19, 27, 29, 30, 32
e) Inbertsioak eta azpiegiturak	2,16,17
f) Sektore publikoarekiko lankidetzak	1,2,3,4,5,6,7,17, 19, 30, 31
g) Enpresekiko lankidetzak	11, 20
h) EHSSren sustapena, fiskalitatea eta onarpena	9,10, 11, 12, 14, 17, 28, 29, 33, 34
i) Nortasuna	4, 7, 21,22, 23,28

5. ESTRATEGIAREN ZABALKUNDEA, EBALUAZIOA ETA EGUNERATZEA

Adierazi dugun eta Legeak aurreikusten duen moduan, estrategia Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egin du, EHSSko erakundeekin eta sareekin lankidetzan, EEZMren bitartez.

Gainera, estrategia egiteko eta zabaltzeko, ebaluatzeko eta eguneratzeko, Lehendakaritzaren laguntza (Koordinazio Zuzendaritza) izan da eta izango da, eta Osasun Saila, Hezkuntza Saila, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Lan eta Justizia Saila, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila eta SPRI–Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren laguntza.

53

Era berean, strategiaren diseinua hiru foru-aldundiekin eta EUDELekin kontrastatu da, eta strategiaren zabalkunde, ebaluazio eta eguneratzean ere hartuko dute parte, arreta berezia jarrita foru- eta toki-estrategien arteko koordinazioari, bai eta estrategian aurreikusitako edo ondoren sar daitezkeen euskal administrazio publikoen arteko lankidetzako eta elkarlaneko jardueri edo ekintzei ere. Strategiaren jarraipena egiteko, Eusko Jaurlaritzak berariazko bilerak egingo ditu foru-aldundiekin eta EUDELekin.

Estrategia zabaldu, ebaluatu eta eguneratzeko prozedura

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila EHSSSE zabaldu, horren jarraipena egin, ebaluatu eta eguneratzeko prozesuaren buru izango da, Lehendakaritza Sailaren (Koordinazio Zuzendaritza) laguntzarekin, eta, horretarako, lantalde bat dinamizatuko du EEZMn, estrategia zabaltzeko, eta urteko jarraipen-txostenak eta emaitzen ebaluazioko azken txostena egiten dela bermatuko du, eta Eusko Legebiltzarrerara igorri eta han aurkeztuko ditu, Legearen 17. artikulua 6. atalean aurreikusitakoa betez.

Lehendakariak parte hartuko du legealdiaren amaieran egiten den strategiaren emaitzak ebaluatzeko EEZMren bilkura monografikoan.

Lantaldea:

- Lau pertsonak osatzen dute iraunkorki, Eusko Jaurlaritza (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila) ordezkatzan duten bi pertsonak eta EEZMn EHSSko erakundeak eta sareak ordezkatzan dituzten bi pertsonak. Lantaldean Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila ordezkatzan duen pertsonak taldearen dinamizatzaile, idazkari eta EEZMren dinamika orokorrarekiko loturaren ardura hartuko du bere gain, eta bilera guztietan egongo da.
- Izaera proaktiboa izango du eta jarduera eta ekintza guztiak zabaltzeko aukera izango du, pixkanaka; hasieran, intentsitate handiz, funtzionamendu-mekanismo argiak eta helburu errealistak hartuta, estrategian definitutako lehentasunei erreparatuz, eta EEZMren bilkuran epeak zabaltzeko proposamen justifikatuak eginez, hala dagokionean.
- Une bakoitzean sustatuta dagoen zabalkundearen jarduera konkretua kontuan hartuta, inplikaturako Gobernu sailekin harremanetan jarriko da, bai eta jardueraren beste arduradun batzuekin ere, abian jartzeko edo jarraipena egiteko.
- Esperientziak kontrastatzeko eta trukatzeko erlazioa izango du *hirugarren sektore sozialari laguntzeko* hirugarren *plana* sustatzeko Generalitateko eta Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen Taulako arduradunekin (Generalitateak eta Taulak hirugarren sektore sozial kataluniarrari laguntzeko planak egin dituzte elkarrekin, azken hiru legealdietan).

Horrekin, estrategiaren zeharkakotasunean eta EEZMn bertan aurrera egin nahi da, pixkanaka, bai eta behar eta aukera konkretuak ardatz dituen ikuspegi praktiko batetik lankidetzan egiteko jarduerak eta proiektuak bultzatu ere.

Helburu horrek hau eskatzen du:

- a) Gobernuak eta EHSSk partekatutako ikuspegi bat, EHSSren gaur egungo ekarpena eta ekarpen potentziala, eta EHSSren eta Gobernuko sailen arteko lankidetzaren garrantzia baloratuko duena, eta gizarte zuzen, kohesionatu, solidario, aktibo... baten aldeko apustua eta gobernantza parte-hartzailearen eta lankidetzaren publiko-sozialaren eredu baten aldeko apustua egingo duena.
- b) Elkar hobeto ezagutzeko eta planteamendu partekatua sustatzeko laneko plan bat, bai eta interes komuneko eta lankidetzaren aukeren eremuak identifikatzeko ere.
- c) Bi aldeen jarrera irekia eta positiboa, ahalegin jarraitua eta erreferente gisa jarduten duten eta behar adinako ardura hartzen duten pertsonak esleitzea.

Estrategiaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresna nagusiak

EHSSren sustapen-estrategiaren jarraipenaren urteko txostenak

Jardueren inplementazioa izango du ardatz (ekintzak zenbateraino exekutatu diren), legealdiko planean sartutako jardueretako bakoitzean definitutako jarraipen-adierazleak abiapuntu hartuta.

Estrategiaren emaitzak ebaluatzeko txostena, 2020ren amaieran

Ebaluazio horrek legealdiko planean sartutako jardueren inplementazioa izango du ardatz (jarraipen-adierazleak), bai eta helburuen lorpena ere (emaitzen adierazleak), jardueretan sartutako emaitzen adierazleak gida orientagarri bat osatzen dute.

Legealdi honetatik harago jarraipena izango duten jardueren kasuan, berehalako ebaluazio bat egingo da, eta, hala badagokio, bi ikuspegi hartuko ditu: ekintzen exekuzio-maila (jarraipen-adierazleak) eta helburuen betetze-maila (emaitzen adierazleak), biak partzialak badira ere.

Ebaluazioak hurrengo legealdiko plana egiteko kontuan hartu beharko diren zenbait gomendio izango ditu, eta abian dauden jarduerak ere plan horretan sartuko dira.

Bi txostenak EEZMn aurkeztu eta eztabaidatuko dira (lantaldean eta osoko bilkuran) gobernu-kontseilura eta Eusko Legebiltzarrerara igorri baino lehen, EHSSLren 17.6 artikuluan aurreikusitakoa betez.

Gainera, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak EHSSren sustapen-neurriei buruzko urteko txostena egingo du (sektore publikoak eta sektore pribatuak bultzatutakoak), eta hobetzeko orientazioak ezarriko ditu, Legearen 19. artikuluan aurreikusitakoa betez. Orientazio horiek kontuan har daitezke estrategia eguneratzeko orduan.

1. ERANSKINA Ikerketako eta ebaluazioko ziklo periodikoa, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen aurreikuspenekiko koherentea

LEHEN ZIKLOA (laburra)			BIRARREN ZIKLO OSOA (arrunta)			
2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN BAROMETROA ETA LIBURU ZURIA						
Bi urtez behingo txostena diseinatzea (barometroa)	Separata-Barometroa eta aurkezpena		Barometroa eta aurkezpena		Separata-Barometroa eta aurkezpena	
	Liburu Zuria fase kuantitatiboa	Liburu Zuria fase kualitatiboa eta Liburu Zuriaren aurkezpen osoa			Liburu Zuria fase kuantitatiboa	Liburu Zuria fase kualitatiboa eta Liburu Zuriaren aurkezpen osoa
EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALA SUSTATZEKO ESTRATEGIA						
Estrategiaren exekuzioaren jarraipenaren urteko txostena eta haren iraunaldiaren amaierako emaitzen ebaluazioaren txostena (17.6 artikulua), eta horretarako legealdiko planaren emaitzen ebaluazioaren txostena egitea aurreikusten da, 2020ren amaieran.			Liburu Zurian oinarritutako estrategia eguneratzea (17.6 artikulua), aurreko legealdiko planaren emaitzen ebaluazioaren txostena ere kontuan hartuta.			

2. ERANSKINA GLOSARIOA ETA LABURDURAK

Dokumentu osoa **laburdurak** erabiliko dira. EHSS, Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala adierazteko; EHSSSE edo “estrategia”, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Sustapen Estrategia adierazteko; EHSSL edo “legea” Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legea adierazteko, eta EEZM, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaia adierazteko.

Estrategiari dagokionez, eta legea betez, ulertzen da gizarte-arloko esku-hartzearen eremua hau dela: EHSSLk laugarren artikuluan esku-hartze sozialeko jardueratzat definitzen duena, edo gizarte-arloko esku-hartzearen esparrukoa, eta barne hartzen ditu gizarte-zerbitzuak, enplegua lortzeko sustapena, espazio sozio-laborala, sozio-sanitarioa, sozioedukatiboa, soziohabitazionala, soziodjudiziala, soziokulturala edo antzeko beste espazio batzuk, bai eta garapenerako lankidetzaren ere, betiere jarduera horiek artikuluen lehen atalean zehaztutako helburura bideratzen badira: <<gizarteratzea, garapenerako lankidetzaren eta biztanleria osoaren eskubideen aitortza sustatzea da, bai eta zaugarritasun- edo bazterkeria egoeran, babesik gabe dauden, desgaitasunen bat edo/eta mendekotasunen bat duten pertsona, familia, talde, kolektibo edo komunitateek horren erabilera efektiboa egitea ere, gizarte-desberdintasunaren, bazterkeriaren, babesik ezaren eta indarkeria matxistaren aurka borrokatuz, eta gizarte zuzen, solidario, berdintasunezko, parte-hartzaile eta demokratikoago batera bideratutako beharrezko gizarte-transformazioan aurrera eginez>>.

Sareztat ulertzen dira, dokumentu osoan, <<bigarren mailako eta hortik gorako erakundeak, beste batzuk ordezkatzeko dituztenak, eta kolektibo jakin bat ordezkatzeko duen Euskadiko hirugarren sektore sozialeko esku-hartze zuzeneko erakundeak, haiek ordezkatzeko dituen sarerik ez dagoenean jarduteko lurraldean edo eremu geografikoan>>, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 2. artikulua erabiliz bigarren paragrafoan aurreikusitakoa betez.

Dokumentu osoan, “EHSSko erakundearen eta sarearen parte-hartzea” aipatzen denean, ulertu behar da erakundearen parte-hartzea, normalean behintzat, haiek kide diren sarearen bidez antolatzen dela, eta, strategiari dagokionez, EHSSko sareak EEZMren parte diren sareek eta erakundeek osatzen dituztela ulertzen da. Modu berean, EHSSko sareei dagokienez, ulertu behar da jardueren diseinua, zabalkundea eta ebaluazioa egiteko, kontuan hartuko direla, bereziki, Sarearen Sarea eta Sarearen Sarean bilduta ez dauden eta beren jardueraren eremuetan maila gorenekoak diren sareak, eta EEZMn ordezkatzeko “sare” guztiak, beste batzuen parte-hartzea ahaztu gabe.

Asoziazionismo txikia eta ertaina (ATE) dela ulertzen da, strategiaren esparruan eta EHSSren Liburu Zuriaren emaitzak kontuan hartuta, 60.001 euro baino diru-sarreraren bolumen txikiagoa duten EHSSko erakundeak (txikiak) eta 60.001 eurotik 300.000 eurora arteko diru-sarrerak dituztenak (ertainak).

Erakunde horiek sektoreko erakundearen % 79 adierazten dute: % 32k kudeatzen duen bolumen ekonomikoa 12.000 eurotik beherakoa da; % 21ek kudeatzen duena, 12.001 eurotik 60.000 eurora artekoa, eta % 26k kudeatzen duena, 60.001 eurotik 300.000 eurora artekoa. ATE kontzeptuak asoziazioetara bagaramatza ere, irudi juridiko guztiak sartzen dira.

Erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduratzat ulertzen da, dokumentu osoan, horien diseinua, prestazioa, ebaluazioa eta hobekuntza, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen aurreikusitakoa betez. Ikusi 10. artikulua 1. atala, erantzukizun publikoko sistemetak eta sistemen arteko (sozio-sanitarioa...) interakzioaren espazioetako lankidetzari buruzkoa, eta 12. artikulua 1. atala, erantzukizun publikoko zerbitzuen hornidurako lankidetzari buruzkoa.

Estrategiari dagokionez, **lankidetzatzat** hartzen dira sektore publikoak, ekonomikoki edo beste modu batean, EHSSko erakundeak laguntza ematen dien balizkoak, haiek interes orokorreko jarduerak egin ditzaten, edo alderantziz.

Eta **elkarlantzat** ulertzen dira honelako egoerak: EHSSko erakundeak eta sektore publikoak elkarrekin lan egitea arau baten garapenean, arreta-sare batean, zerbitzu baten horniduran... Gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan, normalean erantzukizun publikoko eta kudeaketa mistoko espazioekin edo sistemekin lotuta planteatzen dira (kudeaketa publiko zuzena eta ekimen pribatuarekin elkarlanean egindako kudeaketa, soziala nagusi izanik); horrelakoa da, esate baterako, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema. Baina, planteatu daiteke, halaber, esate baterako, proiektu baten exekuzioari dagokionez, diagnostikoaren fasean ebaluazioaren fasean arte. Dena dela, normalean, lankidetzaren kontzeptua erabiliko dugu, generikoki, lankidetzaren, definitu berri dugun moduan, eta elkarlana barne hartuta.